– Denbora luzean hitz egin zenutela? Ja, ja! Orduan badakit zertaz hitz egin zenuten batez ere: politikaz!

Blasek baietz aitortzen dio, halaxe izan zela.

– Zer uste duzu, bada? –esaten dio Toribiok–. Nik aspalditik ezagutzen dut neure anaia...

Gutxi gora-behera: poco más o menos; **lantoki berean:** en el mismo lugar de trabajo; **haltzari:** mueble; **hori dela eta:** por ese motivo; **harritua gelditu:** quedarse extrañado; **konturatu:** advertir, darse cuenta; **antz:** parecido; **izugarri:** muy grande (terrible); **lepo:** cuello; **gainerako(a):** lo restante; **bekoki:** frente; **kokotz:** barbilla; **mugitu gabe:** sin moverse; **bihurri aurpegia:** cara de pícaro; **aitortu** confesar.

● GALDERAK

- 1.– Non bizi dira Blas eta Toribio?
- 2.– Urte asko ditu Blasek?
- 3.– Zein da gizona eta zein argala?
- 4.– Langile asko dabilta Blas eta Toribioren lantegian?
- 5.– Zer egiten dute lantegi horretan?
- 6.– Non ibiltzen da Blas askotan?
- 7.– Joan den egunean Blas ez zen kanpora joan. Donostian gelditu zen. Zer egin behar zuen?
- 8.– Noiz ikusi zuen Blasek Toribio vermoutha hartzen, goizean ala arratsaldean?
- 9.– Toribio askotan ibiltzen da kanpoan?
- 10.– Zertara hurbiltzen da Blas gizonaren mahaira?
- 11.– Gizonak eta Toribiok berdinak dituzte gauza asko. Zein dituzte diferente?
- 12.– Zer aipatu zuten Blasek eta Toribioren anaiak hizketan?
- 13.– Denbora motza ala luzea pasa zuten hizketan?
- 14.– Bukatu ondoren elkarrekin joan ziren etxera?
- 15.– Noiz ikusten du Blasek Toribio lantegian?
- 16.– Zergatik igarri zuen Blasek gizona Toribioren anaia zela?
- 17.– Zertaz hitz egin zuten batez ere?
- 18.– Noiztik ezagutzen du Toribiok bere anaia?

● OHARRAK

● ZERTAZ HITZ EGIN

La idea de hablar de algo o sobre algo se expresa en euskera por medio del caso instrumental, que ya conoces del curso pasado, en forma determinada: **–az**.

Zertaz hitz egin dute?

- politikaz
- ekonomiaz
- futbolaz
- anaiaz
- gaurko egoeraz...

¿De qué han hablado?

- *de política*
- *de economía*
- *de fútbol*
- *de el hermano*
- *de la situación actual*

● ANTZAGATIK EZAGUTU ZUEN

El morfema **–gatik** expresa una idea de causa:

Zergatik etorri da?

Antzagatik ezagutu zuen

Horregatik esan dut

Zuregatik puskatu da

etc...

¿Por qué ha venido?

Lo reconoció por el parecido

Por eso lo he dicho

Se ha roto por tu culpa

Más tarde lo trataremos con mayor detenimiento.

● HALAXE IZAN ZEN

Habrás observado a lo largo de todas estas lecciones que el morfema **-xe** es muy utilizado en euskera. Se emplea para darle al término, generalmente un demostrativo o un adverbio, un matiz intensivo que podríamos traducir por “mismo”.

hauxe	<i>éste mismo</i>	hementxe	<i>aquí mismo</i>	honelaxe	
horixe	<i>ése mismo</i>	hortxe	<i>ahí mismo</i>	horrelaxe	<i>así mismo</i>
huraxe	<i>aquéel mismo</i>	hantxe	<i>allí mismo</i>	halaxe	
		oraintxe	<i>ahora mismo</i>		
		orduantxe	<i>entonces mismo</i>		

● Ejemplos:

Hauxe nahi dut	<i>Quiero éste (mismo)</i>
Hementxe geldituko gara	<i>Aquí mismo nos quedaremos</i>
Hantxe bizi naiz	<i>Vivo allí (mismo)</i>
Horrelaxe egingo dugu	<i>Lo haremos así</i>
Halaxe gertatu zen	<i>Así mismo ocurrió</i>
Oraintxe joango naiz	<i>Iré ahora mismo</i>
Orduantxe agertu zen	<i>Apareció entonces</i>

El término reforzado por **-xe** es normalmente el elemento clave de la frase, el que queremos resaltar, y viene inmediatamente antes del verbo.

● ASPALDITIK EZAGUTZEN DUT

Las formas perifrásticas resultan de unir un elemento auxiliar (**dut, nuen**) a un elemento nominal (**ezagutu, ezagutzen, ezagutuko**). Combinando ambos componentes obtenemos las siguientes formas que debes distinguir muy bien:

ezagutu dut	<i>he conocido</i>
ezagutzen dut	<i>conozco</i>
ezagutuko dut	<i>conoceré</i>
ezagutu nuen	<i>conocí</i>
ezagutzen nuen	<i>conocía</i>
(ezagutuko nuen)	<i>(habría conocido)</i>

ARIKETAK

9. Utilizando los verbos egin, ikusi e ikasi traduce las siguientes formas:

- a) has hecho; haces (sueles hacer); harás; no lo hiciste; hacías (solías hacer).
- b) vieron; verán; ven (suelen ver); han visto; no veían (no solían ver).
- c) hemos aprendido; aprendemos; no aprenderemos; aprendimos; aprendíamos.

10. Haz lo mismo con los verbos igo, erori, gelditu y los auxiliares intransitivos naiz/nintzen.

- a) he subido; subo; subí; subiré; subía.
- b) se cayó; se caerá; se caía (solía caerse); se cae (suele caerse).
- c) te quedas (sueles quedarte); te has quedado; no te quedarás; te quedaste; te quedabas (solías quedarte).

- Hurrengo ipuina buruz kontatzeko ikasi behar duzu. Itzulpena erantzunetan dator.

Aprende el siguiente cuento para que puedas contarlo de memoria. Si tienes alguna duda consulta la traducción del solucionario.

ANDRES XOMORRO

Andres Xomorro oso gizon atsegina zen. Baina gezurti handia ere bai. Beti ari zen gezurak esaten.

Egun batean honela galdetu zion lantokiko lagun batek zirikatzearren:

– Andres, arrantzale bikaina omen zinen gaztetan. Egia ote da hori?

– Bai horixe! –erantzun zion Andresek harro-harro–. Askotan joaten nintzen itsasora, udan eta neguan, eguraldi ona eta txarrarekin. Berdin zen neretzat. Arrain asko harrapatzen nituen eta bete-betea ekartzen nuen txalupa. Behin batean... arrantzan ari nintzen eta balea handi-handi bat agertu zen nere aurrean. Txalupara hurbildu zen eta ahoa ireki zuen. Zer egin nuen orduan? Ez nintzen beldurtu... Salto batean haren gainera igo nintzen, belarrietatik heldu eta etxera ekarri nuen.

– Aizu! –esaten dio lagunak–. Baina zer ari zara esaten! Baleek ez dute belarririk!

– Ezetz? –erantzuten dio Andresek–. Hark behintzat bazituen, eta ederrak gainera! Arratsean lagunak bildu ginen eta afari goxoa egin genuen!!

● GALDERAK

- 1.– Nolakoa zen Andres Xomorro?
- 2.– Andresek egia esaten zuen beti?
- 3.– Nork galdetu zion arrantzale bikaina izan ote zen?
- 4.– Noiz joaten zen Andres itsasora?
- 5.– Nola ekartzen zuen txalupa itsasotik?
- 6.– Zer agertu zen behin batean bere aurrean?
- 7.– Nora hurbildu zen balea?
- 8.– Beldurtu al zen Andres?
- 9.– Nora igo zen salto batean?
- 10.– Nora eraman zuen balea?
- 11.– Nork esaten dio baleek ez dutela belarririk?
- 12.– Zein bildu ziren afaltzeko?

Gezurti: mentiroso; **gezur:** mentira; **zirikatzearren:** para tentarle; **arrantzale:** pescador; **harro:** orgulloso; **uda:** verano; **negu:** invierno; **neretzat:** para mí; **harrapatu:** atrapar, pescar; **behin batean:** en cierta ocasión; **arrantza:** pesca; **balea:** ballena; **beldurtu:** asustarse; **behintzat:** al menos; **goxo:** rico.

● EZ AL ZENUEN EZAGUTZEN?

1



2




3



4



5



6



7



8



9



10



4. IKASKAIA

GIZON ORRATZA (II)


GIZON ORRATZA (II)

El texto es el mismo del primer tema, pero ahora vamos a recitarlo en pasado, en dos formas de pasado:

- a) Acción terminada (la correspondiente al pretérito indefinido español: *"Ander ayer se levantó a las seis y media de la mañana, se puso los pantalones y los zapatos..."*, etc.
- b) Pasado habitual: *"Ander el año pasado, todos los días, se levantaba a las seis y media de la mañana, se ponía los pantalones y los zapatos..."*, etc.

En ambas modalidades efectuaremos las variaciones de primera persona (**ni**) y de segunda (**zu**).

● GOIZA



1. ATZO

- a) Te damos hecha la versión **Ander atzo**. Estúdiala bien relacionándola con los dibujos de arriba hasta que puedas decirla con soltura sirviéndote sólo de los dibujos, sin ver el texto.

1. *ATZO ANDER, goizeko sei t'erdietan jaiki zen.*
2. *Zapatak eta frakak jantzi zituen,*
3. *aurpegia garbitu zuen,*
4. *presaka gosaldu zuen,*
5. *eta etxetik atera zen lantegira joateko.*
6. *Bidean egunkaria erosi zuen.*
7. *Gero autobusa hartu zuen.*
8. *Autobusean aulki batean eseri zen*
9. *eta egunkaria irakurri zuen.*
10. *Lantegi aurrean autobusetik jaitsi zen*
11. *eta oinez joan zen lantegira.*
12. *Eguerdiko hamabiak arte aritu zen lanean.*

- b) Dilo en primera persona: *NI ATZO, goizeko sei t'erdietan jaiki nintzen...*


- c) Dilo en segunda persona: *ZU ATZO, goizeko sei t'erdietan jaiki zinen...*

2. IGAZ, EGUNERO

Cuéntalo en el pasado habitual, en las tres personas:

- a) *IGAZ ANDER, goizeko sei t'erdietan jaikitzen zen...*
- b) *IGAZ NI, goizeko sei t'erdietan jaikitzen nintzen...*
- c) *IGAZ ZU, goizeko sei t'erdietan jaikitzen zinen...*

● EGUERDIA



1. ATZO

- a) Memoriza la versión inicial y realiza luego los cambios que se indican a continuación. Recuerda que al ser un sujeto doble habrás de emplear el plural.

13. (ANDER ATZO) hamabiak eta bostean lagunarekin elkartu zen
14. eta tabernara joan ziren bazkaltzera.
15. Leiho ondoan eseri ziren
16. eta bazkaria eskatu zuten.
17. Tabernako andreak ogia eta ardoa ekarri zituen
18. eta mahai gainean utzi zituen.
19. Zopa eta arrautza frejituak jan zituzten.
20. Lagunak basoa ardoz bete zuen;
21. Anderrek, ordea, ez zuen ardorik edan.
22. Bazkaria ordaindu zuten
23. eta berriz lanera joan ziren.

b) (NI ATZO) hamabiak eta bostean lagunarekin elkartu nintzen...


c) (ZU ATZO) hamabiak eta bostean lagunarekin elkartu zinen...

2. IGAZ, EGUNERO

Realiza las siguientes transformaciones en el pasado habitual:

- a) (ANDER IGAZ, EGUNERO) hamabiak eta bostean, lagunarekin elkartzen zen...
- b) (NI IGAZ, EGUNERO) hamabiak eta bostean lagunarekin elkartzen nintzen...
- c) (ZU IGAZ, EGUNERO) hamabiak eta bostean lagunarekin elkartzen zinen...

● ARRATSALDEA



1. ATZO

a) Estudia la versión **Anderrek atzo** y realiza luego los cambios indicados:

24. (ANDERREK ATZO) arratsaldeko zazpiak laurden gutxitan amaitu zuen lana.
25. Lantegiko atean Lupe ikusi zuen.
26. Hau kotxez etorri zen.
27. Luperen kotxean sartu ziren
28. eta pelikula bat ikustera joan ziren.
29. Gaueko hamaiketan etxeratu zen Ander.
30. Oso nekatua iritsi zen.
31. Gutxi afaldu zuen
32. eta laster oheratu zen.

b) (NIK ATZO) arratsaldeko zazpiak laurden gutxitan amaitu nuen lana...

c) (ZUK ATZO) arratsaldeko zazpiak laurden gutxitan amaitu zenuen lana...

2. IGAZ, EGUNERO

a) (IGAZ ANDERREK) arratsaldeko zazpiak laurden gutxitan amaitzen zuen lana...

b) (IGAZ NIK) arratsaldeko zazpiak laurden gutxitan amaitzen nuen lana...

c) (IGAZ ZUK) arratsaldeko zazpiak laurden gutxitan amaitzen zenuen lana...



● Una vez hayas dominado cada una de las partes puedes hacer repasos generales en la página 29 del primer tema:

- a) *ATZO ANDER, goizeko sei t'erdietan jaiki zen... (1-32)*
- b) *ATZO NI, goizeko sei t'erdietan jaiki nintzen...*
- c) *ATZO ZU, goizeko sei t'erdietan jaiki zinen...*

- d) *IGAZ ANDER, goizeko sei t'erdietan jaikitzen zen...*
- e) *IGAZ NI, goizeko sei t'erdietan jaikitzen nintzen...*
- f) *IGAZ ZU, goizeko sei t'erdietan jaikitzen zinen...*

- Hurrengo ipuina buruz ikasi ezazu

ATXURIKO "MILAGRUA"

Bilbon gertatu zen aspaldi.

Bromazale batzuek hau idatzi zuten egunkari batean:

"Atzo arratsaldean Pilar Urregoitia Neguriberri andre aberatsa hil zen, 81 urtez (Goian Bego). Bihotz handiko emakume honek diru asko utzi du Bilboko kojuen artean banatzeko, bera ere herrena bait zen. Diru hori bihar banatuko da, arratsaldeko lauetan, Kale Nagusian, Doña Pilarren etxeko atarian".

Hurrengo egunean kojuz betea agertu zen Kale Nagusia. Jendea balkoi eta leihoetan harritua zegoen hainbeste herren ikusirik. Batzuek makilak zituzten eskuetan eta besteak arrastaka zetozen. Nondik atera ote zen hainbeste koju?

Atari aurrean mahai bat zegoen; mahai gainean paper zuriak eta boltsa handi batzuk; atzean hiru gizon serio dotore jantziak.

–Mila duro emango dizkiogu herren bakoitzari –esaten die hango kojuei gizon zaharrenak–. Baina orain piska bat itxaron behar duzue. Barrura sartuko gara kontuak egiteko eta berehala aterako gara dirua banatzera.

Barrura sartu ziren, bada, hiru gizonak eta atea itxi zuten. Minutu batzuk igaro ziren. Halako batean atea ireki eta..., zer atera zen handik? Zezentxo bat! Hango iskanbila! Segundu batean garbi-garbia geratu zen kale osoa. Korrika joan ziren koju guztiak makilak hantxe utzirik.

Mirari harrigarria: zezena atera eta berehala sendatu ziren koju guztiak!!

Gertaera honi "Atxuriko milagrua" esaten diote orain.

K.

● GALDERAK

1. Noiz gertatu zen “Atxuriko Milagrua”?
2. Zenbat urte omen zituen emakumeak?
3. Nolako bihotza zuen emakumeak?
4. Zertarako utzi zuen bere dirua?
5. Non banatu behar zuten dirua?
6. Nola agertu zen Kale Nagusia hurrengo egunean?
7. Zer zuten herren batzuek eskuetan?
8. Non zegoen mahaia?
9. Non ziren paperak eta boltsak?
10. Nork hitz egin zuen orduan?
11. Gizonek, zertarako sartu behar zuten barrura?
12. Zenbat minutu igaro ziren?
13. Zer atera zen barrutik?
14. Nola esaten diote orain gertaera honi?

Aspaldi: hace tiempo; **bromazale:** bromista; **Goian Bego:** arriba esté (“Descanse en Paz”); **bihotz:** corazón; **koju = herren:** cojo; **banatu:** repartir; **harritua zegoen:** estaba asombrada; **hainbeste:** tanto(s); **ikusirik:** viendo, al ver; **makila:** palo, bastón; **arrastaka zetozen:** venían arrastrándose; **zegoen:** había; **dotore:** elegante; **itxaron:** esperar; **igaro:** pasar; **zezen:** toro; **zezentxo:** torete; **iskanbila:** jaleo, follón; **geratu:** quedar; **mirari = “milagro”:** milagro; **sendatu:** curar; **gertaera:** suceso.

● “KOJUEEN ARTEAN BANATZEKO”

El curso pasado estudiamos el singular de los casos más importantes. Ahora veremos sus correspondientes formas en plural. Empezaremos por el genitivo posesivo (**noren**) y el inesivo (**non**).



PLURAL DEL GENITIVO POSESIVO (**noren**): -EN

Recuerda que el genitivo posesivo (**noren**) con nombres comunes en singular toma el sufijo **-aren**. Su correspondiente plural es **-en**. Si la palabra termina en **-a**, ésta desaparece. Compara los siguientes ejemplos:

Genitivo Singular		Genitivo Plural	
Umearen jostailuak	→	Umeen jostailuak	(los juguetes de los niños)
Ehiztariaren zakurra	→	Ehiztarien zakurra	(el perro de los cazadores)
Lagunaren eskutitza	→	Lagunen eskutitza	(la carta de los amigos)
Neskaren osaba	→	Nesken osaba	(el tío de las chicas)

● El plural de los demostrativos es así:

hauek	→	hauen	<i>de éstos</i>
horiek	→	horien	<i>de esos</i>
haiek	→	haien	<i>de aquéllos</i>

Ejemplos:

Hauen herria.	El pueblo <u>de éstos</u>
Horien auzoa.	El barrio <u>de esos</u>
Haien adiskidea.	El amigo <u>de aquéllos</u>
Mutil hauen gurasoak.	Los padres <u>de estos</u> chicos
Emakume horien etxea.	La casa <u>de esas</u> mujeres
Haur txiki haien eskola.	La escuela <u>de aquellos</u> niños <u>pequeños</u>
Hauek horienak dira eta horiek hauenak .	Estos son <u>de esos</u> y <u>esos de éstos</u>

● ARIKETAK

1. Pluralez eman itzazu adierazitako sintagmak:

1.– **Ikaslearen** galdera. 2.– **Saguaren** zuloa. 3.– **Mutikoaren** baloia. 4.– **Langilearen** dirua. 5.– **Aberatsaren** autoak. 6.– **Gudariaren** egoera. 7.– **Etxekoandrearen** lana. 8.– **Politikoaren** hitzak. 9.– **Gizon argalaren** itxura. 10.– **Ikasle alferraren** notak. 11.– **Arropa berriaren** prezioa. 12.– **Andre honen** soinekoak. 13.– **Baserritar horren** behiak. 14.– **Gela haren** kolorea. 15.– **Agure horren** eskuak. 16.– **Haur honen** ama. 17.– **Liburu haren** irudiak.

2. Galderei erantzuteko parentesi arteko hitzak erabili behar dituzu: (Responde a las preguntas utilizando las palabras del paréntesis):

1.– Noren ama etorri da?	(<i>haurrak</i>)
2.– Noren etxean bazkaldu duzue?	(<i>gurasoak</i>)
3.– Noren baloia galdu da?	(<i>mutiko hauek</i>)
4.– Noren izebarekin hitz egin duzu?	(<i>neska-mutil horiek</i>)
5.– Noren argazkiak erakutsi dituzte?	(<i>senar-emazte haiek</i>)
6.– Norenak dira jantzi hauek?	(<i>gizon horiek</i>)

3. ITZULPENA

1.– El coche de tus amigos. 2.– La casa de mis padres. 3.– La fuerza de los jóvenes. 4.– El genio de los viejos. 5.– El trabajo de las mujeres. 6.– Las vacaciones de los estudiantes. 7.– La reunión de los trabajadores. 8.– Las intenciones de los enemigos. 9.– El barrio de los pescadores. 10.– Esos libros son de éstos y aquéllos de éstos.

● “MAKILAK ZITUZTEN ESKUETAN”



EL PLURAL DEL CASO INESIVO (non): –ETAN

Recuerda que el sufijo del caso inesivo (**non**) en singular es **–(e)an**. En plural es **–etan**. Si el lexema termina en **–a**, ésta desaparece.

● Ejemplos:

Inesivo singular

Txoriak zuhaitze**an** dabiltza
(*Los pájaros andan en el árbol*)

Jendea leiho**an** dago
(*La gente está en la ventana*)

Arropa aulkia**n** utzi dute
(*Han dejado la ropa en la silla*)

Inesivo plural

Txoriak zuhaitze**etan** dabiltza
(*Los pájaros andan en los árboles*)

Jendea leiho**etan** dago
(*La gente está en las ventanas*)

Arropa aulkie**tan** utzi dute
(*Han dejado la ropa en las sillas*)

● El plural de los demostrativos es como sigue:

hauek	→	hauetan	<i>en éstos</i>
horiek	→	horietan	<i>en éstos</i>
haiek	→	haietan	<i>en aquéllos</i>

● Ejemplos:

Botila **honetan** esnea dago
(*En esta botella hay leche*)

Gela **horretan** lan egiten dugu
(*En esa habitación trabajamos*)

Herri **hartan** ez dute urik
(*En aquel pueblo no tienen agua*)

Botila **hauetan** esnea dago
(*En estas botellas hay leche*)

Gela **horietan** lan egiten dugu
(*En esas habitaciones trabajamos*)

Herri **haietan** ez dute urik
(*En aquellos pueblos no tienen agua*)

● ARIKETAK

4. Pluralez eman itzazu adierazitako sintagmak:

1.– Haurrak jolasean ibiltzen dira **hondartzan**. 2.– **Arratsaldean** itxita egoten dira bulegoak. 3.– **Eskolan** jai dute gaur. 4.– **Astelehenean** klasea izaten da. 5.– Katuak **teilatuan** ibiltzen dira. 6.– Esnea **goizean** ekartzen dute. 7.– **Kotxean** matrikula eraman behar da. 8.– Pintura, **potean** ekarri genuen. 9.– Katuak neguan **sukaldean** egoten dira. 10.– **Lantegi honetan** ez dago lanik. 11.– **Toki horretan** esertzen gara askotan. 12.– **Gela hartan** aulki batzuk daude. 13.– **Ontzi honetan** ura hartu dugu. 14.– **Ordu horretan** ez dabil inor klean. 15.– **Autobus honetan** ezin da erre.

5. Erantzuteko, parentesi arteko hitzak erabili behar dituzu:

1.– Non ibili zen manifestazioa?	<i>(Donostiako kaleak)</i>
2.– Non etortzen dira berriak?	<i>(egunkariak)</i>
3.– Non egoten dira hegazkinak?	<i>(aireportuak)</i>
4.– Amak, non du haurra?	<i>(besoak)</i>
5.– Non jarri dituzte loreak?	<i>(balkoiak)</i>
6.– Non erosten dira janariak?	<i>(janari dendak)</i>
7.– Non erosten dira liburuak?	<i>(liburu dendak)</i>
8.– Non ditu neskak jostailuak?	<i>(eskuak)</i>
9.– Non botatzen dituzte pelikulak?	<i>(zineak)</i>
10.– Non bizi da jendea?	<i>(etxeak)</i>

6. ITZULPENA

- 1.– ¿Qué tienes en las manos?
- 2.– Maite tiene el cigarro en los labios.
- 3.– Ayer me caí en las escaleras.
- 4.– Los sábados solíamos ir al monte.
- 5.– Los pájaros suelen dormir en los árboles.
- 6.– En las tiendas de Hendaya solemos ver gente de Irún.
- 7.– En estas casas viejas no vive nadie.
- 8.– Ayer dejamos los libros en esos asientos.
- 9.– En aquellas habitaciones no hay luz.
- 10.– Estos días no he leído nada.

5. IKASKAIA

ZER IRUDITZEN ZAIZU?

ZER IRUDITZEN ZAIZU?

En este tema volvemos al estudio del presente para conocer una nueva clase de auxiliar: la forma **nor-nori**.

Como bien sabes, la forma **da** es un auxiliar de verbos intransitivos (sujeto **nor**):

Laguna etorri da	<i>Ha venido el amigo</i>
Ispilua puskatu da	<i>Se ha roto el espejo</i>
Giltza galdu da	<i>Se ha perdido la llave</i>
Erlojua gelditu da	<i>Se ha parado el reloj</i>
Zerbait gertatzen da	<i>Ocurre algo</i>
Norbait hurbildu da	<i>Alguien se ha acercado</i>

Si este sujeto **nor** coincide en la frase con un complemento indirecto (**nori**) la forma **da** sufre las siguientes transformaciones:

da + niri	(a mí)	→	ZAIT
da + zuri	(a ti)	→	ZAIZU
da + hari	(a aquél)	→	ZAIO
da + guri	(a nosotros)	→	ZAIGU
da + zuei	(a vosotros)	→	ZAIZUE
da + haiei	(a aquéllos)	→	ZAIE

● Compara estos ejemplos con los de arriba:

(Niri) laguna etorri **zait**
(Zuri) ispilua puskatu **zaizu**
Arantxari giltza galdu **zaio**
(Guri) erlojua gelditu **zaigu**
(Zuei) zerbait gertatzen **zaizue**
Norbait hurbildu **zaie** gurasoei

(A mí) me ha venido el amigo.
(A tí) se te ha roto el espejo.
A Arantxa se le ha perdido la llave.
(A nosotros) se nos ha parado el reloj.
(A vosotros) os ocurre algo.
Alguien se ha acercado a los padres.



EL PLURAL DEL DATIVO (nori): -EI

1.- NOMBRES COMUNES

Recuerda que el sufijo del dativo (nori) para los nombres comunes, en singular, es **-ari**. Su correspondiente plural es **-ei**. Si la palabra termina en **-a** ésta desaparece.

● Ejemplos:

Umeari jostailua puskatu **zaio**
(*Al niño se la ha roto el juguete*)

Gizonari giltza galdu **zaio**
(*Al hombre se le ha perdido la llave*)

Neskari zerbait ahaztu **zaio**
(*A la chica se le ha olvidado algo*)

Umeei jostailua puskatu **zaie**
(*A los niños se les ha roto el juguete*)

Gizonei giltza galdu **zaie**
(*A los hombres se les ha perdido la llave*)

Neskei zerbait ahaztu **zaie**
(*A las chicas se les ha olvidado algo*)

2.- LOS DEMOSTRATIVOS

El dativo plural de los demostrativos es como sigue:

hauek	→	HAUEI HORIEI HAIEI	<i>a éstos</i>
horiek	→		<i>a esos</i>
haiek	→		<i>a aquéllos</i>

● Ejemplos:

Honi arraina gustatzen **zaio**
(*A éste le gusta el pescado*)

Mutil horri dirua bukatuko **zaio**
(*A ese chico se le acabará el dinero*)

Neska hari ondo iruditu **zaio**
(*A aquella chica le ha parecido bien*)

Hauei arraina gustatzen **zaie**
(*A éstos les gusta el pescado*)

Mutil horiei dirua bukatuko **zaie**
(*A esos chicos se les acabará el dinero*)

Neska haiei ondo iruditu **zaie**
(*A aquellas chicas les ha parecido bien*)

3.- EL DATIVO DE LOS PRONOMBRES PERSONALES

El dativo de los pronombres personales es así:

ni	→	NIRI	a mí
zu	→	ZURI	a ti, a Vd.
gu	→	GURI	a nosotros
zuek	→	ZUEI	a vosotros, a Vds.

Te sirven los ejemplos que aparecen en la primera página de la lección.


MEMORIZA LAS ESTRUCTURAS DE LA PAGINA SIGUIENTE
Y REPASALAS EN LA 98.

● *Ikas itzazu hitz hauek:*

galdu: perder(se)
pintura pote: bote de pintura
ahaztu: olvidar
jakintsu: sabio
hil: morir
ispilu: espejo
hurbildu: acercar(se)
gertatu: suceder, ocurrir
istripu: accidente
iruditu: parecerle algo a alguien
batere ez: nada (ni uno)
gustatu: gustar
dirudienez: según parece



– Zer galdu zaio horri?
– Horri, giltza galdu zaio.



– Zer erori zaio Antselmori?
– Antselmori, pintura potea erori zaio.



– Zer ahaztu zaio jakintsuari?
– Jakintsuari, euritakoa ahaztu zaio.




– Nori hil zaio txoria?
– Neskari hil zaio txoria.



– Nori puskatu zaio ispilua?
– Ispilua, andreari puskatu zaio.



– Nor hurbildu zaie gurasoei?
– Gurasoei, haurra hurbildu zaie.



● ARIKETAK

1.–*Bete itzazu hutsuneak nor-nori formak erabiliz:*

1. Haurrari jostailua galdu ...
2. Txalupa honi ura sartzen ... azpitik.
3. Niri euritakoa ahaztu ... etxean.
4. Zuri kaleko atea itxi ...
5. Guri bazkaltzeko ordua iritsi ...
6. Zuei amona hil ...
7. Niri konturatu gabe joaten ... denbora.
8. Amari lurrera erori ... botila.
9. Zuei tabako beltza gustatzen ...
10. Niri ez ... kafea gustatzen, tea gustatzen ...
11. Ume horiei zerbait gertatuko ... kalean.
12. Gizon hari maleta ireki ... treneko eskaileretan.
13. Txoferrari bide erdian gelditu ... autoa.
14. Neska hauei istripu bat gertatu ...
15. Guri ez ... ezer gertatu.
16. Zer iruditu ... zuei gaurko bilera?
17. Niri, oso motza iruditu ...
18. Auzoko andreei asko gustatzen ... futbola.
19. Niri zure laguna etorri ... hitz egitera.
20. Zuri, Mikel joan ... bulegora.

2.–*Itzul itzazu esaldi hauek*

1. A Martín se le ha acabado el tabaco.
2. En el camino se me ha perdido la cartera.
3. ¿Cómo te gusta la carne?
4. Me gusta muy hecha.
5. Ese dinero nos vendrá muy bien.
6. ¿Qué te ha ocurrido con Imanol?
7. Se te ha caído algo.
8. Os ha llegado una carta.
9. Eso me parece bien.
10. A estos baserritarras se les ha muerto el perro.
11. A esos chicos les gustará mucho la película.
12. A aquellas habitaciones les entra agua.

3. *Eman plural bez adierazitako sintagmak. Aditza ere egokitu behar duzu:*

1. **Emakume**ari dendan ahaztu zaio boltsa.
2. **Gazte**ari dantzara joatea gustatzen zaio.
3. **Zahar**rari tabernan egotea gustatzen zaio.
4. **Mutil** honi gasolina bukatu zaio.
5. **Arrantzale** horri arraina erori zaio.
6. Ambrosio, **neska** hari hurbildu zaio.
7. **Honi** zerbait okerra gertatu zaio.
8. **Horri** egokia iruditu zaio sagarren prezioa.
9. **Hari** serio jarri zaio irakaslea.

● ZER IRUDITZEN ZAIZU?

1



– Kaixo, egunon. Senarraren argazkia jasotzera nator.

2



– Ekarri al duzu papertxoa?

3



– Hau burua! Etxean ahaztu zait!

4



– Lasai. Ez da beharrezkoa... Berehala aurkituko dut bestela ere.

5



– Ikusten? hementxe dago. Zer iruditzen zaizu?

6



– Gorbata berria ez zaio behar bezala ikusten!

7



– Gainera, gizarajo aurpegi izugarria du...

8



– Tori! Gorde ezazu zuretzat! Ez zaigu interesatzen.

9



– Egia esan... arrazoi duzu, andrea: ez du oso itxura egokia...

10



– Hori, ordea, ezkondu baino lehen ikusi behar zenuen...

● IRAKURGAIA

Aurten hauteskundeak izango dira gure herrian. Hauteskunde hauetan alkatea eta kontzejal berriak aukeratuko dituzte. Gure herria, ordea, txikia da eta lau mila pertsona baizik ez dira bizi. Horietako bat Ildefontso da. Ildefontso ez dabil politika arazoetan sartua, independentea omen da. Hala ere lagun batzuek presentatzeko eskatu diote, jendea behar bait dute zerrenda osatzeko. Ildefontsok ez daki ezetz esaten eta baietz erantzun du. Aurreko ostegunean gertatu zen hori.

Gauean, etxeratu zenean, Miren bere andreari kontatu zion dena eta honek ez zuen gaizki hartu:

– Hauteskundeetan presentatu behar duzula? Ez da egia izango! Zu izango ote zara herriko alkatea? Ezin dut sinistu. Horrela baldin bada ezin zara arropa zahar horiekin ibili. Itxura hobe behar duzu hemendik aurrera. Bihar bertan joango gara jantzi berria enkargatzera.

Horrela, bada, hurrengo egunean jantzi denda batera joan ziren senar-emazte biak. Neurriak hartu zituzten jantzi berria egiteko eta alkandora eta gorbata dotore bat ere erosi zituzten. Etxera iritsi zirenean alkandora eta gorbata jazteko esan zion andreak:

– Jantzi itzazu, ea zer moduz dituzun...

Jantzi zituenean ispiluaren aurrera joan ziren.

– Alkandora oso ondo duzu, maite; estu samarra, behar bada, gerri aldean: tripa ateratzen zaizu piska bat, baina horrek ez du erremediorik. Gorbata zabal samarra da eta horri eskerrak ez zaizu hainbeste sumatzen. Ez zaude gaizki; itxura dotorea duzula uste dut. Orain argazki bat atera behar dugu, hauteskundeak irabazteko argazkia bait da inportanteena. Horixe da sekretua. Argazki on bat lortu behar dugu...

Etxetik atera eta argazki denda batera joan ziren. Argazkia atera zuten eta dendako neskak hurrengo egunerako egongo zela esan zien. Paper bat ere eman zien argazkia jasotzeko.

Hurrengo goizean Miren joan zen argazkiaren bila. Dendan sartu eta honela galdetu zuen:

– Zer? Egina al dago nere senarraren argazkia?

– Segur aski, bai –erantzun zion dendako neskak–. Ekarri al duzu papertxo?

Mirenek boltsa irekitzen du baina ez du paperik aurkitzen...

– Hau burua! –esaten du–. Etxean ahaztu zait. Presaka eta korrika atera naiz berandu zelako eta mahai gainean ahaztu zait.

– Lasai, emakume. Ez zaitetz horregatik estutu. Ez da beharrezkoa. Argazki gutxi daude eta berehala aurkituko dut bestela ere.

Neskak kajoia irekitzen du, argazki batzuk begiratzen ditu eta bat hartzen du.

– Ikusten? Hementxe duzu senarraren argazkia. Zer iruditzen zaizu?

Mirenek argazkia hartzen du eskuan eta isilik geratzen da momentu batez. Dirudienez ez dago oso konforme argazkiarekin, ez zaio gehiegi gustatzen... Azkenean honela esaten du:

– Argazki hau oso txarra da. Gaizki atera da. Gorbata berria ez zaio behar bezala ikusten... Gainera... gizarajo aurpegi izugarria du!

Miren gero eta haserreago ari da hizketan. Azkenean neskari itzultzen dio argazkia:

– Tori! Nik ez dut honelako argazkirik nahi! Gorde ezazu zuretzat nahi baduzu! Guk behintzat ez dugu behar! Ez zaigu interesatzen! Oso itsusia da!!

Buelta ematen du eta ate aldera doa.

Neskak argazkia begiratzen du eta ondoren honela esaten dio Mireni:

– Egia esan... arrazoi handia duzu. Ez du halako itxura dotorerik... Errua, ordea, ez da gurea... Hori ezkondu baino lehen ikusi behar zenuen, andrea...

● GALDERAK

- 1.– Noiz izango dira hauteskundeak gure herrian?
- 2.– Zer aukeratuko dute hauteskunde hauetan?
- 3.– Zenbat pertsona bizi dira herrian?
- 4.– Ildefontso partidu politiko batean al dabil?
- 5.– Nork eskatu dio Ildefontsori hauteskundeetan presentatzeko?
- 6.– Nola du izena Ildefontsoren emazteak?
- 7.– Nolako arropa erabiltzen du Ildefontsok, zaharra ala berria?
- 8.– Zertarako hartu zituzten Ildefontsoren neurriak?
- 9.– Zer erosi zuten jantzi dendan?
- 10.– Zer esan zion emazteak Ildefontsori etxera iritsi zirenean?
- 11.– Zer omen da inportanteena hauteskundeak irabazteko?
- 12.– Argazki dendan, zer eman zien neskak?
- 13.– Noiz joan zen Miren argazkiaren bila?
- 14.– Mirenek, boltsan eraman al du papera?
- 15.– Gustatu al zaio Mireni argazkia?
- 16.– Ondo ikusten al zaio Ildefontsori gorbata?
- 17.– Noiz ikusi behar zuen Mirenek bere gizonaren itxura ez zela egokia?

Aurten: este año; **hauteskundeak:** elecciones; **aukeratu:** elegir; **arazo:** asunto; **zerrenda:** lista; **osatu:** completar; **sinistu:** creer; **neurri:** medida; **maite:** querido; **gerri:** cintura; **horri eskerrak:** gracias a eso; **sumatu:** notar; **inportanteena:** lo más importante; **lortu:** conseguir; **argazkiaren bila:** en busca de la foto; **estutu:** apurarse; **gero eta haserreago:** cada vez más enfadada; **erru:** culpa.

4. SUBORDINACION

A partir del tema 9 estudiaremos con mayor detenimiento algunos aspectos de la subordinación. Para hacer el siguiente ejercicio recuerda lo aprendido el curso pasado:

Las oraciones que hacen de objeto directo

- Si son **enunciativas** se subordinan con – **(e)la**.
- Si son **interrogativas** se subordinan con –**(e)n**.
- Si son **imperativas** se subordinan con –**t(z)eko**.

Subordina las siguientes oraciones:

- 1.– “Ezin dut sinistu”. Zer esan du Mirenek?
- 2.– “Papera ahaztu zait”. Zer esan du Mirenek?
- 3.– “Ez zaigu interesatzen”. Zer esan dio Mirenek neskari?
- 4.– “Egina al dago argazkia?”. Zer galdetu du Mirenek?
- 5.– “Zer iruditzen zaizu?”. Zer galdetu dio neskak Mireni?
- 6.– “Jantzi itzazu alkandora eta gorbata”. Zer esan dio Mirenek senarrari?
- 7.– “Ez zaitetz estutu”. Zer esan dio neskak Mireni?



NOR-NORI

NOR PLURAL

En este tema estamos estudiando las formas **nor-nori**. En la primera parte hemos supuesto que el elemento **nor** (o **zer**) es singular. Si tal elemento es plural el verbo toma el infijo **-zki-**, de donde resulta el siguiente paradigma:

horiek niri (etorri)
zuri
hari
guri
zuei
haiei

ZAIZKIT
ZAIZKIZU
ZAIZKIO
ZAIZKIGU
ZAIZKIZUE
ZAIZKIE

● Compara los siguientes ejemplos:

"nor" singular

(Niri) laguna etorri zait
(Zuri) papera ahaztu zaizu
Arantxari giltza galdu zaio
(Guri) etxe hori gustatzen zaigu
(Zuei) txoria hil zaizue
Gurasoei haurra hurbildu zaie

"nor" plural

Lagunak etorri zaizkit.
Paperak ahaztu zaizkizu.
Arantxari giltzak galdu zaizkio.
Etxe horiek gustatzen zaizkigu.
Txoriak hil zaizkizue.
Gurasoei haurrak hurbildu zaizkie.

● ARIKETAK

5. *Pluralez eman ezazu adierazitako sintagma (nor edo zer). Aditza ere egokitu behar duzu.*

- 1.– Niri **jostailua** galdu zait.
- 2.– Andreari **katua** hurbildu zaio.
- 3.– Guri **euritakoa** ahaztu zaigu.
- 4.– Zuei **zakurra** hil zaizue.
- 5.– Gizon horri **papera** erori zaio.
- 6.– Horiei **kotxe berria** gustatzen zaie.
- 7.– Gure lagunari **gauza txarra** gertatu zaio.
- 8.– Niri **pintura hori** ona iruditzen zait.
- 9.– **Nagusia**, hitz egitera etorri zaio Mireni.
- 10.– Irakasleari **ikaslea** etorri zaio.

6. *Itzul itzazu esaldi hauek:*

- 1.– A esta mujer se le han olvidado los panes en la tienda.
- 2.– Se nos han acabado los cigarros.
- 3.– A Koldo se le han caído las gafas.
- 4.– Los alumnos se le han acercado al profesor.
- 5.– Nos han ocurrido varias cosas.
- 6.– ¿Qué te parecen esos chicos?
- 7.– Me parecen vagos.

7. *Salvo cuatro que son correctas el resto de las frases contiene algún error que debes corregir.*

- 1.– Niri zigarroak bukatu zait.
- 2.– Zuei gaizki iruditu zaizu hori.
- 3.– Gizon horri nobela poliziakoak gustatzen zaizkie.
- 4.– Irakasle honi berehala aspertzen zaizkio haurrak.
- 5.– Neska hauei berandu etorri zaio autobusa.
- 6.– Niri lurrera erori zait erlojua.
- 7.– Zuei zakur handia atera zaizkizue bidean.
- 8.– Zuri gauza horiek ez zaizkizu gehiegi gustatzen.
- 9.– Ardoari ez zaio urik bota behar.
- 10.– Guri kale horretan askotan gertatu zaigu istripuak.
- 11.– Zure lagunei oso ondo atera zaizkio argazkiak.

**HIRU ZATI HAUEK BURUZ ESATEKO IKASI BEHAR DITUZU.
ITZULPENA ERANTZUNETAN DATOR.**

GIZON APALA

Aberats batek bere auto dotorea aparkatu du kale batean. Orduan eskale bat hurbiltzen zaio eta dirua eskatzen dio. Aberatsak talonario lodia ateratzen du poltsikotik eta honela galdetzen dio eskaleari.

- Zenbat nahi duzu?
- Hamar mila pezeta...

Aberatsak txekea betetzen du eta eskaleari ematen dio. Honek txekea begiratzen du eta esaten dio:

- Jauna, firma ahaztu zaizu...
- Ez, ez zait ahaztu...Oso apala naiz eta mesede bat egiten dudanean izena isilik gordetzea gustatzen zait...

EZ DA EZER

Jatetxe dotore batean enpresari batzuk afaltzen ari dira. Kamareroa zopa serbitzen ari zaie. Batetik bestera pasatzean, ordea, zopa andre baten soinekoan erortzen zaio eta emakumea busti-bustia gelditzen da. Orduan senarra haserre jaikitzen da aulkitik eta kamareroa jo nahi du:

- Asto alena! Begira zer egin duzun!!!
- Eta kamareroak orduan, apal eta lasai:
- Ez zaitetz haserretu, jauna. Hau ez da ezer. Sukaldean zopa asko gelditzen zaigu oraindik...

PIANISTA BIKAINA


Etxe batera kanpoko bisita bat dator. Elkar agurtu ondoren barrura pasatzen dira eta gela dotore batean esertzen dira. Piska bat hitz egin ondoren etxeakoandrea altxa eta sukaldea doa tea ekartzera. Bitartean aita pianoa jotzeko esaten dio alaba txikiari. Neskak, ordea, oso gaizki jotzen du. Bisitariak aspertuta daude baina hasieran ez dute ezer esaten. Azkenean batek ezin du gehiago agoantatu eta honela esaten dio neskatxari:

- Zer, Mirentxu, gustatzen al zaizu pianoa?
- Bai, asko! Asko gustatzen zait!
- Orduan, zergatik ez duzu piska bat ikasten?

1. **Apal:** humilde; **eskale:** mendigo; **lodi:** grueso; **poltsiko:** bolsillo; **mesede:** favor; **gorde:** guardar, esconder.
2. **Jatetxe:** restaurante; **enpresari:** empresario; **pasatzean:** al pasar; **busti:** mojado; **asto alena:** burro más que burro; **sukalde:** cocina.
3. **Agurtu:** saludar; **bisitari:** visitante; **hasiera:** comienzo, principio; **agoantatu:** aguantar.



– Zer galdu zaio horri?



– Zer erori zaio Antselmori?



– Zer ahaztu zaio jakintsuari?





– Nori hil zaio txoria?



– Nori puskatu zaio ispilua?



– Nor hurbildu zaie gurasoei?



● ZER IRUDITZEN ZAIZU?

1



2



3



4



5



6



7



8



9



10



6. IKASKAIA

BADAUKA ETA BADAHI

BADAUKA ETA BADAHI

El curso pasado estudiamos el presente de cuatro verbos sintéticos intransitivos (sujeto **nor**): **egon**, **ibili**, **etorri** y **joan**. A partir de este tema estudiaremos cuatro verbos sintéticos transitivos (sujeto **nork**).

Su aprendizaje te resultará más fácil si tienes en cuenta que los morfemas **nork** son los mismos que en el paradigma de **du**:

nik	→	-T	guk	→	-GU
zuk	→	-ZU	zuek	→	-ZUE
hark	→	-Ø	haiek	→	-TE

Comenzaremos por **jakin** (saber) cuyo presente es así:

NIK	DAKIT	<i>yo sé</i>
ZUK	DAKIZU	<i>tú sabes</i>
HARK	DAKI	<i>él sabe</i>
GUK	DAKIGU	<i>nosotros sabemos</i>
ZUEK	DAKIZUE	<i>vosotros sabéis</i>
HAIEK	DAKITE	<i>ellos saben</i>

● Este verbo, como todos los sintéticos, aparece a menudo precedido por la partícula afirmativa **ba** (**ya**, **sí**), en cuyo caso, al ser el elemento clave de la oración, puede ir al comienzo de ésta:

hori **badakigu**
Badakit berandu dela
Badakizu ze ordu den?

Eso ya lo sabemos.
Ya sé que es tarde.
¿Sabes qué hora es?

Si alguien preguntara **dakizu ze ordu den?** además de sonar fatal, sintácticamente no sería euskera.

● Si lo sabido consiste en una acción verbal (saber **escribir**, saber **hacer algo**, saber **estar**, etc...) el verbo lleva la terminación **-t(z)en**.

Zer dakizu egiten?

Ba al dakizu euskaraz hitz egiten?

Nik ez dakit hau erabiltzen

Osabak ez daki kotxea eramaten

Honek badaki gauzak esaten

Ez dakizue behar bezala erantzuten

¿Qué sabes hacer?

¿Sabes hablar euskera?

Yo no sé manejar esto

El tío no sabe llevar el coche

Este sí sabe decir las cosas

No sabéis contestar como es debido

● ARIKETAK

1. Bete itzazu hutsuneak jakin aditza erabiliz.

1.- Nik ba... zure izena. 2.- Zuk ez ... nerea. 3.- Albertok ederki ... gitarra jotzen. 4.- Nere anaiak ba... ingelesez. 5.- Guk fisika asko ... 6.- Haur txikiek ere ba... hori. 7.- Guk hori aspalditik ... 8.- Hori ez ... inork. 9.- Nork ... makina hau erabiltzen?. 10.- Zaharrek asko ... 11.- Gazteek ez ... ezer. 12.- Jendeak ba... hori gezurra dela. 13.- (Zuek) ba al ... nor hil den? 14.- (Zuk) ez ... zer gertatu den! 15.- Andonik ba... bizikletaz ibiltzen.

2. Itzul itzazu esaldi hauek. Azken bostetan **-(e)la eta -(e)n** erabili beharko dituzu.

(Traduce estas frases. En las cinco últimas habrás de emplear los subordinantes **-(e)la** y **-(e)n**):

1.- Esta mujer sabe mucho. 2.- Yo no sé tu nombre. 3.- Tú ya sabes el mío. 4.- Eso ya lo sabemos. 5.- Vosotros no sabéis nada. 6.- Estos chicos saben demasiado. 7.- Ya sé que ha venido Mikel. 8.- ¿Sabes que se ha casado Alicia? 9.- ¿Sabes qué hora es? 10.- No sabemos quién ha hecho eso. 11.- Eneko (ya) sabe dónde vive Inés.

3. Gogora ezazu: *objetua aditza baldin bada, -t(z)en eraman behar du.* (Recuerda que si el objeto sabido es un verbo éste debe llevar la terminación **-t(z)en**):

1.- Yo (ya) sé tocar el piano.

2.- ¿Sabes hablar francés?

3.- Este chico sabe arreglar televisiones.

4.- Nosotros (ya) sabemos escribir a máquina.

5.- Vosotros (ya) sabéis utilizar la calculadora.

6.- Estos niños ya saben andar en bici.

7.- Este hombre sabe decir las cosas como es debido

(*pianoa jo*)

(*frantsesez hitz egin*)

(*telebistak konpondu*)

(*makina idatzi*)

(*kalkuladora erabili*)

(*bizikletan ibili*)

(*gauzak behar bezala esan*)

● EL OBJETO PLURAL

Si el objeto sabido es plural, **jakin** sintético toma el pluralizador **-zki-**. Por ejemplo:

Nik gauza hori badakit	→	Nik gauza horiek badakizkit
Zuk izena badakizu	→	Zuk izenak badakizkizu

Según esto tenemos el siguiente paradigma:

NIK	(gauza batzuk)	DAKIZKIT
ZUK		DAKIZKIZU
HARK		DAKIZKI
GUK		DAKIZKIGU
ZUEK		DAKIZKIZUE
HAIEK		DAKIZKITE

4. Esaldi hauetako objektu zuzenak pluralak dira. Bete itzazu hutsuneak **jakin** aditza erabiliz.

(Los objetos directos de estas frases son plurales. Llena los huecos empleando el verbo **jakin**.)

- 1.- Nik ba... zuen izenak.
- 2.- Zuk ba... kimikako formulak.
- 3.- Inesek nere sekreto guztiak ...
- 4.- Txiste horiek guk ba...
- 5.- Zuek gauza horiek ederki ...
- 6.- Neska hauek ba... gure kotxeen matrikulak.
- 7.- Mutil honek ez ... Bizkaiko mendien izenak.
- 8.- Zuk, ba al ... historiako notak?
- 9.- Nik filosofiakoak ...
- 10.- Irakasleak nota guztiak ...
- 11.- Amonak ipuin politak ...
- 12.- Zuk buruz ... gure telefonoak.

Hurrengo orrialdean **Lan bila** ipuina duzu. Buruz ikasi behar duzu. Itzulpena erantzunetan dator.

XANTI ALPROJA

Xanti Alprojari ez zaio lana gehiegi gustatzen. Berehala aspertzen omen da lanean. Txikitan, eskolan zebilenean ere nahiko alferra omen zen eta ez omen zuen gauza handirik ikasi. Hala ere, bizitzeko dirua behar dela eta, lantxoren bat bilatzen da saiatzen da noizik behin.

Orain ere triste samarra du poltsikoa eta lagun batengana doa lan bila. Lagunak lantegi baten helbidea ematen dio:

– Lantegi horretan atezaina behar dutela entzun dut. Zoaz bada-ezpada ere eta ea zer esaten dizuten...

Horrela, bada, presa handirik gabe esandako tokira doa Xanti. Sartutakoan bulego handi eta txukun horietako bat aurkitzen du.

– Egunon. Zer nahi duzu? –galdetzen dio emakume batek.

– Atezain bat behar omen duzue eta horregatik etorri naiz...

– Horrela da, bai. Ba al dakizu idazten eta irakurtzen?

– Irakurtzen ez dakit; idazten, ordea bai...

– Ea, bada. Idatzi ezazu paper honetan zeure izena.

Xantik boligrafoa hartu eta zirriborro batzuk egiten ditu pape-rean. Emakumeak hura ikusi eta honela dio:

– Aizu, gizona! Zer jartzen du hemen? Nik behintzat ezin dut ulertu...

Eta Xantik haserre:

– Ez al dizut, bada, esan irakurtzen ez dakidala?

Eta alde egiten du humore txarrez...

● GALDERAK

- 1.– Langile handia al da Xanti?
- 2.– Asko ikasi al zuen eskolan?
- 3.– Norengana joan da lan bila?
- 4.– Zer ematen dio lagunak?
- 5.– Nolakoa da bulegoa?
- 6.– Bulegoan, norekin hitz egiten du Xantik?
- 7.– Zer galdetzen dio emakumeak? (subord.)
- 8.– Xantik, benetan al daki idazten?
- 9.– Nola alde egiten du bulegotik?

Alproja: golfo, abandonado; **txikitan:** de pequeño; **lantxoren bat:** algún trabajo; **saiatu:** esforzarse; **noizik behin:** de vez en cuando; **lagun batengana:** a donde un amigo; **lan bila:** en busca de trabajo; **helbide:** dirección; **atezain:** portero; **bada-ezpada ere:** por si acaso; **ea zer esaten dizuten:** a ver qué te dicen; **esandako tokira:** al lugar indicado; **sartutakoan:** al entrar; **txukun:** limpio, ordenado, arreglado; **zirriborro:** garabato; **alde egin:** marcharse.



● HONELA DIO

Hay un verbo sintético sinónimo de **esan** (decir) cuya forma coincide con la del auxiliar **nor-nori-nork**: **diot, diozu, dio, diogu, diozue, diote**. No las confundas.

Horixe diot nik ere	= Horixe esaten dut nik ere	(eso mismo digo yo)
Zer diozu zuk?	= Zer esaten duzu zuk?	(¿Qué dices tú?)
Hauek ezetz diote	= Hauek ezetz esaten dute	Estos dicen que no)
eta honela dio :...	= eta honela esaten du	(y dice así:...)

● “HORIENTAKO BAT”

● PLURAL DEL GENITIVO LOCATIVO (nongo): -ETAKO

Recuerda que el genitivo locativo, en singular, toma el sufijo **-ko**. Su correspondiente plural es **-etako**. Si la palabra termina en **-a**, ésta desaparece.

Kaleko argiak	→	kaleetako argiak	(las luces de las calles)
Herriko elizak	→	herrietako elizak	(las iglesias de los pueblos)
Eskolako haurrak	→	eskoletako haurrak	(los niños de las escuelas)

● El plural de los demostrativos es así:

hauek	→	hauetako horietako haietako	<i>de éstos</i>
horiek	→		<i>de esos</i>
haiek	→		<i>de aquéllos</i>

Ejemplos:

hauetako bat
horietako batzuk
haietako zaharrena
egun hauetako batean
herri horietako gazteak
etxe haietako leihoak

uno de éstos
algunos de esos
el más viejo de aquellos
(en) uno de estos días
los jóvenes de esos pueblos
las ventanas de aquellas casas

● ARIKETAK

5. *Eman itzazu pluralez sintagma genitibo hauek:*

- 1.– **Mendiko** bideak. 2.– **Leihoko** loreak. 3.– **Zuhaitzeko** txoriak.
- 4.– **Lantegiko** tximiniak. 5.– **Kaleko** zakurrak. 6.– **Teilatuko** katuak.
- 7.– **Baserriko** janariak. 8.– **Etxeko** hormak. 9.– **Inguruko** auzoak.
- 10.– **Auzoko** bideak. 11.– **Zelaiko** belarra. 12.– **Udaletxeko** bilerak.
- 13.– **Igandeko** partiduak. 14.– **Basoko** ehiztariak. 15.– **Iturri honetako** ura.
- 16.– **Bide horretako** argiak. 17.– **Horma hartako** zuloak.
- 18.– **Egunkari honetako** berriak. 19.– **Denda horretako** prezioak.
- 20.– **Urte hartako** lanak.

6. *Galdera hauei erantzuteko eskuineko hitzak erabili behar dituzu:*

- | | |
|--------------------------------------|----------------|
| 1.– Nongo jendea etorri da? | (herriak) |
| 2.– Nongo nagusiak bildu dira? | (lantegiak) |
| 3.– Nongo txoferrak dira horiek? | (autobusak) |
| 4.– Noizko programak ikusten dituzu? | (larunbatak) |
| 5.– Nongo zuhaitzak bota dituzte? | (mendi horiek) |
| 6.– Nongo irakasleek hitz egin dute? | (eskola hauek) |
| 7.– Nongo argiak piztu dituzte? | (kale haiek) |
| 8.– Nongo harriak erori dira? | (horma hauek) |
| 9.– Nongo paretak pintatu dituzte? | (gela horiek) |

7. *Sintagma hauek euskaraz eman itzazu:*

- 1.– Las fuentes de los caminos. 2.– Las ventanas de las casas. 3.– Las casas de los pueblos. 4.– Los pueblos de los alrededores. 5.– Las noticias de los periódicos. 6.– Las reuniones de los jueves. 7.– Las mesas de las oficinas. 8.– Los muros de estas iglesias. 9.– Las ropas de esas sillas. 10.– Los árboles de aquellos montes. 11.– La gente de estos barrios. 12.– El trabajo de aquellos días.



EZIN DUT ULERTU

1.- Ezin izan significa **no poder**. En los ejercicios de este tema nos limitaremos a las formas más frecuentes de este verbo:

ezin dut	<i>no puedo</i>
ezin nuen	<i>no podía</i>
ezingo dut	<i>no podré</i>
ezin izango dut	

Para el resto de los tiempos es necesario incluir en las perífrasis **izan** o **izaten**:

ezin izan dut	<i>no he podido</i>
ezin izan nuen	<i>no pude</i>
ezin izaten dut	<i>no suelo poder</i>
ezin izaten nuen	<i>no solía poder</i>

2.- Si lleva un participio cuya acción es transitiva (**egin**, **ikusi**, etc...) también el auxiliar será transitivo:

ezin dut ulertu	<i>no lo puedo comprender</i>
ezin ditu ikusi	<i>no los puede ver</i>
ezin genuen hitz egin	<i>no podíamos hablar</i>
ezingo dute erosi	<i>no podrán comprarlo</i>

Si el participio expresa acción intransitiva (**etorri**, **ibili**, **joan**, etc...), el auxiliar será intransitivo:

ezin naiz ibili	<i>no puedo andar</i>
ezin da mugitu	<i>no se puede mover</i>
ezin ziren atera	<i>no podían salir</i>
ezingo gara sartu	<i>no podremos entrar</i>

También las acciones de tipo impersonal (**no se puede...**) se expresan con auxiliar intransitivo:

ezin da ulertu	<i>no se puede comprender</i>
ezin da erre	<i>no se puede fumar</i>
ezin da ezer egin	<i>no se puede hacer nada</i>

● ARIKETAK

8. *Eman itzazu aditz hauek euskaraz.*

- a) No puedes; no puede; no podemos; no pueden.
- b) Yo no podía; no podías; no podíamos; no podíais.
- c) No podré; no podrás; no podrá; no podrán.

9. *Hiru ariketa hauetan aditz transitiboa erabili behar duzu:*

a) ORAIN

- 1.- No puedo abrir la ventana.
- 2.- No puedes decir eso.
- 3.- Martín no puede encontrar las llaves.
- 4.- No podemos pagar el coche.
- 5.- Ese trabajo no podéis terminarlo hoy.
- 6.- Mis amigos no pueden vender la casa.
- 7.- No puedo aprender esto.
- 8.- No puedes perder ese papel.
- 9.- No se lo puedo perdonar.
- 10.- No podemos entenderle a este señor.

b) ATZO

- 1.- No podíamos ver nada.
- 2.- En aquella habitación no podíais trabajar.
- 3.- Yo no podía oír bien.
- 4.- La señora no podía llevar las bolsas.
- 5.- Aquellos no podían usar tu coche.
- 6.- No podías responder así.

c) BIHAR

- 1.- Con ese dinero no podrás comprar la revista.
- 2.- No podremos coger ese tren.
- 3.- No podrán ganar el partido.
- 4.- No podré hablar con tu hermano.
- 5.- Miren no podrá traer todas las cosas.
- 6.- Eso no podréis olvidarlo nunca.

10. *Beste hiru hauetan aditz intransitiboak dituzu:*

a) ORAIN

- 1.– El enfermo no se puede levantar de la cama.
- 2.– Hoy no puedo salir de casa.
- 3.– Los niños no pueden aburrirse contigo.
- 4.– No podemos vivir así.
- 5.– No podéis estar ahí.
- 6.– No te puedes sentar en el suelo.
- 7.– No puedo andar rápido.

b) ATZO

- 1.– Tus padres no podían venir ayer.
- 2.– No no podíamos quedar en aquel sitio.
- 3.– Vosotros no podíais subir arriba.
- 4.– Yo no podía salir a comprar pan.
- 5.– El chico no podía volver a su pueblo.
- 6.– Tú no podías acercarte al mar.

c) BIHAR

- 1.– Mañana no podréis entrar.
- 2.– Luego no podré bajar a la tienda.
- 3.– El tío no podrá venir al trabajo.
- 4.– No podremos aparecer en esa reunión.
- 5.– Los jóvenes no podrán juntarse en ese lugar.
- 6.– A pie, no podréis llegar.



EDUKI

Otro verbo sintético muy empleado es **eduki** (tener), cuyo presente es así:

NIK	DAUKAT	tengo
ZUK	DAUKAZU	tienes
HARK	DAUKA	tiene
GUK	DAUKAGU	tenemos
ZUEK	DAUKAZUE	tenéis
HAIEK	DAUKATE	tienen

Ejemplos

Nik berdina daukat
Giltza zuk daukazu
Botilak ura dauka
Arropa armarioan daukagu
Hauek ez daukate ezer

Yo tengo (uno) igual
La llave la tienes tú
La botella tiene agua
Tenemos la ropa en el armario
Estos no tienen nada

● Si el objeto tenido es plural se intercala el pluralizador **-z-** resultando las siguientes formas:

NIK	(liburuak)	DAUZKAT
ZUK		DAUZKAZU
HARK		DAUZKA
GUK		DAUZKAGU
ZUEK		DAUZKAZUE
HAIEK		DAUZKATE

Nik berdina daukat	→	Nik berdina <u>k</u> dauka <u>t</u>
Giltza zuk daukazu	→	Giltza <u>k</u> zuk dauka <u>z</u> u
Neskak dauka jostailua	→	Neska <u>k</u> dauka josta <u>il</u> uak
Arropa armarioan daukagu	→	Arro <u>p</u> a armarioan dauka <u>g</u> u

● No es fácil precisar las diferencias de significado entre los verbos **izan** y **eduki**. **Izan** expresa, sin duda, una idea de posesión más amplia que **eduki**; **eduki** se utiliza más bien para significar "contener, tener dentro de, tener guardado, recogido, envuelto", etc., expresando una posesión más física que la de **izan**. De todas formas, la mayor o menor frecuencia de ambas formas varía según las épocas y la geografía.

11. *Hutsuneak betetzeko eduki erabili behar duzu. Gogoan har ezazu objektu singularra ala plurala den*

(Para llenar los huecos debes emplear **eduki**. Toma en cuenta si el objeto es singular o plural):

- 1.– Nik sagarra boltsan ...
- 2.– Zuk zigarroa ahoan ...
- 3.– Peruk liburua beso azpian ...
- 4.– Guk arraina ontzian ...
- 5.– Zuek dirua eskuan ...
- 6.– Hurrek jostailua armarioan ...
- 7.– Guk loreak leihoan ...
- 8.– Zuek butano bonbonak balkoian ...
- 9.– Nik aldizkariak mahai gainean ...
- 10.– Izebak sukaldean ... txoriak.
- 11.– Amonak ohe azpian ... zapatilak.
- 12.– Mekanikoak horman ... gurpilak.
- 13.– Arrantzaleek otarrean ... arrainak.
- 14.– Ehiztariek autoan ... zakurra.
- 15.– Deposito honek gasolina gutxi ...
- 16.– Etxekoandreak esnea eta arrautzak frigorifikoan ...
- 17.– Zuk aulkian ... soinekoa.
- 18.– Aberatsek bankuan ... milioiak.
- 19.– Guk ez ... dirurik.
- 20.– Mutikoak bere gelan ... baloia.
- 21.– Guk ardoa botilan ...

12. *Pluralez eman itzazu adierazitako hitzak. Aditza ere aldatu beharko duzu, noski*

(Pon en plural las palabras indicadas. También tendrás que cambiar el verbo):

- 1.– Neskak etxean dauka **argazkia**.
- 2.– Guk **zakurra** atarian daukagu.
- 3.– **Janaria** sukaldeko mahaian daukat.
- 4.– Alkateak udaletxean dauka **paper hori**.
- 5.– Langileak lurrean dauka **burdina**.
- 6.– Gela hartan daukazu **jantzia**.
- 7.– Zuek garajea daukazue **kotxea**.
- 8.– Ikasleek eskolan daukate **liburua**.
- 9.– Baserritarrek zelaian daukate **behia**.
- 10.– Zakurrak txabolan dauka **hezurra**.

13. *Erabil ezazu eduki esaldi hauek itzultzeko.*

- 1.- Tienes poco dinero.
- 2.- Tenemos el papel sobre la mesa.
- 3.- Tengo poca gasolina.
- 4.- El pescador tiene los peces en la mano.
- 5.- No tenemos nada.
- 6.- Nadie tiene eso.
- 7.- Vosotros tenéis las llaves en el coche.
- 8.- Esta mujer tiene un gran corazón.
- 9.- Tienes demasiadas cosas en la cabeza.
- 10.- Los panes los tenemos en la cocina.
- 11.- Tenéis los zapatos debajo de la silla.

HURRENGO ORRIALDEAN LONTXO ARTZAINA IPUINA DUZU.
BURUZ IKAS EZAZU.

LONTXO ARTZAINA

Lontxo artzaina bakar-bakarrik bizi zen mendiko txabola batean. Udazkenean behera jaisten zen artaldearekin eta herrian igarotzen zuen negua. Baina udaberria iristen zenean gora igotzen zen berriro eta mendian igarotzen zuen uda osoa ere. Mendian zegoenean ez zuen ia inor ikusten. Gehienetan zakurra izaten zuen lagun bakarra.

Behin batean etzanda zegoen zuhaitz baten azpian bazka-londoko siesta egiten eta neska-mutil talde bat agertu zen. Hurbildu zirenean honela agurtu zuen haietako gazte batek:

– Arratsaldeon, Lontxo. Zer moduz bizi gara? Bake ederra duzu hemen, ezta?

Lontxoak burua batera eta bestera mugituz ez zuen gauza argirik erantzun.

Ardiak inguruan zebiltzan belarra jaten eta neska batek galdetu zion:

– Aizu, Lontxo! Zenbat ardi dituzu?

– Berrehun eta hamasei –erantzun zion Lontxok oso azkar.

– Gazta batzuk erosi nahi ditugu. Ba al duzu gaztarik?

– Bai, bai. Bi dozena dauzkat txabolako apaletan...

Eta orduan mutil batek:

– Barkatu, Lontxo, baina zuk gaztea ematen duzu oraindik. Zenbat urte dituzu?

Lontxo isilik geratu zen momentu bat lurrera begira...

– Ez dakit, bada, seguru: berrogeita hamar edo hirurogei gutxi gora-behera...

– Hara! Hain ederki dakizu zenbat ardi eta zenbat gazta daukazun eta urteak, berriz, ez dakizkizu? Ezin da sinistu! Nola daiteke hori?

– Begira –erantzun zion Lontxok–.Inguru hauetan otsoak ibiltzen dira askotan eta inoiz lapurrak ere bai. Horregatik, goizero eta gauero kontatzen ditut ardiak eta gaztak, behin ere ahaztu gabe. Urteak, berriz, badakit ez dizkidala inork kenduko eta ez naiz horretaz arduratzen...

GALDERAK

- 1.– Zer zen Lontxo?
- 2.– Nola eta non bizi zen Lontxo?
- 3.– Noiz jaisten zen herrira?
- 4.– Noiz igotzen zen berriro bere txabolara?
- 5.– Jende asko ikusten al zuen mendian?
- 6.– Mendian zein zen Lontxoren laguna?
- 7.– Nola zegoen Lontxo neska-mutilak agertu zirenean?
- 9.– Nork galdetu zion zenbat ardi zituen?
- 9.– Zertara joan zen talde hura Lontxoren txabolara?
- 10.– Non zituen Lontxok gaztak?
- 11.– Zer ibiltzen zen inguru haietan?
- 12.– Noiz kontatzen zituen Lontxok ardiak eta gaztak?

Artzain: pastor; **udazken:** otoño; **artalde:** rebaño; **oso:** entero, completo; **bakar:** único; **etzanda:** tumbado; **bake:** paz; **bazkalondo:** (momento) después de comer; **mugituz:** moviendo; **zebiltzan:** andaban; **ardi:** oveja; **apal:** balda; **ematen duzu:** pareces; **seguru:** seguro; **gutxi gora-behera:** poco más o menos; **sinistu = sinetsi:** creer; **inoiz:** alguna vez; **goizero eta gauero:** cada mañana y cada noche; **arduratu:** preocuparse.



OHARRAK

● BURUA MUGITUZ

Una manera de hacer subordinadas modales es añadir el morfema **-z** a los participios: **ikusiz** (viendo), **hartuz** (cogiendo), **erabiliz** (empleando), etc... Si el participio termina en consonante se intercala una **e**: **eginez** (haciendo), **esanez** (diciendo), **edanez** (bebiendo), etc... Tales formas equivaldrían a gerundios simples españoles.

Galdetuz ikasten da
(**Preguntando** se aprende)

Telebista **ikusiz** pasatzen dugu denbora
(Pasamos el tiempo **viendo** la televisión)

Lan eginez irabazten du bere dirua
(Gana su dinero **trabajando**)

Bete itzazu hutsuneak hitz hauek **erabiliz**
(Llena los huecos **empleando** estas palabras)

Burua **mugituz** ez zuen gauza garbirik erantzun
(**Moviendo** la cabeza no contestó cosa clara)

● GOIZERO ETA GAUERO

El morfema **-ero** unido a sustantivos que expresan tiempo significa **todos**.

egunero: todos los días

astero: todas las semanas

hilero: todos los meses

urtero: todos los años

goizero: todas las mañanas

gauero: todas las noches

7. IKASKAIA

NORENTZAT DAKARZU HORI?

NORENTZAT DAKARZU HORI?

Otros dos verbos que también tienen formas sintéticas son **ekarri** (traer) y **eraman** (llevar), cuyos presentes son así:

● ekarri

NIK
ZUK
HARK
GUK
ZUEK
HAIEK

DAKART
DAKARZU
DAKAR
DAKARGU
DAKARZUE
DAKARTE

traigo
traes
trae
traemos
traéis
traen

● eraman

DARAMAT
DARAMAZU
DARAMA
DARAMAGU
DARAMAZUE
DARAMATE

llevo
llevas
lleva
llevamos
lleváis
llevan

● Adibideak

Opari bat **dakart** zuretzat
Zer **dakarzu** eskuan?

Traigo un regalo para ti
¿Qué traes en la mano?

Kamioiak hondarra **darama**
Denbora luzea **daramagu** itxoiten

El camión lleva arena
Llevamos mucho tiempo esperando

● ARIKETAK

1. Bete itzazu hutsuneak ekarri erabiliz:

1.– Haize honek euria ... 2.– Astoak belarra ... gainean. 3.– Nik diru gutxi ... karteran. 4.– Zuk esne botila betea ... 5.– Neskek aldizkari bat ... 6.– Zuek ardo beltza ... 7.– Guk ogi biguna ... 8.– Haur hauek aurpegi zikina ... 9.– Zer ... zuek? 10.– Nik ura ... iturritik.

2. Itzul itzazu esaldi hauek:

1.– Esta chica trae un paraguas. 2.– Yo no traigo nada. 3.– Tú traes un vestido nuevo. 4.– Esos hombres traen buen aspecto. 5.– ¿Qué traes ahí? 6.– Nosotros traemos el periódico de ayer. 7.– La etxeakoandre trae sopa caliente. 8.– Traes la camisa muy limpia. 9.– El pastor trae el rebaño. 10.– Marisa trae un vestido como el tuyo.

3. Hutsune hauek betetzeko eraman aditza erabili behar duzu:

1.– Autobus horrek jende gehiegi ... 2.– Iñakik konpontzera ... bere kotxea. 3.– Zuk oso txukuna ... alkandora. 4.– Guk denbora luzea ... hemen. 5.– Ertzainek txapel gorria ... 6.– Zuek gona motza ... 7.– Nik jertse urdina ... 8.– Artzainak gazta handi bat ... 9.– Emakume horiek itxura egokia ... 10.– Mutikoak ahoan ... goxokia. 11.– Aitonak makila ... eskuan. 12.– Karakolek gainean ... etxea.

4. *Eman itzazu euskaraz esaldi hauek:*

1.– Ese joven lleva un cigarro en la boca. 2.– La madre lleva al niño en los brazos. 3.– Tú llevas poco tiempo aquí. 4.– La mujer lleva la carne a casa. 5.– Yo llevo el depósito lleno. 6.– Vosotros lleváis la llave. 7.– Nosotros llevamos la ropa a limpiar. 8.– Koldo lleva el bolígrafo en la oreja. 9.– Yo llevo un jersey oscuro. 10.– Los pescadores llevan camisa azul.

- Si el objeto directo, la cosa llevada, es plural ambos verbos toman el pluralizador **-tza-**:

dakartzat
dakartzazu
dakartza
dakartzagu
dakartzazue
dakartzate

daramatzat
daramatzazu
daramatza
daramatzagu
daramatzazue
daramatzate

Nik ogia dakart	→	Nik ogiak dakartzat
Neskak lore bat dakar	→	Neskak lore batzuk dakartza
Nora daramazu aulkia?	→	Nora daramatzazu aulkiak?
Guk asmo ona daramagu	→	Guk asmo onak daramatzagu

● **ARIKETAK**

5. *Eman ezazu pluralez adierazitako sintagma. Aditza ere aldatu beharko duzu.*

1.– Baserritarrek **behia** dakar. 2.– Arrantzaleek **arrain handia** dakarte. 3.– Gaurko egunkariak **berri ona** dakar. 4.– Zuk **argazki polita** dakarzu. 5.– Nik osabaren **eskutitza** dakart. 6.– Guk **janari gozoa** dakargu. 7.– Zuek **makila luzea** dakarzue. 8.– Aldizkari honek **irudi bikaina** dakar. 9.– Mikelek buzoira darama **eskutitza**. 10.– Haizeak **papera** darama. 11.– Andreak sukaldara darama **arrautza**. 12.– Guk konpontzera daramagu **gurpila**. 13.– Nik **ardo botila** daramat etxera. 14.– Zuk **butano bonbona** daramazu kotxean.

6. *Euskaraz eman ezazu:*

1.– Miren lleva gafas oscuras. 2.– Tú traes zapatos sucios. 3.– Yo traigo bebidas frías. 4.– ¿De dónde traes esos panes? 5.– Llevamos las botellas a la fuente. 6.– El pastor lleva las ovejas al monte. 7.– Yo llevo pantalones nuevos. 8.– ¿A dónde llevas tus cosas?

- *Bi ipuin datoz orain. Aurrekoak bezala hauek ere buruz ikasi behar dituzu. Zerbait ulertzen ez baduzu erantzunetan begira ezazu itzulpena.*

GALERA HANDIA

Bi adiskide Donostiako Paseo Berrian dabilta. Aurpegi alaia daramate eta txanpaina edaten ari dira. Zerbait pozgarria ospatzen ari dira dudarik gabe. Nahiko mozkortuta daude eta ezin dira ia zutik egon. Halako batean bat irristatu egiten da eta itsasora erortzen da. Itsaso zakarra dago eta olatuek barrura daramate. Gizona gero eta urrutiago ikusten da eta ezin da ezer egin. Laguna negarrez hasten da. Zoratua dirudi. Emakume bat hurbiltzen zaio kontsolatu nahian eta honela esaten dio:

– Lasaitu zaitez, gizona. Horrek ez du erremediorik. Badakigu galera handia izan dela...

– Galera handia? Bai horixe! Hamalauko kiniela darama poltsikoan eta!!

● GALDERAK

- 1.– Non dabilta bi adiskideak?
- 2.– Nolako aurpegia daramate?
- 3.– Ardoa edaten ari dira?
- 4.– Zer ari dira ospatzen?
- 5.– Nola daude biak?
- 6.– Zer gertatzen zaio bati?
- 7.– Nolako itsasoa dago?
- 8.– Nora daramate olatuek?
- 9.– Nola hasten da laguna?
- 10.– Zer esaten dio emakumeak kontsolatu nahian? (*subord.*)
- 11.– Zer darama besteak poltsikoan?

Alai: alegre; **txanpaina:** champán; **pozgarri:** alegre (que produce alegría); **ospatu:** celebrar; **dudarik gabe:** sin duda; **mozkortuta:** emborrachado; **ia:** casi; **irristatu:** resbalar; **itsaso zakar:** mar revuelta; **olatu:** ola; **gero eta urrutiago:** cada vez más lejos; **zoratu:** enloquecido; **dirudi:** parece; **konsolatu nahian:** queriendo consolarle; **lasaitu:** tranquilizarse; **erremedio:** remedio; **galera:** pérdida.

● OHARRAK

● IRRISTATU EGIN DA

Recuerda que el elemento clave de una oración debe ir inmediatamente antes del verbo. Esta regla es sólo para las oraciones afirmativas y posteriormente tendremos que matizarla.

- a) Neska **etxean sartu da** orain.
- b) Orain, **neska sartu da** etxean.
- c) Neska, **orain sartu da** etxean.

En la frase

- a) decimos que es **en casa** donde ha entrado la chica.
- b) decimos que es **la chica** quien ha entrado en casa.
- c) decimos que es **ahora** cuando ha entrado.

Si lo que deseamos resaltar es la propia acción verbal hemos de incluir **egin** en la perífrasis:

- d) Neska etxean sartu **egin da**.
(*Lo que ha hecho la chica ha sido entrar en casa*).

● Otros ejemplos:

- | | |
|-----------------------------|--|
| – Zer gertatu zaio Mikeli? | – <i>¿Qué le ha ocurrido a Mikel?</i> |
| – Erori egin da . | – <i>Se ha caído.</i>
(<i>Caer se ha hecho</i>) |
| – Kepa etxean al da? | – <i>¿Kepa está en casa?</i> |
| – Ez, joan egin da . | – <i>No, se ha marchado.</i> |
| – Zer du haurrak? | – <i>¿Qué tiene el niño?</i> |
| – Jo egin dute . | – <i>Le han pegado.</i> |
| – Zer egin duzu autoarekin? | – <i>¿Qué has hecho con el auto?</i> |
| – Saldu egin dut . | – <i>Lo he vendido.</i> |

Lo importante de estas respuestas son las acciones **erori**, **joan**, **jo** y **saldu**.

● ARIKETAK

7. *Esaldi hauek itzultzeko egin erabili behar duzu.*

- 1.– El reloj se ha parado.
- 2.– La gasolina ha subido.
- 3.– El enfermo se ha levantado.
- 4.– Maribel se ha casado.
- 5.– El dinero se ha acabado.
- 6.– La casa se ha quemado (**erre**).
- 7.– El abuelo se ha sentado.
- 8.– Andoni se ha extrañado (**harritu**).
- 9.– El chico le ha pegado al niño.
- 10.– El papel, lo hemos tirado.
- 11.– El pan me lo he comido.
- 12.– Los peces se han muerto.
- 13.– La llave se me ha olvidado.
- 14.– Los alumnos solían aburrirse.

LIBURU ASTUNAK

Kepa gure herriko medikua da. Adiskide jatorra eta sendagile trebea da Kepa. Gaztea zenean Parisen ikasi zuen. Gaurko egunean nahikoa irabazten du eta lasai bizi da; ikasle zenean, ordea, oso diru gutxi izaten zuen beti eta ahal zuena egiten zuen txanpon batzuk handik edo hemendik ateratzeko. Ikasketak ordaintzeko platerak garbitzen zituen Parisko jatetxe batean. Oporretan etxera etortzen zenean ere bidaia aprobetxatzen zuen kontrabando txikiak egiteko: idazteko makinak, magnetofoiak, argazki makinak eta horrelako gauzak pasatzen zituen. Suerte handia izaten zuen eta ez omen zuten behin ere harrapatu.

Egun batean trenean omen dator eta Hendaiako mugara iristean aduanako poliziak igotzen dira. Horietako bat hurbiltzen da eta bi maleta ikusten ditu Keparen ondoan.

– Maleta horiek zureak dira? –galdetzen dio Kepari.

Kepak baietz erantzuten dio. Orduan poliziak maleta bat seinalatzen du:

– Zer dakarzu hemen?
– Liburu batzuk...

Poliziak maleta jasotzen du, gora eta behera mugitzen du eta konforme gelditzen da.

– Eta beste honetan?
– Hor ere liburuak daramatzat...

Poliziak bigarren maleta hartzen du eta pisu handia daukala ikusten du berehala...

– Liburuak diozu? Pisu izugarria dute, bada...
– Bai. Horiek oraindik irakurri gabe dauzkate eta...

Eta horrela pasa omen zen...

● GALDERAK

- 1.– Nor da Kepa?
- 2.– Nolakoa da Kepa?
- 3.– Noiz ikasi zuen Parisen?
- 4.– Diru asko al zuen ikasle zenean?
- 5.– Zer egiten zuen Kepak dirua irabazteko?
- 6.– Askotan harrapatu al zuten kontrabando egiten?
- 7.– Noiz igotzen dira poliziak trenera?
- 8.– Non daude bi maletak?
- 9.– Zer egiten du poliziak lehenengo maletarekin?
- 10.– Bigarren maleta oso astuna omen da. Zer esaten du Kepak?
(subord.)

Astun: pesado; **jator:** campechano, majo; **sendagile** = *mediku*: médico; **ahal zuena:** lo que podía; **txanpon:** moneda; **ikasketa:** estudio; **plater:** plato; **bidaia:** viaje; **harrapatu:** coger, cazar; **muga:** frontera; **iristean:** al llegar; **jaso:** levantar; **mugitu:** mover; **pisu:** peso.

● NORENTZAT DAKARZU HORI?

● EL CASO DESTINATIVO: -ENTZAT

El caso destinativo se forma añadiendo **-tzat** al genitivo posesivo cuyas formas conocemos ya en singular y en plural. Los interrogativos correspondientes son **norentzat** (para quién) y **zeinentzat** (para cuál).

1.- Nombres propios

Los nombres propios terminados en consonante toman **-entzat** y los terminados en vocal **-rentzat**:

Boltsa hau Ines**entzat** da eta bestea Idoi**arentzat**.
(Esta bolsa es para Inés y la otra para Idoia)

Diru hau Ibon**entzat** ekarri dute; Koldo**rentzat** ez dago ezer.
(Este dinero es para Ibon; para Koldo no hay nada)

2.- Nombres comunes en singular

El destinativo para los nombres comunes en singular se forma con **-arentzat**:

Andreak herri**arentzat** utzi zituen bere etxeak.
(La señora dejó sus casas para el pueblo)

Amak seme**arentzat** dakar bazkaria.
(La madre trae la comida para el hijo)

Jostailu horiek haur**arentzat** erosi dituzte.
(Esos juguetes los han comprado para el niño)

3.- Nombres comunes en plural

Los nombres comunes en plural toman **-entzat**:

Leku hori jubilatu**entzat** izango da.
(Ese local será para los jubilados)

Programa hori gazte**entzat** da.
(Ese programa es para los jóvenes)

Jaialdi bat antolatu dute baserri**arentzat**.
(Han organizado un festival para los baserritarras)

4.- Los demostrativos

Los demostrativos ofrecen las siguientes formas:

hau	→	HONENTZAT	hauek	→	HAUENTZAT
hori	→	HORRENTZAT	horiek	→	HORIENTZAT
hura	→	HARENTZAT	haiek	→	HAIENTZAT

Honentzat beltza, **horrentzat** txuria, eta **harentzat** ur piska bat.

(Para éste tinto, para ése blanco y para aquél un poco de agua)

Mutiko **hauentzat** egokia da hau, baina **haientzat** ez.

(Para estos chavales esto es apropiado, pero para aquellos no)

5.- Los pronombres personales

Los pronombres personales hacen así el caso destinativo:

ni	→	NERETZAT
zu	→	ZURETZAT
gu	→	GURETZAT
zuek	→	ZUENTZAT

Zer dakarzu **neretzat**?
(¿Qué traes para mí?)

Gauza polit bat daukat **zuretzat**.
(Tengo una cosa bonita para ti)

Hori erraza da **zuentzat**, baina oso zaila **guretzat**.
(Eso es fácil para vosotros, pero para nosotros muy difícil)

● IZEN SINTAGMA

Añadiendo al destinativo el morfema **-ko** (**-entzako**) resulta un modificador indirecto que colocamos antes del núcleo:

Izebarentzako oparia
Gizonentzako jantziak
Gazteentzako jolasak
Zuretzako liburuak

El regalo para la tía
Ropas para hombre(s)
Diversiones para los jóvenes
Los libros para ti

● ARIKETAK

8. Galdera hauei erantzuteko eskuineko hitzak erabili behar dituzu:

- | | |
|--|----------------------------|
| 1.– Norentzat dira opariak? | <i>(amona)</i> |
| 2.– Norentzat da baloia? | <i>(mutila)</i> |
| 3.– Norentzat prestatu behar da bazkaria? | <i>(familia osoa)</i> |
| 4.– Norentzat dakarzu aspirina? | <i>(gaisoa)</i> |
| 5.– Norentzat idatzi dute oharra? | <i>(herriko jendea)</i> |
| 6.– Norentzat izan da galdera hori? | <i>(irakaslea)</i> |
| 7.– Norentzat da diru hau? | <i>(langileak)</i> |
| 8.– Norentzat dira puroak? | <i>(nagusiak)</i> |
| 9.– Norentzat erosi zituzten jostailuak? | <i>(umeak)</i> |
| 10.– Norentzat antolatu zuten igandeko jaialdia? | <i>(gazteak)</i> |
| 11.– Norentzat zen larunbateko afaria? | <i>(lagunak)</i> |
| 12.– Norentzat dira oporrak? | <i>(ikasleak)</i> |
| 13.– Norentzat dira arrautza frejituak? | <i>(hau)</i> |
| 14.– Norentzat da arrain zopa? | <i>(hori)</i> |
| 15.– Norentzat da kafesne beroa? | <i>(hura)</i> |
| 16.– Zeinentzat da alpistea? | <i>(txori hau)</i> |
| 17.– Zeinentzat da esnea? | <i>(katu txiki hori)</i> |
| 18.– Zeinentzat dira hezurak? | <i>(zakur hura)</i> |
| 19.– Norentzat da gazta? | <i>(hauek)</i> |
| 20.– Norentzat da haragia? | <i>(horiek)</i> |
| 21.– Norentzat dira edari hotzak? | <i>(haiek)</i> |
| 22.– Norentzat dira soinekoak? | <i>(neska gazte hauek)</i> |
| 23.– Norentzat dira ipuinak? | <i>(mutiko horiek)</i> |
| 24.– Norentzat dira ogiak? | <i>(andre haiek)</i> |
| 25.– Norentzat da aldizkaria? | <i>(Andoni)</i> |
| 26.– Norentzat dira fraka estuak? | <i>(Begoña)</i> |
| 27.– Norentzat da gona gorria? | <i>(Miren)</i> |
| 28.– Norentzat da jertse urdina? | <i>(Fermin)</i> |
| 29.– Norentzat da eskutitza? | <i>(ni)</i> |
| 30.– Norentzat da gorbata dotore hori? | <i>(zu)</i> |
| 31.– Norentzat eskatu duzue afaria? | <i>(gu)</i> |
| 32.– Norentzat dira argazkiak? | <i>(zuek)</i> |

9. *Eman itzazu esaldi hauek euskaraz:*

- 1.– Eso es bueno para vosotros y malo para nosotros.
- 2.– Traigo buenas noticias para ti.
- 3.– ¿Han dejado algo para mí?
- 4.– Para nosotros no hay nada.
- 5.– Este asiento es para la abuela y el otro para el abuelo.
- 6.– La leche fría es para Eneko.
- 7.– El café caliente es para Isabel.
- 8.– Aquellas casas nuevas son para los pescadores.
- 9.– La chabola del monte es para los pastores.
- 10.– El agua es necesaria para las flores.
- 11.– Para éste agua, para ése café con leche y para aquél vino.
- 12.– Este lugar es apropiado para tus padres.

10. *Itzul itzazu sintagma hauek –entzako erabiliz.*

- 1.– El autobús para los trabajadores.
- 2.– Juguetes para niños.
- 3.– El regalo para el tío.
- 4.– Una revista para los jóvenes.
- 5.– Libros para los alumnos.
- 6.– Perros para ciegos.
- 7.– Asiento para los ancianos (viejos).
- 8.– Comida para pájaros.
- 9.– Vestidos para señora(s).

EDOZEIN GAUZA

Josebak eta Anek oso maite dute elkar eta udaberrian ezkontzea erabaki dute. Berri pozgarria emateko mutilak jatetxe dotore batera gonbidatzen ditu neskaren gurasoak. Mahai bat aukeratzen dute eta bertan esertzen dira. Mutilak janarien karta eskuan hartu eta honela dio:

– Egun zoragarri honek bazkari berezia merezi du. Zer eskatuko dugu?

– Guretzat entremesak eta legatza –esaten du neskaren amak.

Mutilak ondoren neskari begiratzen dio begi samurrez:

– Eta zuretzat, maite?

– Neretzat edozein gauza. Oso hunkiturik nago eta ez dut jateko gogo handirik. Zuk eskatzen duzuna...

Kamareroa hurbiltzen da:

– Egunon, jaun-andreak: Zer nahi duzue?

– Bi hauentzat entremesak eta legatza –dio mutilak–.

Neskak orduan:

– Eta honentzat langosta, kaviar eta txanpain frantsesa!

● GALDERAK

- 1.– Zer erabaki dute Josebak eta Anek?
- 2.– Zertarako gonbidatu ditu Josebak Aneren gurasoak?
- 3.– Nora eraman ditu bazkaltzera?
- 4.– Nork aukeratu du gurasoen bazkaria?
- 5.– Nola begiratzen dio mutilak neskari?
- 6.– Neskak ez omen du jateko gogorik. Nola dago, bada, neska?
- 7.– Zer eskatzen du mutilak gurasoentzat?
- 8.– Zer eskatzen du neskak mutilarentzat?

Maite izan: querer, amar; **erabaki:** decidir; **gonbidatu:** convidar; **aukeratu:** elegir; **zoragarri:** maravilloso; **merezi izan:** merecer; **legatz:** merluza; **samur:** tierno; **edozein:** cualquier(a); **hunkiturik egon:** estar emocionado; **zuk eskatzen duzuna:** lo que tú pidas.

● OHARRAK

● ELKAR MAITE DUTE

Las acciones recíprocas se expresan en euskera por medio de **elkar**.

Elkar ikusiko dugu bihar.
Hauek oso maite dute **elkar**.
Guk ongo ezagutzen dugu **elkar**.

Nos veremos mañana.
Estos se quieren mucho.
Nosotros nos conocemos bien.

Atzo **elkarrekin** afaldu genuen.
Elkarrekin ibiltzen dira biak.
Elkarren ondoan bizi dira.
Gauza gogorrak esan dizkiote **elkarri**.

Ayer cenamos juntos.
Los dos suelen andar juntos.
Viven uno junto al otro.
Se han dicho cosas duras.

● ARIKETAK

11. *Itzul itzazu esaldi hauek elkar erabiliz.*

- 1.- Ayer nos vimos en la calle.
- 2.- Vosotros os conocéis bien.
- 3.- Los niños se están pegando.
- 4.- Martin y Lupe trabajan juntos.
- 5.- Nosotros siempre andamos juntos.
- 6.- ¿Saldréis juntos mañana?
- 7.- Estos se cuentan (dicen) muchas mentiras.
- 8.- Nosotros nos ayudamos mutuamente.
- 9.- Los chicos se han echado piedras.

Ondoren txiste zahar batzuk dituzu irakurtzeko. Ez dute itzulpenik; hitz berriak azkenean datoz. Ea ulertzen dituzun!

(Lee los chistes que vienen a continuación. No hay traducción; las palabras nuevas vienen al final)

● TXISTE ZAHARRAK

Telebista txarra

Gizon bat elektrodomestiko denda batean sartzen da eta telebista bat dakar bizkarrean. Humore txarrez dator. Telebista mahai gainean utzi eta honela esaten dio dendako andreari:

- Aizu! Telebista hau oso txarra da. Beste bat nahi dut!
- Txarra? Harritzen naiz, oso marka ona bait da! Zer du, bada?
- Anuntzio gehiegi!!!

Testamentua

Bi lagun hizketan ari dira eta batek honela dio:

- Hiltzen naizenean hogeit hamar milioi utziko ditut neure andrearentzat...
- Zuk? Eta hondik aterako dituzu? Inoiz ez duzu horrenbeste dirurik ikusi eta...
- Ez. Baina aberats batekin ezkontzeko asmoa dut.

Berdin zait

Amerikano aberats bat European ibili da oporretan. Neska bat ezagutu du eta elkarrekin ibili dira bazterrak ikusten Alemanian eta Frantzian. Azkenean itzultzeko ordua iritsi zaio gizonari eta aireportura joan dira hegazkina hartzera. Goiz samar da oraindik eta dendak ikusten ari dira.

- Agur egiteko opari bat erosi nahi dizut. Zer nahiago duzu, abrigo dotore bat ala diamantezko eraztuna? –esaten dio gizonak neskari.
- Niri berdin zait! Biak erosi itzazu eta gero erabakiko dugu.

Urte asko

Osasun Sailburua hospital bat ikusten ari da. Hospitaleko zuzendariak laguntzen dio bisitan. Azkenean gaisoen lekuan sartzen dira. Ohe batean emakume zahar bat dago, kolore exkaxa du eta itxura benetan txarra.

- Zer du emakume honek? –galdetzen du kontseilariak.
- Ez dakit... –erantzuten du zuzendariak.

Kontseilaria harritua gelditzen da eta zuzendariak arazoa konpondu nahi du:

- Zera... Hamabost urte daramatza hospitalean eta ahaztu egin zait...

Arrain freskoa

Gizon bat jatetxe batean bazkaltzen ari da. Halako batean eskua jaso eta kamareroari deitzen dio:

- Aizu! Arrain hau ez da freskoa!
- Ezetz? Bi hilabete egon da frigorifikoan eta.

Ordu onenak

Bi lagun lantegiko gorabeherak aipatzen ari dira:

- Guretzat bazkalondoko orduak dira onenak... Inork ez du lanik egiten!
- Zer? Siesta egiten duzue, ala?
- Guk ez. Nagusiak!

1. **Bizkar:** hombro.
2. **Horrenbeste:** tanto.
3. **Bazter:** lugar, paraje; **nahiago izan:** preferir; **diamantezko eraztun:** anillo de diamantes.
4. **Osasun Sailburu:** Consejero de Salud; **zuzendari:** director; **exkax:** flojo, malo; **arazo:** asunto, problema; **zera...:** esto... (muletilla).
5. **Onenak:** las mejores; **gorabeherak:** incidentes.

8. IKASKAIA

MENDIETATIK IBAIETARA

MENDIETATIK IBAIETARA

● EL PLURAL DEL CASO ABLATIVO (nondik): -ETATIK

Recuerda que este caso en singular toma el sufijo **-(e)tik**. En plural es **-etatik**. Si la palabra termina en **-a**, ésta desaparece:

Jendea etxetik atera da → Jendea etxe**etatik** atera da.
(La gente ha salido de las casas)

Artzaiak menditik etorri dira → Artzaiak mendie**etatik** etorri dira.
(Los pastores han venido de los montes)

Ikasleak autobusetik jaitsi dira → Ikasleak autobuse**etatik** jaitsi dira.
(Los estudiantes han bajado de los autobuses)

Andreak dendatik datoz → Andreak dende**etatik** datoz.
(Las mujeres vienen de las tiendas)

● El plural de los demostrativos es así:

hauek	→	HAUETATIK HORIETATIK HAIETATIK	de éstos
horiek	→		de esos
haiek	→		de aquéllos

Zulo **hauetatik** haizea sartzen zaigu.
(Por estos agujeros nos entra aire)

Egurra baso **horietatik** ekartzen dute.
(Traen la madera de esos bosques)

Etxe **haietatik** nator.
(Vengo de aquellas casas)

● ARIKETAK

1. *Pluralez eman adierazitako sintagmak:*

1. Ura **ontzitik** erori da.
2. Berriak **egunkaritik** jakiten ditugu.
3. Txoriak **arrautzatik** sortzen dira.
4. Eguzkia **leihotik** sartzen da.
5. Gudariak **hegazkinetik** jaitsi ziren.
6. Esnea **baserritik** ekartzen dute.
7. Burdina **menditik** ateratzen da.
8. Botila **eskutik** erori zait.
9. Aitonari negarra ateratzen zaio **begitik**.
10. Larunbatetan berandu ateratzen dira **tabernatik**.
11. Izaskun haserre etortzen da **bileratik**.
12. **Eskola honetatik** tekniko trebeak ateratzen dira.
13. **Leiho horretatik** sua ateratzen ari da.
14. Argia **kotxe hartatik** dator.
15. Ehiztariak **bide horretatik** joan dira.
16. Arraina **barku honetatik** atera zuten.

2. *Euskaratu itzazu esaldi hauek:*

1. El sol entraba por las ventanas.
2. De los pueblos vendrá mucha gente.
3. Los niños están bajando de los autobuses.
4. Los trabajadores han salido de las fábricas.
5. De los pueblos de Vizcaya no vino nadie.
6. La madera se saca de los árboles.
7. Tenéis que subir por esas escaleras.
8. El tren no pasa por estos pueblos.
9. Estas ropas se han caído de aquellas ventanas.
10. Los niños vienen de esas escuelas.

● **EL PLURAL DEL CASO ADLATIVO (nora): -ETARA**

Este caso para los nombres comunes en singular toma el sufijo **-(e)ra**. En plural toma **-etara**. Si la palabra termina en **-a**, ésta desaparece.

Errekak ibaira joaten dira → Errekak iba**ietara** joaten dira.
(Los arroyos van a los ríos)

Mutikoak zuhaitzera igo ziren → Mutikoak zuhaitz**etara** igo ziren.
(Los muchachos se subieron a los árboles)

Zu ez zara bilerara joaten → Zu ez zara biler**etara** joaten.
(Tú no sueles ir a las reuniones)

● El plural de los demostrativos es así:

hauek	→	HAUETARA	<i>a éstos</i>	
horiek	→		HORIETARA	<i>a esos</i>
haiek	→		HAIETARA	<i>a aquéllos</i>

Lur **hauetara** ur gutxi iristen da.
(A estas tierras llega poca agua)

Mirentxu ez da leku **horietara** joaten.
(Mirentxu no suele ir a esos sitios)

Eraman itzazue gauzak gela **haietara**.
(Llevad las cosas a aquellas habitaciones)

● ARIKETAK

3. *Eman itzazu pluralez adierazitako sintagmak:*

1. Ikasleak **autobusera** doaz.
2. **Bulegora** goizetan joaten da.
3. **Etxe berrira** noa.
4. Zu **Tolosako dendara** joaten zara.
5. Gaztetan pozik joaten ginen **jaialdira**.
6. Aitona **Hendaiako zinemara** joaten da.
7. Igaz **Nafarroako herrira** joaten ginen.
8. Datorren hilean **Atotxako partidura** joango naiz.
9. **Donostiako hondartzara** inguruko herrietatik etortzen dira.
10. Lapurrak aberatsen **etxera** joaten dira.
11. Zuek ezin zarete **toki honetara** igo.
12. Txoriak **zuhaitz horretara** jaisten dira.
13. Katuak ez dira **leiho hartara** iristen.
14. **Jatetxe honetara** jende asko etortzen da.
15. **Eskola horretara** irakasle berriak etorri dira.
16. Bide hau **etxe hartara** doa.

4. *Itzul itzazu esaldi hauek:*

1. El año pasado íbamos a las reuniones del Ayuntamiento.
2. Los trabajadores van a las fábricas.
3. Se te ha caído el café a los pantalones.
4. Los viejos nó van a los festivales.
5. Lleva estos libros a esas mesas.
6. Nunca hemos ido a aquellos pueblos.
7. Tu hermana suele venir a estas tiendas.
8. El mes pasado subimos a aquellos montes.
9. No podemos ir a esos lugares.
10. Este hombre va a aquellas casas.

*Ondoren irakurgai bat duzu: "Ura".
Irakurri baino lehen hitz berri hauek ikasi behar dituzu:*

arrisku: peligro
azal: superficie exterior
beldurgarri: espantoso
berotu: calentar
berriro: berriz, otra vez
bihurtu: convertir(se)
bizitza: vida
desegin: deshacer
erreka: arroyo
garrantzi: importancia
gatz: sal
gazi: salado
gorputz: cuerpo
gozo: dulce
hiri: ciudad
hodei: nube
hoztu: enfriar
ibai: río
irten: atera, salir
iturburu: manantial
kalte: daño, perjuicio
landare: planta, vegetal
lehor: seco
lurpe: bajo tierra
lurrun: vapor
zikindu: ensuciar

● IRAKURGAIA

URA

Urak garrantzi handia du gizonaren bizitzan, urik gabe ezin bait da bizi. Aberastasun handia da ura gizonarentzat.

Nondik ote dator ura, ordea?

Zeruan hodeiak ikusten ditugu batetik bestera ibiltzen. Hodeiak hozten direnean euria egiten du. Ur horren parte bat lur azalean geratzen da eta indar handiz jaisten da mendietatik. Beste parte bat, berriz, lurpean sartzen da eta lur azpitik joan ondoren iturri eta iturburuetan irteten da. Ur guzti hauek bildurik errekek sortzen dira. Erreketako eta eurietako urek lurrak bustitzen dituzte eta lur horietan belarra, landareak, zuhaitzak eta basoak sortzen dira. Lur lehorrean ez dago ez belarik, ez landararik, eta basorik ere ez: hila dago dena, hor ez dago bizitzarik.

Errekak ibaietara joaten dira eta hauek ur asko eramaten dute. Ibai ondoetan herriak eta hiriak sortzen dira. Ibaiek, beraz, garrantzi handia dute herrien historian, kulturen eta ekonomian.

Ura beharrezkoa da bizitzeko, gorputzak ere ura behar bait du. Urak, edateko, janariak prestatzeko eta gauzak garbitzeko balio du. Industrian ere behar-beharrezkoa da ura. Batzuetan, ordea, lantegiek ibaiak zikintzen dituzte eta hori kalte izugarria izaten da ekologiarentzat, ibaietako bizitza hil egiten bait da.

Ura, hala ere, ez da beti ona izaten eta baditu bere arriskuak. Euri gehiegi egiten duenean ibaietako urak beren bidetik atera eta kalte beldurgarriak egiten dituzte; etxeak eta herri osoak desagiten dituzte.

Ibaiak, azkenean, itsasora joaten dira.

Ibaietako ura gozoa izaten da, itsasokoa, berriz, gazia, gatz asko bait du itsasoak. Itsasoa ere aberastasun handia da gizonarentzat.

Zer gertatzen da, ordea, itsasoko urarekin?

Eguzkiak itsasoko urak berotzen ditu eta, lurrun bihurturik, gora, zerura igozten dira berriro. Horrelaxe sortzen dira hodeiak, eta hodeietatik... euria.

● GALDERAK

1. Zertan du urak garrantzi handia?
2. Zer da ura gizonarentzat?
3. Non ibiltzen dira hodeiak?
4. Noiz egiten du euria?
5. Non geratzen da uraren parte bat?
6. Nola jaisten da mendietatik lur azaleko ura?
7. Non irteten da lurpeko ura?
8. Errekek lurrak bustitzen dituzte. Zer sortzen da lur horietan?
9. Zer sortzen da lur lehorretan?
10. Nora joaten dira errekek?
11. Zertarako balio du urak?
12. Zer egiten diote lantegiek ibaietako ekologiarri?
13. Noiz irteten dira urak ibaietatik?
14. Nolakoa da ibaietako ura, gozoa ala gazia?
15. Zer du itsasoko urak gazia izateko?
16. Nola igotzen da ura zerura?
17. Zer etortzen da hodeietatik?

1.- LA COORDINACION COPULATIVA: ETA

a) La coordinación copulativa se realiza por medio de la conjunción **eta**:

(_____) ETA (_____)

Koldo etorri da **eta** Mikel joan da.
Eguraldi ona dago **eta** kanpora joango gara.
Haurra lurrera erori da **eta** negarrez hasi da.
Haragia erosiko dugu, etxera igoko gara **eta** elkarrekin bazkalduko dugu.

b) A menudo basta con dejar el auxiliar del último verbo reduciendo los anteriores al participio:

Papera hartu **du** eta leihotik bota **du**.
→ Papera hartu eta leihotik bota **du**.

Lurrera erori **da** eta negarrez hasi **da**.
→ Lurrera erori eta negarrez hasi **da**.

Haragia erosiko **dugu**, etxera igoko **gara** eta elkarrekin bazkalduko **dugu**.
→ Haragia erosi, etxera igo eta elkarrekin bazkalduko **dugu**.

c) Cuando las oraciones coordinadas guardan entre sí una relación causa-efecto basta invertir el orden para obtener oraciones causal-explicativas equivalentes a las coordinadas en español por **pues**:

(_____), (_____ ETA)

Eguraldi ona dago **eta** kanpora aterako gara.
→ Kanpora aterako gara, eguraldi ona dago **eta**.
(Saldremos fuera, pues hace buen tiempo)

Haserre dago **eta** ez du hitz egin nahi.
→ Ez du hitz egin nahi, haserre dago **eta**.
(No quiere hablar, pues está enfadado)

Aberatsa da **eta** etxe dotorea erosi du.
→ Etxe dotorea erosi du, aberatsa da **eta**.
(Ha comprado una casa elegante, pues es rico)

Recuerda que la partícula **bait** cumple una función análoga:

Kanpora aterako gara, eguraldi ona **bait** dago.
Ez du hitz egin nahi, haserre **bait** dago.
Etxe dotorea erosi du, aberatsa **bait** da.

● ARIKETAK

5. *Ken ezazu aditz laguntzailea aurreko aditzean partizipio hutsa utziz.*

(Suprime el auxiliar del primer verbo dejando sólo el participio)

1. Aulkitik jaiki da eta egunkaria hartu du.
2. Leihoa itxi dugu eta atea ireki dugu.
3. Goiz gosaldutute eta laster hasi dira lanean.
4. Oporrak hartuko ditut eta Parisa joango naiz.
5. Giltza poltsikotik atera du eta etxean sartu da.
6. Bulegoan sartu zen eta argia piztu zuen.
7. Basoa ardoz bete du eta pozik edan du.
8. Aita etorri da eta saltoka hasi da haurra.
9. Mugara iritsi ginen eta poliziak hurbildu ziren kotxera.
10. Laguna ikusi nuen eta haren ondoan eseri nintzen.
11. Udaletxera joango gara eta alkatearekin hitz egingo dugu.
12. Dirua eskatu dio eta ez dio ezer eman.

6. *Alda itzazu esaldiak perpaus esplikatiboak eginez.*

(Invierte el orden de las frases haciendo oraciones explicativas)

1. Euria ari du eta etxean geldituko gara.
2. Dirurik ez dugu eta ezin dugu kotxerik erosi.
3. Oso itsusia da eta ez zaio gustatuko.
4. Janari gozoa da eta pozik jango du amonak.
5. Berandu zen eta etxera joan behar genuen.
6. Indar handia du eta honek eramango ditu maletak.
7. Haserre dago eta gaur ez da etorriko.
8. Gaizki portatu zarete eta gauean ez duzue telebistarik ikusiko.
9. Kotxea puskatu zaio eta ezin da etorri.
10. Lan handia dugu eta ez gara jaialdira joango.

d) ETA... ERE BAI, ETA... ERE EZ.

Como bien sabes, **ere bai** y **ere ez** significan **también** y **tampoco** respectivamente. Su utilización nos permite suprimir en la segunda oración los elementos repetidos:

- Amak esan du hori eta aitak esan du hori.
→ Amak esan du hori, eta aitak **ere bai**.
(*Lo ha dicho la madre y también el padre*)
- Gurekin bazkaldu du eta gurekin afaldu du.
→ Gurekin bazkaldu du, eta afaldu **ere bai**.
(*Ha comido con nosotros y también ha cenado*)
- Neskak ederki kantatu du eta ederki dantzatu du.
→ Neskak ederki kantatu du, eta dantzatu **ere bai**.
(*La chica ha cantado muy bien y también bailado*)
- Ez dut jateko gogorik eta ez dut edateko gogorik.
→ Ez dut jateko gogorik, eta edateko **ere ez**.
(*No tengo ganas de comer y tampoco de beber*)
- Ez da agertu eta ez du deitu.
→ Ez da agertu, eta deitu **ere ez**.
(*No ha aparecido ni tampoco ha llamado*)
- Ez dio hitz egin nahi eta ez du ikusi nahi.
→ Ez dio hitz egin nahi, eta ikusi **ere ez**.
(*No quiere hablarle ni verle*)

● La conjunción **eta** fundida con **bai** y **ez** se convierte en **baita** y **ezta** con una función similar:

Amak esan du hori, **baita** aitak **ere**.
Gurekin bazkaldu du, **baita** afaldu **ere**.
Neskak ederki kantatu du, **baita** dantzatu **ere**.

Ez dut jateko gogorik, **ezta** edateko **ere**.
Ez da agertu, **ezta** deitu **ere**.
Ez dio hitz egin nahi, **ezta** ikusi **ere**.

● ARIKETAK

7. *Elkartu itzazu esaldi hauek eta ...ere bai erabiliz:*

1. Alberto joan da; Mikel joan da.
2. Etxe hau berria da; hori berria da.
3. Amona gaiso dago; aitona gaiso dago.
4. Arropak eraman ditu; liburuak eraman ditu.
5. Mireni erakutsi dizkiot argazkiak; Pellori erakutsi dizkiot.
6. Neska altxatu da; mutila altxatu da.
7. Isabelek farre egin du; Isabelek negar egin du.
8. Goiz joan naiz lantegira; goiz atera naiz.
9. Andreak soineko berria erosi du; andreak soinekoa ordaindu du.
10. Mendian ibili ginen; nekatu ginen.

8. *Koordina itzazu beste hauek eta ...ere ez erabiliz:*

1. Jon ez da etorri; Maite ez da etorri.
2. Ez dugu gosaldurik; ez dugu bazkaldu.
3. Herri hau ez da polita; beste hori ez da polita.
4. Ez dute esnea ekarri; ez dute ogia ekarri.
5. Ez diot inori esan; ez diot zure lagunari esan.
6. Osaba ez da jaiki; izeba ez da jaiki.
7. Nik ez daukat gogorik; Ferminek ez dauka gogorik.
8. Guk ez dakigu hori; zuek ez dakizue hori.
9. Inaziori ez zaio gustatu; niri ez zait gustatu.
10. Makina honek ez du asko balio; horrek ez du asko balio.

9. *Esaldi hauetan eta ...ere bai-ren ordezkiz baita ...ere erabili behar duzu.*

(En estas oraciones cambia eta ...ere bai por baita ...ere)

1. Aitor etorri zen eta Idoia ere bai.
2. Maritxuk gona erosi du eta frakak ere bai.
3. Asteartean bilera dugu eta ostegunean ere bai.
4. Gasolina bukatu zaigu eta dirua ere bai.
5. Bihar jai dugu eta etzi ere bai.

10. *Esaldi hauetan eta ...ere ez-en ordezkiz ezta ...ere erabili behar duzu.*

1. Ez du agertu nahi eta deitu ere ez.
2. Nik ez dut ezagutu eta zure anaiak ere ez.
3. Gaur ez gara lanera joango eta bihar ere ez.
4. Mutikoa ez da itsusia eta neskatxa ere ez.
5. Ez dugu haragirik eta arrainik ere ez.

GIZON SAIATUA

Senar-emazte bi medikuaren kontsultan agertzen dira. Gizonak gaiso itxura dakar eta andrearen besotik dator. Sendagilearen aurrean esertzen dira eta emaztea hasten da hizketan:

– Begira, jauna, nere gizonak sekulako depresioa du. Ez omen du bizitzeko gogorik. Egun osoan lanean pentsatzen ari da: ez du ezer jaten eta gauez ezin izaten du loak hartu.

Medikuak isilik begiratzen dio gizonari. Ondoren betaurrekoak kendu eta honela dio:

– Zure senarrak atsedena behar du eta distraitzea komeni zaio. Ba al du, adibidez, musikarako edo pintatzeko zaletasunik?

– Bai. Pintura asko gustatzen zaio. Gaztetan akuarelak egiten zituen.

– Horra, bada, zaletasun polita eta merkea... Bitamina batzuk ere aginduko dizkiot. Inportanteena, ordea, lanik ez egitea da: bakea, lasaitasuna behar du. Edozein lan oso kaltegarria litzateke zure gizonarentzat... Etorri zaitetze hurrengo hilean eta ikusiko dugu nola dabilen.

Senar-emazteak altxatzen dira eta agur esan ondoren sendagilearen etxetik irteten dira.

Hurrengo egunean sendagileak kalean ikusten du andrea:

– Ta? Zer moduz doa zure gizona? Hasi al da pintatzen?

– Bai. Gau osoa pasa du pintatzen eta berrehun akuarela egin ditu. Hospitalean dago orain leher eginda...

● GALDERAK

1. Nor agertzen da medikuaren kontsultan?
2. Itxura ona al du gizonak?
3. Gizona hasten al da hizketan?
4. Zer esaten dio andreak sendagileari? (*subord.*).
5. Zer galdegiten dio medikuak andreari? (*subord.*).
6. Zer erantzuten dio andreak? (*subord.*).
7. Zer da inportanteena gizonarentzat?
8. Noiz itzuli behar dute kontsultara?
9. Medikuak noiz ikusten du berriz andrea?
10. Zer galdetzen dio medikuak andreari? (*subord.*).
11. Zer erantzuten dio andreak? (*subord.*).

Saiatua: esforzado, empeñista; **sekulako:** enorme; **atseden:** descanso; **komeni zaio:** le conviene; **adibidez:** por ejemplo; **musikarako:** para la música; **zaletasun:** afición; **horra:** he ahí; **merke:** barato; **agindu:** mandar, ordenar; **inportanteena:** lo más importante; **lasaitasun:** tranquilidad; **kaltegarri:** perjudicial; **litzateke:** sería; **ta?: eta?;** **leher eginda:** reventado.

● OHARRAK

● PINTATZEKO ZALETASUNA MUSIKARAKO ZALETASUNA

A la pregunta **zertarako** (*para qué*) podemos responder con un verbo terminado en **-t(z)eko** o con un sustantivo terminado en **-rako**.

pintatzeko zaletasuna	<i>afición a pintar</i>
musikarako zaletasuna	<i>afición a la música</i>

El primer caso lo estudiaremos en el tema 11 de este curso. El segundo resulta de añadir el sufijo **-ko** al caso adlativo (**nora**), cuya declinación conocemos ya en singular y en plural.

● Ejemplos:

Tresna egokia lanerako
(*Herramienta adecuada para el trabajo*)

Ez gaude prest horretarako
(*No estamos dispuestos a eso*)

Azkenerako utziko dut
(*Lo dejaré para el final*)

● Tratándose de tiempo y lugar los interrogativos serían **noizko** (*para cuándo*) y **norako** (*para dónde*) respectivamente:

- | | |
|-------------------------------------|------------------------------------|
| – Noizko bukatuko duzu hori? | – <i>Para cuándo acabarás eso?</i> |
| – Arratsalderako | – <i>Para la tarde</i> |
| gauerako | <i>para la noche</i> |
| zazpietarako | <i>para las siete</i> |
| ostegunerako | <i>para el jueves</i> |
| – Norako bidea hartu du? | – <i>¿Qué camino ha tomado?</i> |
| – Etixerako bidea | – <i>El camino para casa</i> |
| herrirako bidea | <i>el camino para el pueblo</i> |
| harako bidea | <i>el camino para allá</i> |

2.- LA COORDINACION DISYUNTIVA: EDO, ALA

a) Cuando se coordinan dos ideas que dan lo mismo sin que se exija una opción entre ambas se emplea **edo**:

Gaezan, telebista ikusiko dut **edo** ohera joango naiz.
(*Por la noche veré la tele o me iré a la cama*)

Igandean zinera joango gara **edo** bestela kalean ibiliko gara.
(*El domingo iremos al cine o si no andaremos por la calle*)

Berdin zait eguraldi ona **edo** euria egitea.
(*Me da igual que haga buen tiempo o que llueva*)

b) Cuando se trata de una pregunta en cuya respuesta hay que optar por una u otra alternativa se emplea **ala**:

Mendira joango gara **ala** kalean ibiliko gara?
(*¿Iremos al monte o pasearemos por la calle?*)

Barrura sartuko zara **ala** kanpoan geldituko zara?
(*Entras dentro o te quedarás fuera?*)

Zer nahiago duzu, jan **ala** edan?
(*¿Qué prefieres, comer o beber?*)

c) Es muy frecuente dejar la pregunta cortada en **ala**, sin la segunda parte de la disyuntiva:

Gorra zaude, **ala**?
(*¿Estás sordo o qué?*)

Ez daude konforme **ala**?
(*¿No están conforme o qué?*)

Ez zaio gustatu **ala**?
(*¿Es que no le ha gustado o qué?*)

● ARIKETAK

11. *Esaldi hauek itzultzeko edo erabil ezazu:*

1. Hablaremos contigo o con tu hermano.
2. Iremos a la playa o al monte.
3. Lo suele arreglar él o si no lo lleva al garaje.
4. Llegaron el sábado o el domingo.
5. Ven en tren o en coche.

12. *Galdera hauek itzultzeko ala erabil ezazu:*

1. ¿Te quedarás ahí o vendrás con nosotros?
2. ¿Esto es tuyo o mío?
3. ¿Qué quieres? ¿Vino o agua?
4. ¿Qué ha sido? ¿Chico o chica?
5. ¿Lo compraste en Bilbao o en Londres?

3.- LA COORDINACION ADVERSATIVA: BAINA, ORDEA, BERRIZ, HALA ERE, BAIZIK

La coordinación adversativa se realiza principalmente por las partículas **baina** (*pero*), **ordea**, **berriz** (*pero, en cambio*) y **hala ere** (*sin embargo, no obstante*).

a) **BAINA** se coloca entre ambas oraciones:

(_____) BAINA (_____)

Etorri da **baina** ez dugu hitz egin.
(*Ha venido pero no hemos hablado*)

Ordua da **baina** ez da iritsi.
(*Es la hora pero no ha llegado*)

Deitu diot **baina** ez du erantzuten.
(*Le he llamado pero no contesta*)

b) **BERRIZ** aparece detrás del primer sintagma de la segunda oración:

(_____), (_____, BERRIZ, _____)

Fermin nafarra da, Arantxa, **berriz**, gipuzkoarra.
(*Fermín es navarro, Arantxa, en cambio, guipuzcoana*)

c) **ORDEA** puede aparecer tras el primer sintagma de la segunda oración o al final de ésta.

(_____), (_____, **ORDEA**, _____)
(_____), (_____ **ORDEA**)

Zuk asko dakizu, nik, **ordea**, ez dakit ezer.
(*Tú sabes mucho, yo en cambio no sé nada*)

Donostian bizi da, lana Hernanin egiten du **ordea**.
Donostian bizi da, lana, **ordea**, Hernanin egiten du.
(*Vive en San Sebastián pero trabaja en Hernani*)

d) **HALA ERE** puede aparecer en las mismas posiciones que **ordea**:

Garestia da, erosiko dugu **hala ere**.
(*Es caro, sin embargo lo compraremos*)

Pelotari bikaina da, **hala ere** ez du jokatu nahi.
Pelotari bikaina da, ez du jokatu nahi **hala ere**.
(*Es un excelente pelotari, sin embargo no quiere jugar*)

e) **BAIZIK** significa **sino (que)** y se coloca al final de la segunda oración. La primera suele ser negativa.

(_____), (_____ **BAIZIK**)

Kotxea ez zion saldu, utzi **baizik**.
(*No le vendió el coche sino que se lo prestó*)

Si la segunda frase es larga suele colocarse **baizik eta** al comienzo de ésta:

(_____), (**BAIZIK ETA** _____)

Kotxea ez zion saldu, **baizik eta** lagun handiak zirenez gero utzi egin zion.
(*No le vendió el coche, sino que como eran muy amigos se lo prestó*)

● ARIKETAK

13. *Esaldi hauetan ipini ezazu ordea baina-ren ordez.*

(En estas frases pon ordea en lugar de baina).

1. Irakasleak baietz esan du baina ikasleek ezetz.
2. Aldizkari hori egokia da baina oso garestia.
3. Etortzeko asmoa zuen baina ezin izan du.
4. Ni Markinakoa naiz baina Lourdes Bergarakoa.
5. Goizero joaten da lanera baina arratsaldean etxean gelditzen da.

14. *Erabil ezazu hala ere esaldi hauek itzultzeko.*

1. Es pequeño, sin embargo tiene mucha (gran) fuerza.
2. Todavía no han aparecido, sin embargo vendrán.
3. El Athletic está perdiendo, sin embargo ganará.
4. Es poco dinero, pero será suficiente.
5. Se ha resbalado y sin embargo no se ha caído.

15. *Itzul itzazu esaldi hauek baizik erabiliz:*

1. No somos hermanos sino amigos.
2. No viniste a pie sino en coche.
3. Eso no lo dijo Alfonso sino Iñaki.
4. No tomaré café caliente sino frío.
5. Eso no ocurrió el lunes sino el martes.
6. Arrate no anda con Koldo sino con Bernardo.
7. No se le ha perdido sino que se le ha olvidado.

HURRENGO ORRIALDEAN TARTALOREN IPUINA DUZU.
KONTATZEN IKAS EZAZU

TARTALO

Behin batean bi mutil gazte mendian zebiltzan eta euria hasi zuen. Handik hurbil kobazulo bat aurkitu zuten eta barrura sartu ziren babes bila. Koba barrua nahiko iluna zegoen eta hasieran ez zuten ezer ikusten. Berehala, ordea, ardi batzuk ikusi zituzten lurrean etzanda eta bazter batean gizon ikaragarri bat harri batean jarria. Eta gauza harrigarria: gizonak begi bakarra zuen bekokiaren erdian! Mutilak hura ikusirik beldurtu egin ziren eta kanpora irten nahi izan zuten. Gizonak, ordea, salto batean jaiki eta harri handi bat jarri zuen sarreran. Mutilak negarrez hasi ziren.

Gizonak sua piztu zuen. Gero mutil haietako bat hartu, burdina luze bat sartu zion alde batetik bestera eta sutan erre ondoren jaten hasi zen. Jaten ari zelarik atzera begiratu eta zati bat eskaini zion beste mutilari:

– Zati bat nahi al duzu? Gozoa dago zure laguna!

Mutila ikaratua zegoen bazter batean eta ezetz erantzun zion.

Halako batean, nahikoa jan eta edan ondoren lo geratu zen Tartalo. Tartalo bait zen gizonaren izena. Mutila, hura ikusirik, isil-isilik jaiki eta sarrerako harria mugitzen hasi zen, baina ezin zuen. Orduan burdina hartu zuen lurretik, sutan goritu zuen eta begitik sartu zion Tartalori. Tartalo oihuka esnatu zen eta itsututa mutilaren bila hasi zen. Mutila, ordea, ardien artean izkutatu zen eta ez zuen aurkitu.

Hurrengo goizean Tartalok sarrerako harria kendu zuen ardiak kanpora ateratzeko. Ardiak atera bitartean atean zegoen hankak zabalik eta ardiak azpitik pasatzen zirenean banan-banan ikutzen zituen denak. Mutilak hura ikusirik larru bat jantzi zuen bizkarrean eta ardien artean sartu zen. Tartalok ikutu zuenean ez zion igarri eta horrela irten zen kanpora. Kanpoan zenean farrez eta burlaka hasi zen mutila. Tartalok harri bat bota zion haserre baina ez zuen mutila jo.

Ipuin hau kontatzen dutenean honela esaten du orain Ataungo jendeak: “Tartalo, bertan jan ta bertan lo”.

● GALDERAK

1. Non zebiltzan mutilak euria hasi zuenean.
2. Urruti al zegoen kobazuloa?
3. Nor ikusi zuten koba barruan?
4. Zenbat begi zituen gizonak?
5. Zer egin zuten mutilek gizona ikusi zutenean?
6. Zer egin zuen gizonak sarrera ixteko?
7. Nola sartu zion gizonak burdina mutilari?
8. Zer eskaini zion gizonak beste mutilari?
9. Zer erantzun zion mutilak?
10. Noiz geratu zen lo Tartalo?
11. Mutilak ezin zuen harria mugitu. Zer egin zuen orduan?
12. Non izkutatu zen mutila?
13. Zertarako kendu zuen Tartalok sarrerako harria?
14. Nola zegoen Tartalo atean?
15. Zer jarri zuen mutilak bizkarrean?
16. Nola hasi zen mutila kanpoan zenean?
17. Zer egin zuen Tartalok orduan?
18. Zer esaten du orain Ataungo jendeak?

Handik hurbil: cerca de allí; **kobazulo:** cueva; **babes bila:** en busca de cobijo; **hasieran:** al comienzo; **baxter:** rincón; **ikaragarri:** terrible, grande; **bekoki:** frente; **hura ikusirik:** al verlo; **beldurtu:** asustarse; **sarrera:** entrada; **alde batetik bestera:** de una parte a otra; **sutan:** al fuego; **erre:** asar; **jaten ari zelarik:** cuando estaba comiendo; **zati:** trozo; **eskaini:** ofrecer; **ikaratu:** asustado, tembloroso; **goritu:** poner incandescente; **oihuka:** gritando; **esnatu:** despertarse; **itsututa:** cegado; **hankak zabalik:** con las piernas abiertas; **banan-banan:** una por una; **ikutu:** tocar; **larru:** piel; **bizkar:** espalda; **burlaka hasi:** empezar a burlarse.

● OHARRAK

● HURA IKUSITA HURA IKUSIRIK

En la página 118 hemos presentado una forma de hacer oraciones adverbiales por medio del morfema **-z** unido al participio: **ikusiz**, **hartuz**, etc.

Otra forma muy frecuente es añadir al participio las terminaciones **-ta** (**-da** tras **n** o **l**) o **-(r)ik**.

Hura **ikusita** beldurtu egin zen.
Hura **ikusirik** beldurtu egin zen.
(Al verlo se asustó)

Horrela **ibilita** ez duzu ezer lortuko.
(Andando así no conseguirás nada)

Lo **eginda** hobeto nago.
(Habiendo dormido estoy mejor)

La forma con **-z** (**ikusiz**) tiene un carácter más simultáneo que las terminadas en **-ik** o **-ta** (**ikusirik**, **ikusita**) respecto a la acción principal.

En cursos posteriores estudiaremos estas nominalizaciones con mayor detenimiento.

9. IKASKAIA

HORRELA DELA USTE DUT

HORRELA DELA USTE DUT

● LAS SUBORDINADAS SUSTANTIVAS: -(e)LA

El curso pasado adelantamos algunas nociones sobre subordinación que a partir de este tema trataremos más en detalle. Comenzaremos con la partícula **-(e)la**.

Esta partícula corresponde al **que** español de las subordinadas sustantivas. Tales oraciones funcionan generalmente como objeto directo (Pedro dice **que hace buen tiempo**), aunque también pueden cumplir funciones de sujeto (es verdad **que no tiene dinero**).

1.- Paradigma "naiz"

Las formas del presente **naiz** terminan todas en **-ela**:

naiz	→	naizela
zara	→	zarela
da	→	dela
gara	→	garela
zarete	→	zaretela
dira	→	direla

● Ejemplos:

Horrelakoa **naizela** uste al duzu?
Oso azkarra **zarela** esan dute.
Bera izen **dela** aitortu du.
Badakite Donostian izan **garela**.
Elkarrekin ibiltzen **zaretela**
entzun dugu.
Badirudi prezioak igoko **direla**.

¿Crees que soy así?
Han dicho que eres muy listo.
Ha confesado que ha sido él.
Sabén que hemos estado en S. Sebastián.
Hemos oído que soléis andar juntos.
Parece que subirán los precios.

- He aquí una serie de verbos conocidos ya en su mayoría y que pueden aparecer en la oración principal de los ejercicios que vienen a continuación. Apréndelos.

esan: decir
entzun: oír
aditu: oír, entender
erantzun: responder
ulertu: entender
jakin: saber, enterarse
irakurri: leer
ikusi: ver
erakutsi: enseñar, mostrar, demostrar
adierazi: expresar, comunicar, dar a entender
aitortu: confesar, reconocer
sumatu: notar, percibir
nabaritu: notar, percibir
uste izan: creer (opinar)
iruditu: parecer

1. Parece (que) puede expresarse por medio de **(ba)dirudi** y **ematen du**.

Badirudi, como todas las formas que llevan el morfema afirmativo **ba-**, puede ir al comienzo de la oración, **dirudi**, sin embargo, no.

“Parece que está bien” puede decirse de las siguientes maneras:

Badirudi ondo dagoela.
Ondo dagoela **dirudi**.
Ondo dagoela **ematen du**.

2. Recuerda que hay una forma sintética correspondiente a **esan** (pág. 107): **diot, diozu, dio**, etc...

Ondo dagoela **dio**.
(Dice que está bien)

● ARIKETAK

1. *Subordina la primera oración como completiva de la segunda en lugar de los puntos, como en el siguiente ejemplo:*

Hura Maite da; ... uste dut.
→ Hura Maite dela uste dut.

- 1.- Ni alferra naiz; ... esan duzu.
- 2.- Bihurria zara; jendeak ... esaten du.
- 3.- Bera izan da; lapurrak ... aitortu du.
- 4.- Tabakoa neretzat kaltegarria da; ... sumatu dut.
- 5.- Liburu hauek bikainak dira; irakasleak ... dio.
- 6.- Norbait etorri da; ... nabaritu dut.
- 7.- Tontoa zara; ... dirudi.
- 8.- Gauzak konpontzen ari dira; badirudi ...
- 9.- Oso trebeak zarete; ... erakutsi duzue.
- 10.- Negua luzea izango da; ... esan du telebistak.
- 11.- Mutilak lanean ari dira; ... uste dut.
- 12.- Erantzuna ez da egokia izan; ... adierazi diot Pellori.
- 13.- Hori ezin da horrela egin; ... aitortu behar dugu.
- 14.- Anai-arrebak zarete; Martinek ... ulertu du.

2. *Itzul itzazu esaldi hauek:*

- 1.- Hemos oído que sois amigos de Loli.
- 2.- Han visto que hemos venido tarde.
- 3.- Hemos sabido que ahora vives en Eibar.
- 4.- Han respondido que saldrán enseguida.
- 5.- He leído que se ha muerto la tía de Koldo.
- 6.- Mis padres creen que hemos ido a Bilbao.
- 7.- La radio ha dicho que el mes que viene subirá la gasolina.
- 8.- Dicen que eres muy trabajador.
- 9.- Le he dicho que iremos mañana.
- 10.- Juncal ha dicho que esas flores son para nosotros.
- 11.- He notado que ha entrado alguien.
- 12.- Hemos de reconocer que eso es así.
- 13.- Han demostrado que son muy listos.
- 14.- Me ha parecido que se ha caído algo.

2.- Paradigma "dut"

El paradigma de **dut** sufre las siguientes transformaciones:

dut	→	dudala
duzu	→	duzula
du	→	duela
dugu	→	dugula
duzue	→	duzuela
dute	→	dutela

Las formas correspondientes al objeto plural sufren idéntica transformación: **ditudala, dituzula, dituela, etc...**

● Ejemplos:

Entzun dudala esan dut	He dicho que ya he oído
Badirudi suerte handia duzula	Parece (ser) que tienes mucha suerte
Honek egin duela uste dugu	Creemos que lo ha hecho éste
Ez ditugula nahi adierazi diot	Le he manifestado que no los queremos
Badakigu irabaziko duzuela	Sabemos que ganaréis
Indarra dutela erakutsi dute	Han demostrado que tienen fuerza

3. Sartu ezazu lehenengo esaldia bigarrenean -(e)la erabiliz:

- 1.- Asmatu duzu; ... uste dut.
- 2.- Atsedena behar du; aitonak ... esan du.
- 3.- Ebaristok kotxe berria erosi du; ... entzun dugu.
- 4.- Arazo horrek garrantzi handia du; ... adierazi diot.
- 5.- Zuk jasoko duzu dirua; hauek ... diote.
- 6.- Ez dugu lan egiteko gogorik; ... aitortu behar dugu.
- 7.- Ez duzue ezer ulertu; badirudi ...
- 8.- Janariak ez du gatzik behar; ... esan du izebak.
- 9.- Gaur hotz handia egiten du; ... nabaritu dut.
- 10.- Ez dute deituko; lagunek ... adierazi dute.
- 11.- Guk ezin dugu horrelakorik egin; ... erantzun diogu nagusiari.
- 12.- Euria egingo du; ... ematen du.
- 13.- Nik ez ditut landareak ikutu; ... esan diot amari.
- 14.- Zapatak zikindu dituzu; ez al duzu ikusi ...?
- 15.- Atea zabalik utzi dute; ... sumatzen da.
- 16.- Oporrak izango ditugu; ... entzun diot irakasleari.
- 17.- Istripu bat izan duzu; ... jakin dugu.
- 18.- Guk ekarriko ditugu ogiak; ... adierazi diot amari.

4. Eman itzazu esaldi hauek euskaraz:

- 1.- He dicho que quiero agua.
- 2.- Creo que tienes frío.
- 3.- Le hemos respondido que eso vale poco.
- 4.- Sabes que hemos terminado el trabajo.
- 5.- Hemos oído que habéis comprado una casa nueva.
- 6.- He notado que hoy hace calor.
- 7.- Han dicho que necesitan luz.
- 8.- Le he dicho que llevaremos las cosas por la tarde.
- 9.- Ha dado a entender que tiene poco dinero.
- 10.- Parece que tienes cinco años.
- 11.- He visto que tenéis libros nuevos.
- 12.- Le he respondido que tengo ganas de comer.
- 13.- Ha reconocido que necesita gafas.
- 14.- Me parece que has hecho muy mal.

IRAKUR ITZAZU TXISTEAK ETA ERANTZUN GALDEREI

HUMOREA

● BIGARRENA

Jontxo alfer samarra da eskolan eta nota txarrak ekartzen omen ditu beti. Azkena izaten omen da gehienetan. Gaur, berriz, saltoka sartu da etxean, aitari musu eman eta honela esaten dio:

- Aitatxo! Badakizu bigarrena naizela eskolan?
- Zorionak, seme! Eta nola gertatu da hori?
- Gaur Ibon eta biok bakarrik egon garelako. Besteek gripea harrapatu dute.

- 1.– *Nolakoa da Jontxo eskolan?*
- 2.– *Nolakoak izaten dira Jontxoren notak?*
- 3.– *Zenbakarrena izaten da eskolan?*
- 4.– *Nola etorri da gaur etxera?*
- 5.– *Zenbakarrena dela esan dio aitari?*
- 6.– *Zer galdetu dio aitak? (subord.)*
- 7.– *Zer dute beste ikasleek?*

● ORDU DESEGOKIA

Gizon bat medikuaren etxean agertzen da estu eta larri. Berandu da eta medikua haserretu egiten zaio:

- Zer! Orain al zatoz kontsultara? Ez al duzu irakurri atean lauetatik bostetara dela?
- Bai. Baina zure zakurrak ez daki irakurtzen eta seiak eta laurdenetan egin dit hozka...

- 1.– *Nola agertu da gizona medikuaren etxean?*
- 2.– *Ondo hartu al du medikuak?*
- 3.– *Zein dira kontsulta orduak?*
- 4.– *Gizonari, noren zakurrak egin dio hozka?*
- 5.– *Ze ordutan?*

● ETXE BERRIA

Bi lagun hizketan ari dira:

- Badakizu Dionisiok etxe berria erosi duela?
- Bai? Eta nolakoa?
- Zaharra...

1.– Zertan ari dira bi lagunak?

2.– Nolakoa da Dionisioren etxe berria?

● PENA HANDIA

Senarra ohean dago. Hiltzen ari da eta berak badaki. Begiak irekitzen ditu eta ahots ahulez galdetzen dio andreari:

- Kasimira, negar egingo al duzu hiltzen naizenean?
- Jakina! Badakizu negar handia egiten dudala edozein huskeriagatik...

1.– Nola dago senarra?

2.– Nor dago senarraren ondoan?

3.– Zer egingo du andreak senarra hiltzen denean?

● HANKA BIAK

Manuel ohean dago eta lagun bat etorri zaio bisitatzera:

- Zorionak, Manuell
- Zergatik?
- Medikuak hanka bat kanposantuan duzula esan du, baina oraindik biak hemen dituzula ikusten dut eta...

1.– Zertara etorri zaio laguna Manueli?

2.– Zer esan du medikuak?

3.– Zer ikusi du lagunak?

1.– **Musu eman:** besar.

2.– **Desegoki:** inadecuado; **estu ta larri:** apurado; **hozka egin:** morder.

4.– **Ahots ahulez:** con voz débil; **edozein huskeriagatik:** por cualquier tontería.

5.– **Kanposantu:** cementerio.

3.- Paradigma nor-nori-nork: diot

Este paradigma ofrece las siguientes transformaciones:

diot	→	diodala
diozu	→	diozula
dio	→	diola
diogu	→	diogula
diozue	→	diozuela
diote	→	diotela

Las formas con objeto plural tienen las mismas terminaciones: **dizkiodala, dizkiozula, dizkiola**, etc...

5. Sartu ezazu lehenengo esaldia bigarrenean -(e)la erabiliz:

- 1.- Realak Osasunari irabaziko dio; ... uste dugu.
- 2.- Neskak mutilari zerbait esan dio; ... nabaritu dut.
- 3.- Esneari ura botatzen dio; andreak ... aitortu du.
- 4.- Operazioa seguruak ordainduko dio; medikuak ... erantzun dio gaisoari.
- 5.- Ez dio hori barkatuko; Robertok ... esan dio Alfontsoni.
- 6.- Mutikoek gaizki erantzun diote izebari; ... iruditu zait.
- 7.- Amari ez diote ezer esan; badirudi ...
- 8.- Zure arrebari opari bat egingo diote; ... entzun dugu.
- 9.- Eduardori lan berri bat eskaini diote; ... jakin dugu.
- 10.- Etzi eramango dizkiot paperak; ... adierazi diot osabari.
- 11.- Lagunari atea ireki diot; ... ikusi dute.
- 12.- Gezurra esan diozu; Iñigok ... uste du.
- 13.- Dirua eskatuko diogu; aitzak badaki ...
- 14.- Kotxea utziko diozue; Lurdesek ... ulertu du.
- 15.- Ez diozue etxea saldu nahi; Isidro ... esaten ari da.

6. Eman itzazu esaldi hauek euskaraz:

- 1.- Hemos visto que le ha traído una cosa.
- 2.- Isabel dice que le he quitado un libro.
- 3.- Creo que le has respondido mal.
- 4.- El tío ha dicho que le tenéis que decir la verdad.
- 5.- Los médicos dicen que no le encuentran nada a tu padre.
- 6.- José ha visto que le hemos cerrado la puerta.
- 7.- ¿Crees que se lo he dicho yo?
- 8.- Dice que le has tirado una piedra.
- 9.- Iñaki dice que nadie le ha dicho nada.
- 10.- Le hemos dicho que le subiremos los periódicos.

4.- Paradigma nor-nori: zait

Las transformaciones son similares a las del paradigma anterior:

zait	→	zaidala
zaizu	→	zaizula
zaio	→	zaiola
zaigu	→	zaigula
zaizue	→	zaizuela
zaie	→	zaiela

Tales terminaciones no varían si el elemento **nor** (el sujeto) es plural: **zaizkidala, zaizkizula, zaizkiola, etc...**

7. *Sar ezazu lehen esaldia bigarrenean:*

- 1.- Kartera galdu zaio; Eurnek ... esan du.
- 2.- Liburua ekartzea ahaztu zaio; ikasleak ... esan du.
- 3.- Dirua bukatu zaio; lagunak ... aitortu du.
- 4.- Bere poesia asko gustatu zait; ... adierazi diot Gabrieli.
- 5.- Soinekoa oso merkea iruditu zait; ... esan diot arrebari.
- 6.- Zerbait okerra gertatu zaizu; berehala nabaritu dut ...
- 7.- Aitona hil zaizu; ... entzun dut.
- 8.- Kotxea bide erdian gelditu zaigu; ... esango diogu nagusiari.
- 9.- Asmo hori egokia iruditu zaigu; ... adierazi diot Rikardori.
- 10.- Bihar iritsiko zaizue eskutitza; izebak ... esan du.
- 11.- Laguntza hori ondo etorriko zaie; langileek ... uste dute.
- 12.- Oso argazki politak atera zaizkizu; ... ikusi dut.
- 13.- Nagusia haserretu egin zaio; Idoiak ... esan du.
- 14.- Alkateari etxean lapurrak sartu zaizkio; ... irakurri dugu.

8. *Eman itzazu esaldi hauek euskaraz:*

- 1.- Parece que tu respuesta no le ha gustado a Miren.
- 2.- Creo que se me ha metido una piedra en el zapato.
- 3.- Le hemos comunicado a Koldo que eso no te parece bien.
- 4.- Tu madre ya sabe que se nos ha acabado el pan.
- 5.- Creemos que se os ha olvidado algo.
- 6.- Han dicho que ese dinero les vendrá bien.

5.- Sintéticos intransitivos: nago, nabil, nator, noa

Estas formas acaban todas en **-ela**, salvo las terminadas en **-a**: **zabiltza(la), gabiltza(la), dabiltza(la); noa(la), doa(la)**.

nagoela	nabilela	natorrela	noala
zaudela	zabiltzala	zatozela	zoazela
dagoela	dabilela	datorrela	doala
gaudela	gabiltzala	gatozela	goazela
zaudetela	zabiltzatela	zatoztela	zoaztela
daudela	dabiltzala	datozela	doazela

9. *Sar ezazu lehen esaldia bigarreanean:*

- 1.- Hori gaizki egina dago; ... aitortu behar duzu.
- 2.- Eguraldi ona dago; ... ematen du.
- 3.- Arazoa konpondua dago; ... adierazi dute.
- 4.- Zopa gazia dago; ... dirudi.
- 5.- Partidua irabazia dago; ... uste dugu.
- 6.- Aspertu samarra nago; ... erantzun diot Garbiñeri.
- 7.- Ez nago horregatik haserre; jakin ezazu ...
- 8.- Triste zaude; ... nabaritu dut.
- 9.- Ederki gaude hemen; ... esan diot adiskideari.
- 10.- Ez gaude konforme horrekin; ... erakutsi behar dugu.
- 11.- Gure zain zaudete; ... ulertu dugu.
- 12.- Beldurturik zaudete; ... aitor ezazue.
- 13.- Horko leihoak zabalik daude; ... sumatu dut.
- 14.- Haurrak lo daude; ... ematen du.
- 15.- Gaur jende asko dabil kalean; ... ikusi dugu.
- 16.- Aurten hobeto nabil; ... uste dut.
- 17.- Oker zabiltza; ... ulertu behar duzu.
- 18.- Mozkortua zabiltza; ... ematen du.
- 19.- Pozik dabiltza eskola horretan; ikasleek ... aitortu dute.
- 20.- Berandu nator gaur; badakit ...
- 21.- Nerekin hitz egitera zatoz; ... ulertu dizut.
- 22.- Haize hotza dator; ... nabaritu dut.
- 23.- Autobusa bete-betea dator; ... ematen du.
- 24.- Etsaiak handik datoz; ... esan dute.
- 25.- Gaur ez noa afaltzera; ... adierazi diot Feliperi.
- 26.- Haurra ekartzera doa; Inesek ... esan du.
- 27.- Gu ez goaz dirua eskatzera; badakite ...
- 28.- Gauzak bide zuzenetik doaz; ... uste dugu.
- 29.- Politika arazoak gaizki doaz; ... irakurri dut.

10. Itzul ezazu:

- 1.– Le he dicho a Sebastián que estoy muy cansado.
- 2.– ¿Te parece que eso está bien?
- 3.– Parece que estás enfadado.
- 4.– Creo que tus libros están en aquella mesa.
- 5.– Veo que andáis temprano.
- 6.– Creo que este reloj anda mal.
- 7.– Eso señores dicen que vienen a hablar contigo.
- 8.– Hemos visto que los ríos vienen muy sucios.
- 9.– El abuelo ha dicho que se va a la calle.
- 10.– Le he comunicado que vamos a su casa.
- 11.– Hemos de confesar que las cosas van bastante mal.

HUMOREA

● ERO ETXEAN

Gizon bat eta emakume bat eztabaida gogorrean ari dira ero etxean. Medikua hurbiltzen da eta galdetzen du:

– Zer gertatzen da hemen? Zergatik ari zarete eztabaidan?

Eta emakumeak erantzun:

- Gizon honek Napoleon dela esaten du.
- Bai. Eta...?
- Burutik dagoela, jauna. Ni Josefina bait naiz eta ez dut inondik ezagutzen!

● FAKULTATEAN

Toribio medizina ikasten ari da eta gaur azterketa du. Tribunalak galdetzen dio:

- Esan! Noiz jakiten dugu gaiso bat oso larri dagoela?
- Hiltzen denean...

- 1.– **Ero:** loco; **ero etxe:** manicomio; **eztabaida:** discusión; **inondik ez:** de ninguna parte, de nada.
2.– **Azterketa:** examen.

6.- Sintéticos transitivos: dakit, daukat, dakart, daramat.

1.- Habrás observado que los morfemas **-t, -zu, -gu** al subordinar se transforman en **-dala, -zula y -gula** respectivamente.

2.- El resto de las formas hacen en **-ela**, salvo dos terminadas en **-a, dauka(la) y darama(la)**.

dakidala	daukadala	dakardala	daramadala
dakizula	daukazula	dakarzula	daramazula
dakiela	daukala	dakarrela	daramala
dakigula	daukagula	dakargula	daramagula
dakizuela	daukazuela	dakarzuela	daramazuela
dakitela	daukatela	dakartela	daramatela

3.- El que haya objeto plural no afecta a estas terminaciones.

11. *Sar ezazu lehenengo esaldia bigarrean -(e)la erabiliz.*

1.- Gazte horrek asko daki; ... iruditu zait.

2.- Andonik ez daki bakarrik ibiltzen; badirudi ...

3.- Nik dena dakit; ... uste duzu, ala?

4.- Kimika asko dakizu; irakasleak ... esan du.

5.- Ederki dakizu frantsesez; zuk ... erakutsi duzu.

6.- Guk ez dakigu ezer; ... aitortu behar dugu.

7.- Zuek gehiegi dakizue; ... nabaritu dut.

8.- Agure horrek diru asko dauka; ... esaten du jendeak.

9.- Haragiak ez dauka gatzik; ... sumatu dut.

10.- Paperak bulegoan dauzkat; ... uste dut.

11.- Nerea bezalako erlojua daukazu; ... ikusi dut.

12.- Bihotz handia daukazu; ... erakutsi behar duzu.

13.- Gaur ez daukagu lan handirik; ... erantzun diot nagusiari.

14.- Ez daukazue hitz egiteko gogorik; ... nabaritu dut.

15.- Ibaiak ur zikina dakar; ... ikusi dugu.

16.- Berri hori gaurko egunkariek dakarte; ... esan du Maitek.

17.- Asmo onak dakartzazu bilerara; ... entzun dugu.

18.- Gizon horrek denbora luzea darama zure zain; jakin ezazu ...

19.- Kamioi gorri hark bonbonak daramatza; ... esan dute.

20.- Pisu handiegia daramazu boltsan; ... iruditu zait.

12. Itzul itzazu esaldi hauek:

- 1.- Hemos oído que Begoña sabe muy bien euskera.
- 2.- Estos chicos han demostrado que saben hacer las cosas.
- 3.- Ya sé que sabes que no sé nada.
- 4.- Elena ha respondido que tiene el libro en su habitación.
- 5.- He notado que tienes mala cara.
- 6.- Creo que tengo el zapato suelto.
- 7.- Me ha parecido que estas chicas tienen pelo corto.
- 8.- Creo que traes poco dinero.
- 9.- Dicen que traen la madera de aquellos montes.
- 10.- Nos ha parecido que ése lleva un palo.

HUMOREA

● BI ERO

- Karta honek pisu gehiegi daukala uste dut...
- Seilua kenduko diogu, nahi baduzu...

● EZIN URTEAK JAKIN

Andre batek haurtxo bat ikusten du kalean eta goxoki bat emanaz honela galdetzen dio:

- Esan, mutiko. Zenbat urte dituzu?
- Ez dakit...
- Ez dakizula?
- Ez, andrea. Aitatzorekin noanean sei ditudala esaten du berak. Amatzok, berriz, bost esaten du. Eta trenean goazenean hiru ditudala esaten dute biek...

● ANDEREÑO EZJAKINA

- Andereñoak ez dakiela irakurtzen uste dut...
- Zergatik diozu hori?
- Arbelean idazten duenean guk irakurtzeko esaten duelako...

Andereño: señorita, profesora; ezjakin: ignorante; arbel: pizarra.

7.- Las formas de pasado: nintzen, nuen.

Las formas de pasado pierden la -n final y terminan todas en -ela.

nintzela	nuela	nituela
zinela	zenuela	zenituela
zela	zuela	zituela
ginela	genuela	genituela
zinetela	zenutela	zenituztela
zirela	zutela	zituztela

En estos ejercicios introducimos dos nuevos verbos que debes conocer: **oroitu** y **gogoratu**, que significan **recordar, acordarse**.

13. *Aurreko ariketetan bezala, sar ezazu lehenengo esaldia bigarrean -ela erabiliz:*

- 1.- Ostiraleko afaria oso merkea izan zen; ... uste dugu.
- 2.- Herenegun ez zen klaserik izan; badirudi ...
- 3.- Hernanin istripu bat izan zen; ... ekarri dute egunkariak.
- 4.- Atzoko pelikula oso aspergarria izan zen; ... esan dute.
- 5.- Itsasoan ibili ziren; arrantzaleek ... diote.
- 6.- Gasteiza joan nintzen; izebari ... esango diot.
- 7.- Txikitan oso bihurria zinen; ... entzun dugu.
- 8.- Larunbatean Elisarekin ibili zinen; badakigu ...
- 9.- Igazko oporretan kanpoan izan ginen; oroitzen naiz ...
- 10.- Berandu arte aritu zineten hizketan; jakin dugu ...
- 11.- Ez zuen eskolarik; haurrak ... esan zuen.
- 12.- Ez zuen dirurik behar; Andonik ... adierazi zuen.
- 13.- Robertok erabili zuen kotxea; ... gogoratzen naiz.
- 14.- Ezin zuen horrelakorik sinistu; Xabierrek ... esan zuen.
- 15.- Ez zuen lanerako gogorik; ... erantzun zuen Silviak.
- 16.- Beldur handia pasa zuten; mutilek ... aitortu dute.
- 17.- Jaialdia auzoko gazteek antolatu zuten; ... irakurri dugu.
- 18.- Gauza haiek garrantzi handia zuten; ... jakin ezazue.
- 19.- Denda hartan erloju bat erosi nuen; ... oroitzen naiz.
- 20.- Nik ez nuen inor ezagutzen; bilera hartan ... esan nuen.
- 21.- Klean ibiltzeko gogoaz zenuen; zuk ... adierazi zenuen.
- 22.- Zuk kafesne beroa eskatu zenuen; ... gogoratzen naiz.
- 23.- Ez genuen ezer ikasi; irakasleak ... erantzun zuen.
- 24.- Giltza galdu zenuten; zuek ... esan zenuten.

- 25.– Atzoko haizeak zuhaitz asko bota zituen; ... esan du irratiak.
- 26.– Etxe haiek nere osaba batek egin zituen; ... uste dut.
- 27.– Asmo onak zituzten; gazteek ... erakutsi zuten.
- 28.– Haur hauek bota zituzten harriak; ... esan dute.
- 29.– Zure gurasoak Donostian ezagutu nituen; ... uste dut.
- 30.– Horrelako gauzak aipatu zenituen; ... oroitzen naiz.
- 31.– Etxera eraman genituen liburuak; ... esan diot Nekaneri.
- 32.– Argazkiak zuek jaso zenituzten; ... dio Junkalek.
- 33.– Ontziak garbitu gabe utzi zenituzten; amak ... esan du.
- 34.– Zure gauzak ez zituen inork ikutu; jakin ezazu ...
- 35.– Azkenenak ez zituzten lapurrak harrapatu; ... irakurri dugu.

14. *Eman itzazu euskaraz esaldi hauek:*

- 1.– Creo que tu hermano estuvo ayer aquí.
- 2.– Tus amigos dicen que no vinieron aquel día.
- 3.– Mis padres dicen que yo no era muy formal.
- 4.– Recuerdo que tú eras bastante gordo.
- 5.– He respondido que nosotros llegamos tarde.
- 6.– Le he comunicado que no estuvisteis en la reunión.
- 7.– Martín dice que le vio a Ander en la oficina.
- 8.– Estas dicen que cenaron contigo.
- 9.– Creo que (me) dejé el paraguas en vuestra casa.
- 10.– Confieso que hice mal.
- 11.– ¿Dices que eso lo compraste en Bilbao?
- 12.– Hemos confesado que nosotros no vimos nada.
- 13.– Vosotros decís que abristeis la puerta.
- 14.– Recuerdo que las revistas (se) las llevó aquella señora.
- 15.– Dicen que vieron a tus hermanos en Marquina.
- 16.– Le he comunicado que recogí los papeles.
- 17.– Han respondido que debías haber traído las botellas.
- 18.– He dicho que nosotros no les conocimos.
- 19.– ¿Es verdad que rompiste los platos?

HUMOREA

● BI GOR

Bi gorrek elkarrekin topo egiten dute. Batak bestea bizkarrean jo eta esaten dio:

- Kaixo! Zu Atanasio Ibarguren zara, ezta?
- Ez. Konfunditu egin zara. Ni Atanasio Ibarguren naiz...
- A! Barkatu! Atanasio Ibarguren zinela uste nuen...

● TXERRIAREN ANTZA

Herri koskor batean gizon batzuk eguzkitan paseatzen ari dira eta bazter batean txerri bat ikusten dute.

- Haral! –esaten du batek farrez–. Txerri horrek alkatearen antza du!!

Eta farre egiten dute besteek ere.

Dirudienez haietako bat alkatearen laguna zen eta dena kontatu zion. Hurrengo egunean alkateak topo egiten du gizon horrekin eta esaten dio haserre:


- Aizu! Txerri baten antza dudala esan omen zenuen atzo. Egia ote da hori? Horrela baldin bada, multa bat jarriko dizut!
- Ez, jauna! Nik ez nuen horrelakorik esan! Nik txerriak zuela zure antza esan nuen, eta inor haserretzekotan hark haserretu behar zuen!

1.– **Gor**: sordo; **topo egin**: encontrarse con alguien.

2.– **Txerri**: cerdo; **koskor**: pequeño; **eguzkitan**: al sol; **inor haserretzekotan**: de enfadarse alguien.

HURRENGO ELKARRIZKETA BURUZ IKASI EZAZU.
ITZULPENA ERANTZUNETAN DATOR.
GOGORATZEKO 186. ORRIALDEA ERABIL EZAZU.

● KANPOAN NAGOELA ESAIOZU



● IRAKURGAIA

Nikolas futbolzale amorratua da, izugarri gustatzen zaio futbola. Gaur arratsaldean Athletic eta Realaren arteko partidua emango dute telebistan eta ez du inola ere galdu nahi. Horretarako, goizean, lantokira joan denean, lehengusu bat hil zaiola esan dio enkargatuari, eta arratsaldean lehenago ateratzea komeni zaiola elizkizunetara joateko. Enkargatuak asko sentitzen duela erantzun dio eta baietz, lasai joateko behar duenean. Poz izugarria hartu du Nikolasek horrekin eta saltoka hasteko gogoia izan du, baina bada-ezpada ere aurpegi tristea jarri du eta eskerrak eman dizkio enkargatuari.

Arratsaldean gorbata beltza jantzi du eta horrela joan da lantokira. Oso luzea iruditu zaio arratsaldea. Lan gutxi egin du eta denbora gehiena erlojuari begira pasa du. Bostetan lana utzi eta kanpora atera da. Korrika joan da etxera eta sartu denean gorbata beltza kendu eta zapatilak jantzi ditu. Koinak botila hartu, puro handi bat piztu du eta telebistaren aurrean eseri da.

Partiduaren lehen zatia nahiko aspergarria izan da, bigarren zatiko hamargarren minutuan, ordea, Athletic-ek gol bat sartu du eta Real erasoan hasi da oso gogor. Aukera ederrak izan ditu gola sartzeko baina oraindik ez du lortu. San Mamesko giroa bero-bero dago. Nikolas ere oso urduri dago.

Halako batean tinbreak jo du. Nikolasek ez du butakatik jaiki nahi eta Josetxori, semeari, esan dio atea irekitzeko:

– Zoaz irekitzera, ama izango da eta.

Ireki du Josetxok atea eta ez zen ama, gizon bat baizik:

– Arratsaldeon, mutiko. Aitatxo etxean al da? –galdetu dio.

Josetxok baietz erantzun dio, aita etxean dela baina partidua ikusten ari dela. Gizonak, aitarekin hitz egin nahi duela esan dio:

– Esaiozu ateratzeko, mesedez. Berarekin hitz egin nahi dudala.

Josetxo aitarengana joan da:

– Aitatxo, gizon bat etorri da eta zurekin hitz egin nahi duela esan du...

– Kaka zaharra! Momentu ederrean etorri da! –erantzun dio aitak haserre–. Kanpoan nagoela esaiozu eta berandu etorriko naizela!

Jose txo gizonarengana itzuli eta honela esan dio:

– Aitaren partetik kanpoan dagoela eta berandu etorriko dela.

Eta atea itxi dio.

● GALDERAK

- 1.– Zein da Nikolasen zaletasuna?
- 2.– Zer emango dute gaur telebistan?
- 3.– Zer esan dio Nikolasek enkargatuari?
- 4.– Zer erantzun dio enkargatuak?
- 5.– Zer sentitu du orduan Nikolasek?
- 6.– Arratsaldean, zer eraman du Nikolasek lantokira?
- 7.– Motza iruditut al zaio arratsaldea?
- 8.– Nola pasa du denbora gehiena?
- 9.– Zer egin du etxean sartu denean?
- 10.– Nolakoa izan da partiduen lehen zatia?
- 11.– Noiz sartu du gola Athletic-ek?
- 12.– Nola hasi da Realak orduan?
- 13.– Realak golik sartu al du?
- 14.– Lasai al dago Nikolas?
- 15.– Tinbreak jo duenean, berehala jaiki al da Nikolas?
- 16.– Zer galdetu dio gizonak Josetxori? (subord.)
- 17.– Zer erantzun dio Josetxok gizonari?
- 18.– Zer esan dio Josetxok aitari? (subord.)
- 19.– Zer esan dio Josetxok gizonari?

Futbolzale: aficionado al fútbol; **amorratu:** rabioso, acérrimo; **inola ere ez:** de ninguna manera; **horretarako:** para eso; **lehengusu:** primo; **elizkizun:** función religiosa; **denbora gehiena:** la mayor parte del tiempo; **eraso:** ataque; **aukera:** oportunidad; **lortu:** conseguir; **giro:** ambiente; **urduri:** nervioso; **aitarengana:** a donde su padre.

HURRENGO IPUINA BURUZ IKASI BEHAR DUZU

KATU BELTZA

Martxelo urrutiko baserri batean bizi zen. Behartsua jaio eta behartsu bizi zen Martxelo. Bazuen, hala ere, baratza bat eta harekin bizitzeko nahikoa ateratzen zuen. Goizean herriko azokara jaisten zen barazkiak saltzera eta arratsaldean lan egiten zuen bere baratzatxoan. Abererik ere ez zuen eta esnea herritik ekartzen zuen egunero.

Egun beroak ziren haiek eta esnea toki freskoan edukitzearen leihora ateratzen zuen esne ontzia gauero.

Goiz batean, ordea, esnea hartzera joan zenean ontzia erdi hustua zegoela konturatu zen.

–Ze arraio gertatu ote da hemen! –esan zuen–. Ontzia bete-betea utzi nuen atzo eta orain erdiraino ere ez da iristen!

Harritua zegoen Martxelo...

Hurrengo goizean berdin gertatu zitzaion, eta hurrengoan ere berdin. Gizona kezkatua zegoen eta misterio hura argitzea erabaki zuen:

–Norbait dabil hemen adarra jotzen eta aspertua nago. Gaur bertan jakin behar dut zein den lapurra! Gauean ez naiz oheratuko eta zain geldituko naiz leiho ondoan!

Horrela, bada, egunero bezala leihora atera zuen esne ontzia eta bera barruan geratu zen argia itzalita. Ilargi bete zegoen eta ederki ikusten zuen etxe ingurua.

Hamabiak aldean katu beltz bat sumatu zuen isil-isilik baratzan sartzen. Katua salto batez leihora igo eta esnea edaten hasi zen. Martxelok orduan makila bat hartu eta kolpe izugarri bat eman zion aurreko hanka batean. Une hartan emakume baten garrasia entzun zuen Martxelok eta katuak ihes egin zuen.

Biharamonean aldameneko atsoak zapi batez lotua zeukan besoa eta berak eskaileretan erori zela esaten zuen. Martxelok, ordea, bazekien hura gezurra zela eta emakume hura sorgina zela. Ez zion, hala ere, inori esan...

● GALDERAK

- 1.– Non bizi zen Martxelo?
- 2.– Non egiten zuen lana?
- 3.– Ba al zuen behirik?
- 4.– Non uzten zuen esnea gauean?
- 5.– Nola agertu zen ontzia goiz batean?
- 6.– Zenbat aldiz gertatu zitzaion hori?
- 7.– Non egon zen Martxelo lapurraren zain?
- 8.– Nola zuen argia?
- 9.– Nolako gaua zen, iluna ala argia?
- 10.– Noiz agertu zen katua?
- 11.– Zer egin zuen makilaz?
- 12.– Zer entzun zuen Martxelok katua jo zuenean?
- 13.– Zer egin zuen katuak orduan?
- 14.– Hurrengo goizean nola zeukan besoa aldameneko atsoak?
- 15.– Zer esaten zuen atsoak?
- 16.– Zer zekien Martxelok?
- 17.– Nori kontatu zion?

Behartsu: pobre, necesitado; **jaio:** nacer; **baratza:** huerta; **azoka:** mercado; **barazki:** hortaliza; **abere:** ganado; **edukitzearren:** a fin de tener; **erdi hustu:** medio vacío; **konturatu:** darse cuenta; **ze arraio:** qué rayos; **erdiraino:** hasta la mitad; **gertatu zitzaion:** le ocurrió; **kezkatu:** preocupado; **argitu:** aclarar; **adarra jo:** tomar el pelo; **argia itzalita:** con la luz apagado; **ilargi bete:** luna llena; **kolpe:** golpe; **une:** momento; **garrasi:** chillido, alarido; **biharamon:** el día siguiente; **aldameneko atsoa:** la vieja de al lado; **zeukan:** tenía; **sorgin:** bruja.



"EZ ZEN ERDIRAINO IRISTEN"

Conocemos ya la declinación del caso adlativo (**nora**) en singular y en plural. Añadiendo a este caso el sufijo **-ino** obtenemos el adlativo terminal, equivalente a la preposición **hasta**.

La pregunta correspondiente es **noraino** (**hasta dónde**).

● Ejemplos:

Bilboraino	hasta Bilbao	goraino	hasta arriba
Baionaraino	hasta Bayona	beheraino	hasta abajo
etxeraino	hasta casa	honaino	hasta aquí
azkeneraino	hasta el final	horraino	hasta ahí
leporaino	hasta el cuello	haraino	hasta allí

● Los demostrativos tienen las siguientes formas:

singular		plural	
HONETARAINO	hasta éste	HAUETARAINO	hasta éstos
HORRETARAINO	hasta ése	HORIETARAINO	hasta ésos
HARTARAINO	hasta aquél	HAJETARAINO	hasta aquéllos

● Este caso gramatical se utiliza especialmente con circunstanciales de lugar. Tratándose de tiempo lo más frecuente es utilizar **arte**. La pregunta correspondiente es **noiz arte** (**hasta cuándo**).

Ejemplos:


gero arte	hasta luego
bihar arte	hasta mañana
hurrengo arte	hasta la próxima
ostegun arte	hasta el jueves
ikusi arte	hasta ver(nos)
aspertu arte	hasta aburrirse

15. *Euskaraz eman itzazu hurrengo esaldiak:*

- 1.- Ayer fuimos hasta tu pueblo.
- 2.- Este autobús suele ir hasta Bilbao.
- 3.- Este tren no para hasta Tolosa.
- 4.- Iremos juntos hasta casa.
- 5.- Continuaron hasta el final.
- 6.- Se metió en el mar hasta el cuello.
- 7.- Llena la bolsa hasta arriba.
- 8.- Se mojó desde arriba hasta abajo.
- 9.- Las piedras llegaron hasta aquí.
- 10.- Hasta allí hay dos kilómetros.
- 11.- La lluvia entró hasta dentro.
- 12.- Lleva el coche hasta ese garaje.
- 13.- Subiremos hasta aquel caserío.

- 14.- Caminaremos hasta cansarnos.
- 15.- Hablaron hasta aburrirse.
- 16.- Hasta mañana no habrá pan.
- 17.- Estaremos en San Sebastián hasta el lunes.
- 18.- Hasta verlo no puedo decir nada.
- 19.- Estuvieron con nosotros hasta acabar el partido.
- 20.- No pararé hasta encontrar tu casa.
- 21.- No saldréis de aquí hasta que limpiéis (limpiar) todo.
- 22.- No se movió de allí hasta que vino (hasta venir) su padre.
- 23.- Hasta que arreglen el coche tendremos que andar a pie.

● KANPOAN NAGOELA ESAIOZU



10. IKASKAIA

EA ZER DEN!

EA ZER DEN!



LAS INTERROGATIVAS INDIRECTAS: -(e)N

Una interrogativa indirecta es una pregunta subordinada.

- **Int. directa:** Nor da? ¿Quién es?
- **Int. indirecta:** Ez dakigu nor den. No sabemos quién es.

En euskera esta subordinación se realiza por medio del sufijo **-(e)n** como puedes ver a continuación. En estos ejemplos viene primero la interrogativa directa y luego la indirecta. Fíjate bien.

- Ze ordu da? ¿Qué hora es?
→ Ze ordu **den** galdetu du. Ha preguntado qué hora es.
- Zenbat balio du? ¿Cuánto vale?
→ Zenbat balio **duen** jakin nahi dut. Quiero saber cuánto vale.
- Norena da kotxea? ¿De quién es el coche?
→ Norena **den** kotxea galdetu dute. Han preguntado de quién es el coche.
- Zer duzu? ¿Qué tienes?
→ Esaidazu zer **duzun**. Dime qué tienes.
- Gaztea ala zaharra da? ¿Es joven o viejo?
→ Ez dakit gaztea ala zaharra **den**. Ignoro si es joven o viejo.
- Etorri dira? ¿Han venido?
→ Begira ezazu etorri **diren**. Mira a ver si han venido.
- Zer da? ¿Qué es?
→ Ea zer **den!** ¡A ver qué es!

● En estas oraciones aparece normalmente una partícula interrogativa.

Recuerda las aprendidas hasta ahora:

NOR
nork
nori
noren
norekin

ZEIN
zeinek
zeini
zeinen
zeinekin

NON
nongo
nondik
nora
noraino

ZENBAT
zenbatean

ZER
zerk
zeri
zeren
zertan
zertara
zertarako
zertaz
zergatik

NOIZ
noizko
noiztik
noiz arte

NOLA
nolako

AL
ALA
OTE

● Recuerda también que:

a) La partícula **al** no es imprescindible. Sirve simplemente para marcar el carácter interrogativo de la oración. Aparece en preguntas cuya respuesta será **bai** o **ez**.

- Hau **al** da zurea?
- Ez, ez da hori.

- Ba **al** duzu zigarrorik?
- Bai, badut

b) La partícula **ala** es una disyuntiva que pregunta sobre dos o más opciones:

- Nola nahi duzu, hotza **ala** beroa?
- Hotza nahi dut.

c) La partícula **ote** sirve para expresar duda, sin que necesariamente se exija una respuesta:

Etorri **ote** da...
Zer **ote** da hori...

Si habrá venido...
Qué será eso...

● La partícula **ea** (*a ver...*) se utiliza a menudo para introducir interrogativas indirectas:

Ea nor den.
Ea non utzi duzun.
Ea ba ote dakizun.
Ea etorri den.

A ver quién es.
A ver dónde lo has dejado.
A ver si lo sabes.
A ver si ha venido.

1.- PARADIGMA "NAIZ" + -EN naizen, zaren, den, garen, zareten, diren.

1. *Sar ezazu lehen esaldia bigarrenean -en erabiliz:*

1. Nor da hori?; ez dakit ...
2. Ze ordu da?; badakizu ...?
3. Zein etorri da?; badakizue ...?
4. Zer gertatu da?; ba al daki inork ...?
5. Nongoa da Arantxa?; ba al dakizu ...?
6. Nolakoa da neska hori?; Anttonek ... jakin nahi du.
7. Nondik pizten da argi hori?; nik ez dakit ...
8. Gaur ala bihar etorriko da?; lagunak ez du esan ...
9. Norena da liburu hori?; irakasleak ... galdegin du.
10. Noiz iritsiko da trena?; ... jakin behar dugu.
11. Nola erabili behar da makina berria?; langileek badakite ...
12. Noiz agertuko dira?; lagunak ez dute esan ...
13. Osaba-izebak etorriko ote dira?; ezin dugu esan ...
14. Noren etxean sartu dira lapurrak?; ertzainak ... galdetu du.
15. Zertan gelditu dira azkenean?; ... galdetu behar dugu.
16. Zein dira gure asmoak?; garbi adierazi diogu nagusiari ...
17. Nongoak dira?; neska-mutil horiek ez dute esan ...
18. Zenbat etorriko dira bazkaltzera?; jatetxean ... galdegin dute.
19. Nor naiz?; laster ikusiko du horrek ...
20. Joango ote naiz?; ez dakit seguru ...
21. Zenbat nekatu naiz?; ez dakizue ... !
22. Zer moduz bizi zara?; ... jakin nahi dugu.
23. Zertan ari zara?; esan ezazu ...
24. Noiz joango gara?; amari ... esan behar diogu.
25. Noraino iritsiko gara?; ez dakit ...
26. Non ibili zarete?; jakin al daiteke ...?
27. Ondo portatu zarete?; esan ezazue ...

2. *Hurrengo esaldiak euskeraz eman itzazu:*

1. No sé qué es eso.
2. Le he preguntado qué hora es.
3. Iñaki no ha dicho con quién irá al monte.
4. ¿Sabes cómo se abre esto?.
5. Queremos saber qué tal es ese chico.
6. Olatz ha preguntado de dónde son tus amigas.
7. ¿Sabes quién soy?.
8. Queremos saber dónde has andado.
9. Ya sabéis dónde vivimos.
10. La abuela ha preguntado cuántos iremos a cenar.
11. No hemos decidido si saldremos el jueves o el viernes.
12. Quiero saber a qué habéis venido.
13. Han preguntado cuántos alumnos sois.
14. A ver quién ha venido.
15. A ver cómo es este vino.
16. A ver hasta dónde llegamos.
17. A ver si os portáis bien.

2.- PARADIGMA "DUT" + -(E)N

dudan, duzun, duen, dugun, duzuen, duten.

ditudan, dituzun, dituen, ditugun, dituzuen, dituzten.

3. *Sar ezazu lehen esaldia bigarrenean:*

1. Zeinek irabazi du partidua?; irratiak oraindik ez du esan ...
2. Nork esan du hori?; guk ez dakigu ...
3. Zer nahi du?; atso horri ezin diot ulertu ...
4. Zer egin behar du?; zure lagunari ... adieraziko diot.
5. Zenbat balio du horrek?; esango al didazu, mesedez, ...?
6. Nondik atera dute dirua?; mutikoek ez dute esan nahi ...
7. Nolako etxea dute auzokoek?; ... ikusi nahi dut.
8. Zer erosi dut?; ikusi nahi duzue ...?
9. Nolako oparia nahi duzu?; izebak ... galdetu du.
10. Zergatik egin duzu hori?; ez dut ulertzen ...
11. Haragia ala arraina hartuko duzu?; erabaki ezazu ...
12. Zertarako behar duzu giltza?; jakin al daiteke ...?
13. Ze ordutan bazkalduko dugu?; ... jakin nahi dut.
14. Zer egin behar dugu?; ez dut ongi ulertu ...
15. Norekin hitz egin dugu?; amak ... jakin nahi du.
16. Noizko bukatuko duzue lana?; nagusiak ... jakin nahi du.
17. Zertaz hitz egin duzue bileran?; Atanasioak ez omen daki ...
18. Zenbatean erosi duzue etxea?; jakin daiteke ...?
19. Zeinek eraman du egunkaria?; Bittorrek ... galdegin du.
20. Nork esan ditu gezur horiek?; ... jakin nahi dut.
21. Zenbat urte ditu?; Marisak ez du esan nahi ...
22. Nora eraman dituzte zure paperak?; ez dakigu ...
23. Noiz irekiko dituzte dendak?; andre horri ... galdetu diogu.
24. Nolako notak atera ditut?; eskolan ... begira ezazu.
25. Non utzi ditut gauzak?; ez naiz gogoratzen ...
26. Non gorde dituzu jostailuak?; haurrak ... galdegin du.
27. Zertarako erosi ditugu hainbeste liburu?; ez dakit ...

4. *Itzul ezazu:*

1. No sé qué tiene este niño.
2. No entiendo por qué dicen eso.
3. Nadie sabe quién ha dicho eso.
4. Le he preguntado con quién debo hablar.
5. No he oído qué has dicho.
6. ¿Sabes qué has hecho?
7. He decidido dónde comeremos.
8. Queremos saber hasta cuándo tenemos que estar aquí.
9. Decid de dónde habéis sacado eso.
10. Pregunta (tú) cuánto tenemos que pagar.
11. Ignoro quién tiene tus fotos.
12. No sé donde he dejado las gafas.
13. A ver qué dice ése.
14. A ver quién gana.
15. A ver qué tiempo hace.
16. A ver qué has traído.



HUMOREA

● TIPO AZKARRA

- Gauza bat jakin nahi nuke...
- Zer?
- Non hilko naizen.
- Zertarako?
- Hara ez joateko...

● MOZKORRA

Gizon bat dexente mozkorturik dago bide bazterrean erdi etzana eta ertzaina hurbiltzen zaio:

- Baina, Ismael! Zer ari zara hor lurrean?
- Herriko etxe guztiak, hip! inguruan jiraka ikusten ditut, hip! eta nerea noiz agertuko den zain nago, hip!

- | |
|---|
| <ol style="list-style-type: none">1. Jakin nahi nuke: desearía saber.2. Dexente: bastante; jiraka: dando vueltas. |
|---|

HURRENGOA BURUZ IKASI BEHAR DUZU.
ULERTZEN EZ BADUZU, ITZULPENA BEGIRA EZAZU.

ALPROJA ETA KAIKUA

Bixente koarteleko sukaldean patatak zuritzen ari da. Aspertua dago eta ez daki zer egin distrainitzeko. Bere laguna kapitanaren gela garbitzen ariko dela uste du eta denbora pasatzeko telefonoz deitzea erabakitzen du. Jaikitzen da eta zenbakia markatzen du.

- Bai? – erantzuten dio ahots batek.
- Tururu! Tarara! Hor ari al zara alproja hori? Kaiku lotsagabea!

Itxuraz, telefonoa hartu duena kapitana bera da eta honela erantzuten du haserre:

- Zer? Nola? Alproja eta kaikua ni? Jakin daiteke nor zaren? Kalabozora joango zara oraintxe!!
- A, bai? Asma ezazu, bada, nor naizen eta etorri azkar kalabozora eramatera! Ja, ja, ja!

Telefonoa moztu eta patatak zuritzen jarraitzen du...

● GALDERAK

1. Nor dago koarteleko sukaldean?
2. Zertan ari da?
3. Ongi pasatzen al du patatak zuritu bitartean?
4. Zertan ariko dela bere laguna uste du?
5. Zertarako deitzen dio bere lagunari?
6. Lagunak hartu al du telefonoa?
7. Kapitana pozik ari al da hizketan Bixenterekin?
8. Nora joango dela Bixente esaten du kapitanak?
9. Ba al daki kapitanak norekin ari den hizketan?
10. Eta Bixentek ba al daki norekin ari den?
11. Beldurtu al da hori jakin duenean?
12. Zer esan dio Bixentek kapitanari? (*subord.*)

Patatak zuritu: pelar patatas; **deitu:** llamar; **zenbaki:** número; **ahots:** voz; **alproja:** golfo; **kaiku:** majadero; **lotsagabe:** sinvergüenza; **itxuraz:** por lo visto; **hartu duena:** el que ha cogido; **kapitana bera:** el propio capitán; **moztu:** cortar.

3.- PARADIGMA NOR-NORI-NORK: DIOT + -N.
diodan, diozun, dion, diogun, diozuen, dioten.

5. Sar ezazu lehen esaldia bigarreanean:

1. Nork eman dio zigarroa?; haurrak ez du esan nahi ...
2. Nori saldu dio kotxea?; Albertok ez du aipatu ...
3. Zergatik eman diote arrazoia?; ez dut ulertzen ...
4. Zenbat ordaindu beharko diot mekanikoari?; ez dakit ...
5. Zer erosi diot haurrari?; ezetz asmatu ...
6. Zenbat diru eskatuko diote?; Ameliak ... galdegin du.
7. Zergatik erantzun diozu horrela?; ... esan behar duzu.
8. Egia esan ote diozu?; Maribelek ... jakin nahi du.
9. Zer esango diogu Ainhoari?; ... pentsatu behar dugu.
10. Zer erregalatuko diozue amonari?; ... erabaki behar duzue.
11. Zer esan diozue nere ahizpari?; ... jakin behar dut.
12. Noiz eman dizkio giltzak?; ez dugu ikusi ...
13. Nori eman behar dizkiot eskerrak?; zuek esango duzue ...

6. Itzul ezazu:

1. Le hemos preguntado quién le ha dejado la revista.
2. No ha visto quién le ha tirado la piedra.
3. Andoni no sabe todavía que le responderá Fidel.
4. No sé si le perdonaré.
5. Queremos saber qué le has dicho a ese hombre.
6. Tu tía ha preguntado dónde le dejaremos el pan.
7. No sé por qué le han dado ese dinero a tu amigo.
8. A ver qué le has regalado a Ruperto.
9. A ver quién le gana a éste.

4.- PARADIGMA NOR-NORI: ZAIT + -N.
zaidan, zaizun, zaion, zaigun, zaizuen, zaien.

7. Sar ezazu lehen esaldia bigarrenean:

1. Non galdu zaio giltza?; Itziarrek ez daki ...
2. Zer iruditu zaio nere lana?; Joni ... galdetu behar diozu.
3. Nori tokatu zaio loteria?; badakizu ...?
4. Nondik ateratzen zaio haizea baloiari?; ezin dut aurkitu ...
5. Nola gertatu zaie hori?; ezin dut ulertu ...
6. Non ahaztu zait euritakoa?; badakizue ...?
7. Zer gertatzen zaizu? ... jakin nahi dut.
8. Nola gustatzen zaizu haragia?; etxekoandreak ... galdegin du.
9. Zer komeni zaizu?; zuk ... esan behar duzu.
10. Zer iruditu zaigu bere etxea?; Alfontsoari ... adieraziko diot.
11. Zergatik puskatu zaigu gurpila?; ez dakit ...
12. Noiz iritsiko zaizue dirua?; ... galdetu behar duzue.

8. Itzul ezazu:

1. No sé qué le gusta a tu hermana.
2. No sé qué me ocurre.
3. ¿Sabes de dónde te ha llegado esa carta?.
4. He preguntado qué os parece mi pueblo.
5. No sé cómo hay que decirte las cosas.
6. Queremos saber cuándo nos vendrá tu amigo.
7. A ver qué te parece esto.

5.- SINTETICOS INTRANSITIVOS.

**nagoen, zauden, dagoen, gauden, zaudeten, dauden.
nabilen, zabiltzan, dabilen, gabiltzan, zabiltzaten, dabiltzan.
natorren, zatozen, datorren, gatozen, zatozten, datozen.
noan, zoazen, doan, goazen, zoazten, doazen.**

9. *Sar ezazu lehen esaldia bigarrenean:*

1. Zer moduz dago aitona?; ... ikustera gatoz.
2. Non dago udaletxea?; esango al didazu, mesedez, ...?
3. Zenbat botila daude sukaldean?; ... kontatu behar dugu.
4. Zertan daude gauzak? ... jakin nahi dugu.
5. Zergatik zaude haserre?; ... esan behar didazu.
6. Noiztik gaude zure zain?; badakizu ...
7. Zure motoa ondo dabil?; anaiak ... galdetu du.
8. Nola dabil erloju zahar hau?; ez dakit ...
9. Norekin dabiltza horiek?; ikusi duzu ...?
10. Nondik nora zabiltza?; ... jakitea komeni zaigu.
11. Ze ordutan dator Hondarribiko autobusa?; badakizu ...
12. Zenbat jende dator?; begira ezazu ...
13. Zein datoz bazkaltzera?; andreak ... galdegin du.
14. Zertarako zatozte ordu honetan?; ez dakit ...
15. Noraino doa tren hau?; esango al didazu ...?
16. Zer moduz doa zure arazoa? ... galdegin diot abokatuari.
17. Zertara zoaz orain?; jakin daiteke ...?
18. Nora goaz bide honetatik?; ez dakit ...

10. *Itzulpena.*

1. Le enseñaré dónde está mi casa.
2. Jesús ha preguntado dónde están sus cosas.
3. Quiero saber qué tal estáis.
4. ¿Sabes cómo anda este reloj?.
5. ¿Has visto con quién anda Kepa?.
6. Mira quién viene.
7. ¿Se puede saber a qué viene ese chico?.
8. No le he dicho a dónde vamos.
9. A ver cómo anda esta máquina.
10. A ver cuántos vienen.

6.- SINTETICOS TRANSITIVOS.

dakidan, dakizun, dakien, dakigun, dakizuen, dakiten.
daukadan, daukazun, daukan, daukagun, daukazuen, daukaten.
dakardan, dakarzun, dakarren, dakargun, dakarzuen, dakarten.
daramadan, daramazun, daraman, daramagun, daramazuen,
daramaten.

11. *Sar ezazu lehen esaldia bigarrenean:*

1. Zerbait daki?; ... galdetu behar diogu Mertxeri.
2. Nondik daki hori?; ez du esan nahi ...
3. Zenbat daki horrek?; harrigarria da ...
4. Makinaz idazten badakizu?; ... galdegin dute.
5. Frantsesez ondo dakite?; ... erakutsi behar dute.
6. Zenbat diru dauka?; agure horrek ... ere ez daki.
7. Zer daukat esku honetan?; ezetz igarri ...
8. Nolako erlojua daukazu? ea ...
9. Non dauzka paperak? ez omen da oroitzen ...
10. Zergatik dakar aurpegi hori? ez dakigu ...
11. Zer dakarte egunkariek?; begiratu duzu ...?
12. Zenbat diru dakarte lagunek?; ... jakitea komeni zaigu.
13. Zer dakarzu maletan?; esan ezazu ...
14. Zergatik darama gorbata beltza?; ... galdegin diot Iboni.
15. Zenbat denbora darama anaiak Bartzelonan?; ez dakit ...

12. *Itzul itzazu esaldi hauek:*

1. Le preguntaremos (a ver) si sabe algo.
2. No sé quién tiene tu libro.
3. ¿Ha visto el médico cómo tienes la pierna?
4. Enseñad qué tenéis ahí.
5. Mira qué trae el periódico.
6. ¿Se puede saber a dónde llevas eso?
7. Quieren saber qué llevamos en esta bolsa.
8. A ver cuánto sabes.
9. A ver qué traes.

HUMOREA

● BDAKIT ZER DAUKAN

Bi zoro platanoak jaten ari dira patioan. Batek azala kendu gabe jaten ditu eta besteak harrituta esaten dio:

- Zergatik ez duzu azala kentzen?
- Azala kendu? Zertarako? Badakit zer daukan barruan eta!

7.- LAS FORMAS DE PASADO: NINTZEN Y NUEN

Como estas formas terminan en **-en** no varían al subordinarlas:

13. *Sar ezazu lehen esaldia bigarrenean:*

1. Nongoa zen gizon hura?; ez zuten esan ...
2. Noiz bukatu zen partidua?; ez dakit ...
3. Zergatik haserretu zen horrela?; ezin dugu ulertu ...
4. Nondik atera ziren lapurrak?; auzokoek ez zuten ikusi ...
5. Norenak ziren argazki polit haiek?; badakizu ...?
6. Norekin izan nintzen atzo?; ezetz asmatu ...
7. Zergatik etorri zinen hain berandu?; Lurdesek ... jakin nahi du.
8. Zertaz ari ginen hizketan?; ez naiz oroitzen ...

14. *Eman ezazu euskaraz:*

1. ¿Sabéis qué ocurrió ayer?
2. No sé cuándo llegó tu amigo.
3. ¿Sabes a dónde fueron tus hermanos?
4. ¿Sabes con quién estuve el jueves?
5. Han preguntado por qué no viniste a la reunión.
6. No recuerdo cuántos fuimos a cenar.
7. ¿Sabéis a qué fuimos a Bilbao?
8. Carmen ha preguntado si anduvisteis contentos.

15. *Sar ezazu lehen esaldia bigarrenean:*


1. Zer esan zuen medikuak?; ez dakit ...
2. Nork esan zuen hori?; jakin al daiteke ...
3. Elenak neska ala mutila izan zuen?; Gurasoek, ... jakin nahi dute.
4. Nora eraman zuten gaisoa?; ez zuten esan ...
5. Nondik ekarri zuten ardoa?; ez dakigu ...
6. Zenbatean erosi zuten kotxea?; ez zuten aipatu ...
7. Norekin hitz egin genuen?; ez dut esango ...
8. Zertan gastatu zenuten dirua?; ... jakin nahi dugu.
9. Zenbat abere zituen?; baserritarrak ez zuen adierazi ...
10. Nolako txisteak kontatzen zituen agure hark?; oroitzen zara ...?
11. Non gorde nituen aldizkariak?; ez dakit ...
12. Nondik hartu nituen giltzak?; gogoratzen al zara ...?
13. Nolako gauzak egiten genituen eskolan?; oroitzen al zarete ...?

16. *Itzul ezazu:*

1. No recuerdo cuánto valía mi coche.
2. Ya sabemos quién escribió esa carta.
3. Alberto no dijo para qué necesitaba el coche.
4. ¿Sabes por qué hice eso?
5. Quiero saber dónde compraste ese libro.
6. Nekane ha preguntado qué queríais.
7. ¿Sabes a dónde llevaron mis papeles?

IKASI EZAZU HURRENGO ELKARRIZKETA, "NOTA ONAK".
Itzulpena erantzunetan dator.

● NOTA ONAK

1  —Ea nolako notak ekarri dituzun!	2  —Alajaina! Ez dakit ondo ikusten dudan!
3  —Bai, bai. Ederki ikusten duzu! Gelako lehenengoa naiz! Zer uste duzu!	4  —Eta jain daiteke nola gertatu den hori?
5  —Azterketa izan dugu eta nerea onena izan da...	6  —Zer galdegin dizute, bada?
7  —Zenbat hanka dituen elefanteak...	8  —Eta nik, hiru dituela erantzun dut.
9  —Hiru? Eta, hala ere, lehenengoa izan zara?	10  —Bai. Besteek bi jarri dute eta...

● IRAKURGAIA

Itziartxok sei urte ditu eta lehenbiziko mailan dabil. Egia esan, ez da oso saiatua eskolan. Nahiko bihurria da eta lan gutxi egiten du. Lagunekin jolasean eta berriketan pasatzen du denbora. Hori dela eta, nota txarrak ekartzen ditu gehienetan. Azkenetakoa izaten da.

Gaur, berriz, oso harro agertu da etxean. Esku batean maletatxoa dakar eta bestean nota papera.

Aitak, ikusi duenean, notak erakusteko eskatu dio:

– Egun on, Itziar! Lan handia egin al duzu eskolan? Ea! Erakutsi nolako notak atera dituzun! Ikusi nahi ditut.

Hurbiltzen da Itziar eta papertxoa ematen dio.

– Tori, aita! Ea zer iruditzen zaizkizun!

Aitak papera hartu eta harrituta gelditzen da. Ezin du sinetsi ikusten duena: Itziar gelako lehenengoa da!

– Zeeer? Arranopola! Ez dakit ondo ikusten dudan! Betaurrekoak garbitu beharko ditut, bada-ezpada ere...

– Ez, ez –esaten dio Itziarrek–. Ez duzu betaurrekoak garbitu beharrik. Ederki ikusten duzu! Lehenengoa naiz, bai. Zer uste duzu!

– Hara, hara! Hau sorpresa! Jakin daiteke nola gertatu den hori?

Eta Itziarrek:

– Azterketa izan dugu eta andereñok galdera bat jarri digu: ea zenbat hanka dituen elefanteak. Eta nik, hiru dituela erantzun dut...

– Alajaina! Hiru erantzun eta hala ere lehenengoa izan zara?

– Bai... Besteek bi dituela jarri dute eta...

Lehenbiziko: primero; **maila:** grado, nivel; **egia esan:** a decir verdad; **berriketa:** charla, conversación; **ikusten duena:** lo que ve; **arranopola:** icaramba!; **ez duzu...** **beharrik:** no necesitas ...; **andereño:** maestra.

● GALDERAK

1. Zenbakarren mailan dabil Itziartxo?
2. Zer moduz portatzen da eskolan?
3. Nolako notak ekartzen ditu?
4. Zenbakarrena izaten da?
5. Nola agertu da gaur etxean?
6. Zer jakin nahi du aitak?
7. Nola gelditu da aita notak ikusi dituenean?
8. Zer galdetu diote Itziarri azterketan?
9. Zer erantzun du Itziarrek?
10. Zer jarri dute beste lagunek?

● OHARRAK

● HORI DELA ETA

Las formas **-(e)la** y **eta** unidas expresan una idea causal equivalente a **con motivo de, como...**, etc...

Hori **dela eta**, haserretu egin da.
(*por ese motivo, se ha enfadado*)

Garestia **zela eta**, ez zuen erosi nahi izan.
(*Como era caro, no quiso comprarlo*)

Eguzkia dagoela **eta**, paseatzera joan da.
(*Como hace sol, se ha ido a pasear*)

● LEHEN MAILA

1.- El ordinal **primero** se puede expresar con los siguientes términos:

aurren
lehen
lehenbizi o lehendabizi

aurrena eta azkena	<i>el primero y el último</i>
lehen aldiz	<i>por primera vez</i>
lehen maila	<i>el primer grado</i>
lehenbizi , hau egin behar da	<i>primero, hay que hacer esto</i>

2.- Estos adjetivos llevan a menudo el morfema **-ko** (**-go**):

aurrenekoa eta azkenekoa	<i>la primera y la última</i>
lehenengo !	<i>¡el primero!</i>
lehenbiziko etxea	<i>la primera casa</i>

3.- Recuerda que **lehen** significa también **antes**, por lo tanto hemos de distinguir entre **lehengo** (*anterior*) y **lehenengo** (*primero*):

lehengo egunean	<i>el día anterior, el día pasado</i>
lehenengo egunean	<i>el primer día</i>

Lo mismo ocurre con **aurre**:

aurreko egunean	<i>el día anterior</i>
aurreneko egunean	<i>el primer día</i>

● ARIKETAK

17. *Perpaus hauek subordinatzeko, enuntziatiboak ala galderak diren ikusi behar duzu.*

Para subordinar las siguientes oraciones has de distinguir si son enunciativas o interrogativas.

1. AITAK: "Nolako eguraldia dago?"
Zer galdegin du aitak?
2. SEMEAK: "Euria egingo du"
Zer uste du semeak?
3. ARREBAK ANAIARI: "Eneko, noiz hasiko zara lanean?"
Zer galdegin dio arreba anaiari?
4. ANAIAK: "Berehala hasiko naiz"
Zer erantzun dio anaiak?
5. OSABAK IZEBARI: "Non ibili zarete goizean?"
Zer galdegin dio osabak izebari?
6. IZEBAK: "Ixabelekin atera gara erosketa batzuk egitera".
Zer erantzun dio izebak?
7. EBARISTOK: "Ana ezkondu egin da"
Zer esan du Ebaristok?
8. IÑAKIK: "Norekin ezkondu da?"
Zer galdegin dio Iñakik?
9. EBARISTOK: "Ez dakit..."
Zer erantzun dio Ebaristok?
10. HIPOLITOK: "Zopak ez du gatzik!"
Zer esan du Hipolitok?
11. EMAZTEAK: "Egia da! Botatzea ahaztu zait!"
Zer erantzun dio emazteak?
12. JAIONEK: "Atzo pelikula ederra ikusi nuen!"
Zer esan du Jaionek?
13. MOISESEK: "Bakarrik joan al zinen?"
Zer galdegin dio Moisesek?
14. JAIONEK: "Ez. Hiru lagun joan ginen."
Zer erantzun dio Jaionek?

18. *Irakur ezazu elkarrizketa hau eta gero erantzun galderei:*

1. AITORREK LUPERI: Ekarri al duzu egunkaria?
2. LUPEK: Bai. Mahai gainean utzi dut.
3. AITORREK: Hau ez da gaurkoa, atzokoa da.
4. LUPEK: Norbaitek hartu du orduan...
5. AMAK: Zer galdu zaizu, Aitor?
6. LUPEK AMARI: Zuk hartu al duzu gaurko egunkaria?
7. AMAK: Ez. Nik ez dut hartu.
8. AITORREK: Berdin da. Orain ezin dut irakurri lanera joan behar dut eta...

● **GALDERAK**

1. Zer galdetu dio Aitorrek Luperi?
2. Zer erantzun dio Lupek?
3. Zer esaten du Aitorrek?
4. Zer esaten du Lupek?
5. Zer galdetzen dio amak Aitorri?
6. Zer galdetzen dio Lupek amari?
7. Zer erantzuten dio amak?
8. Zer esaten du Aitorrek?

19. *Itzulpena*

¿Sabes a quién he visto en la calle? A Mikel, tu hermano. Le he dicho que mañana iremos a su casa. Ha preguntado cuándo iremos y le he contestado que iremos al mediodía. Le he explicado también que tú tienes mucho (gran) trabajo y que irás por la tarde. Ha dicho que le parece muy bien.

MATEO TXISTU

Mateo Txistu herri koxkor bateko apaiza omen zen. Apaiz zintzoa zen baina ehiztari amorratua ere bai. Mendian ibiltzen omen zen beti bere zakurrekin ehizan.

Igande goiz batez meza ematera joan zen eta zakurrak eliz atarian utzi omen zituen lotuta. Mezako arropak jantzi eta meza ematen hasi zen. Horretan ari zelarik erbi bat pasa omen zen eliz ondotik eta zakurrak zaunkaka hasi ziren indar handiz. Apaizak hura entzun eta meza bertan behera utzita eskopeta hartzera joan zen berehala. Mezako arropak kentzeko astirik gabe zakurrak askatu zituen eta erbiaren atzetik abiatu omen zen. Jendea txunditurik eta aho zabalik geratu zen elizan.

Erbia mendi aldera joan zen ihesi, eta zakurrak eta Mateo ere bai haren atzetik. Ibili eta ibili eta ezin zuten erbia harrapatu. Eguerdia iritsi zenean bazkaldu gabe geratu zen Mateo. Egun osoa batetik bestera korrika igaro zuten eta hala ere ez zuten erbia harrapatu. Gau osoan ere halaxe jarraitu omen zuten. Fiiiii! fiiiii! entzuten ziren gauean apaizaren txistuak zakurrei deika.

Hurrengo goizean leher eginda zegoen Mateo eta jantziak erabat urratuak zituen eta, hala ere, segi ta segi korrika jarraitzen zuen erbiaren atzetik.

Eguerdi aldera baserri batera iritsi zen Mateo eta andre bat ikusi zuen ogia egiten.

– Mesedez, andrea! Emaidazu ogi bat, goseak hila nago eta! –esan zion Mateok.

– Bai, bai –erantzun zion andreak–. Itxoin ezazu pitin bat eta berehala emango dizut.

Baina andreak ogia hartu orduko erbia agertu zen eta apaiz gizarajoa korrika hasi zen berriro.

Eta harrezkero horrela omen dabil beti. Mendi eta basoetan zehar, eguzkia dagoenean izerditan eta euria ari duenean lokatzetan sartuta, korrika beti ere hankak gelditu ezinik.

Jainkoaren zigorra izan omen zen meza bukatu gabe utzi zuelako.


Oraindik ere, neguko gau luzeetan haizearen txistua entzuten denean, Mateo Txistu dabilela inguruan esaten dute zaharrek.

● GALDERAK

1. Non bizi zen Mateo Txistu?
2. Nolako apaiza zen?
3. Igande hartan nola utzi zituen zakurrak meza ematera joan zenean?
4. Zer egin zuten zakurrek erbia pasa zenean?
5. Zer egin zuen Mateok zakurrak zaunkaka sumatu zituenean?
6. Nola geratu zen jendea elizan?
7. Nola zegoen Mateo hurrengo goizean?
8. Nor ikusi zuen eguerdian?
9. Zertan ari zen andre hura?
10. Nola dabil Mateo harrezkero?
11. Zergatik zigortu zuen Jainkoak?
12. Zer esaten dute zaharrek haizearen txistua entzuten denean?

Koxkor: pequeño; **apaiz:** cura, sacerdote; **amorratu:** empedernido; **ehiza:** caza; **meza:** misa; **horretan ari zelarik:** cuando estaba en eso; **erbi:** liebre; **zaunkaka:** ladrando; **bertan behera utzi:** dejar plantado, abandonar; **abiatu:** partir, marchar; **asti:** tiempo para algo; **txunditu:** asombrado; **ihesi joan:** ir huyendo; **txistu:** silbido; **deika:** llamando; **erabat:** totalmente; **urratu:** desgarrado; **emaidazu:** deme Vd.; **goseak hila egon:** estar muerto de hambre; **itxoin:** esperar; **pitin bat:** un poquito; **hartu orduko:** para cuando tomó; **harrezkero:** a partir de entonces; **-an zehar:** a través de; **izerditan:** sudando; **lokatza:** barrizal; **Jainko:** Dios; **zigor:** castigo.

● NOTA ONAK



11. IKASKAIA

ETORTZEKO ESAN DUT

ETORTZEKO ESAN DUT!

● SUBORDINACION DE LAS ORACIONES IMPERATIVAS: -T(Z)EKO

Antes de estudiar este tema repasa lo aprendido sobre los imperativos en el tema 2 (pág. 48).

La forma más sencilla y empleada para subordinar oraciones imperativas es el uso de la terminación **-t(z)eko**.

● Ejemplos:

OSABAK: "Etorri berehala!"

→ Osabak berehala **etortzeko** esan du.
(*El tío ha dicho que vengas (venga, vengamos...) enseguida*)

NIK: "Hartu hori!"

→ Hori **hartzeko** esan dut.
(*He dicho que cojas eso*)

IZEBAK ILOBARI: "Sar zaitez"

→ Izebak, **sartzeko** eskatu dio ilobari.
(*La tía le ha pedido al sobrino que entre*)

AMAK ALABARI: "Esan ezazu egia!"

→ Amak egia **esateko** eskatu dio alabari.
(*La madre le ha pedido a la hija que diga la verdad*)

AITAK SEMEARI: "Zoaz etxera!"

→ Aitak etxera **joateko** agindu dio semeari.
(*El padre le ha ordenado al hijo que vaya a casa*)

Como puedes observar en los ejemplos precedentes, normalmente colocamos la forma en **-t(z)eko** inmediatamente antes del verbo principal (**esan, eskatu, agindu**), aunque no siempre sea así:

berehala **etortzeko** esan du.
Hori **hartzeko** esan dut.
egia **esateko** eskatu dio.
etxera **joateko** agindu dio.

He aquí, en orden alfabético, una serie de verbos conocidos ya que habrás de utilizar en los ejercicios que vienen a continuación.

a) Subordinados en **-tzeko**.

barkatu	→	barkatzeko	(perdonar)
beldurtu	→	beldurtzeko	(asustar)
bilatu	→	bilatzeko	(buscar)
bildu	→	biltzeko	(recoger, juntar)
bukatu	→	bukatzeko	(terminar, acabar)
deitu	→	deitzeko	(llamar)
ekarri	→	ekartzeko	(traer)
eseri	→	esertzeko	(sentarse)
etorri	→	etortzeko	(venir)
garbitu	→	garbitzeko	(limpiar)
hartu	→	hartzeko	(coger, tomar)
haserretu	→	haserretzeko	(enfadarse)
hil	→	hiltzeko	(matar, morir)
ibili	→	ibiltzeko	(andar)
ikutu	→	ikutzeko	(tocar)
ireki	→	irekitzeko	(abrir)
jaiki	→	jaikitzeko	(levantarse)
jaso	→	jasotzeko	(recoger, levantar)
jo	→	jotzeko	(pegar)
kendu	→	kentzeko	(quitar)
lagundu	→	laguntzeko	(ayudar)
lotu	→	lotzeko	(atar)
mugitu	→	mugitzeko	(moverse)
sartu	→	sartzeko	(entrar, meter)

b) Subordinados en **-teko**.

(Participios en -n, -si, -xi, -zi, -tsi, -txi, -tzi, -ztu)

ahaztu	→	ahazteko	(olvidar)
egin	→	egiteko	(hacer)
egon	→	egoteko	(estar)
eman	→	emateko	(dar)
entzun	→	entzuteko	(oír, escuchar)
erakutsi	→	erakusteko	(mostrar, enseñar)
eraman	→	eramateko	(llevar)
erantzun	→	erantzuteko	(contestar, responder)
esan	→	esateko	(decir)
hasi	→	hasteko	(empezar, comenzar)
itxi	→	ixteko	(cerrar)
itxoin	→	itxoiteko	(aguardar, esperar)
jaitsi	→	jaisteko	(bajar)
jan	→	jateko	(comer)
jantzi	→	jazteko	(vestirse)
joan	→	joateko	(ir)
piztu	→	pizteko	(encender)
utzi	→	uzteko	(dejar)

● ARIKETAK

1. *Sar ezazu lehen esaldia bigarreanean –t(z)eko erabiliz:*

1. "Ez ikutu ezer!" Amonak ... esan dio Martintxori.
2. "Bukatu azkar lan horiek!". Enkargatuak ... eskatu du.
3. "Ekarri giltza!". Mikelek ... esan zuen.
4. "Lotu zapata!". Osabak ... esan dio Inaziori.
5. "Jaiki ohetik!". Emazteak ... agindu dio senarrari.
6. "Ez ahaztu liburuak!". Irakasleak ... esan dio ikasleari.
7. "Ez esan gezurrik!". Amak ... eskatu dio alabari.
8. "Utzi bakean!". Imanolek ... esan du.
9. "Hasi lanean!". Nagusiak ... agindu du.
10. "Erakutsi argazkiak!". Lurdesek ... eskatu du.
11. "Kendu aurretik!". Txoferrak ... esan dio haurrari.
12. "Egon isilik!". Andreak ... agindu dio umeari.
13. "Ekarri labana!". Arrantzaleak ... esan dio mutikoari.
14. "Etorri!". Artzaiak ... agindu dio zakurrari.
15. "Ez ibili horrela!". Neskak ... esan dio mutilari.
16. "Ez egin hori!". Aitak ... agindu dio alabari.
17. "Piztu argia!". Maitek ... esan zuen.
18. "Lagundu amari!". Arrebak ... eskatu zion anaiari.

19. "Eseri zaitetz!". Begoñak ... eskatu zion atsoari.
20. "Jaitsi zaitetz hortik!". Gizonak ... agindu dio mutilari.
21. "Sar zaitetz barrura!". Etxekoandreak ... eskatu dio neskari.
22. "Ez zaitetz berandu etorri!". Aitak ... esan dio Imanoli.
23. "Ez zaitetz beldurtu!". Agureak ... esan dio neskatxari.
24. "Jantzi zaitetz berehala!". Aitak ... agindu dio semeari.
25. "Ez zaitetzte mugitu!". Lapurrak ... esan zion jendeari.
26. "Ez zaitetzte haserretu!". Ainhoak ... esan die gurasoei.

27. "Azkar erantzun ezazu!". Irakasleak ... esan dio ikasleari.
28. "Itxoin ezazu piska bat!". Lupek ... eskatu dio ahizpari.
29. "Deitu ezazu telefonoz!". Bulegoan ... esan diote Dionisiori.
30. "Ireki ezazu atea!". Mertxek ... esan du.
31. "Esan ezazu egia!". Andereñoak ... agindu dio Arrateri.
32. "Ez ezazu adarrik jo!". Zuk ... esan zenuen.
33. "Ez ezazu horrelakorik esan!". Amonak ... eskatu dio aitonari.
34. "Eraman ezazue botila etxera!". Paulek ... esan du.

35. "Ireki ezazue leihoa!". Eulalik ... esan die lagunei.
36. "Entzun ezazue, mesedez!". Alkateak ... eskatu zion jendeari.
37. "Barka ezazue!". Neska-mutilek ... esan zuten.
38. "Bildu itzazu paperak!". Izebak ... agindu dio ilobari.
39. "Bila itzazu giltzak!". Anuntxik ... esan dio Julitari.
40. "Garbitu itzazu eskuak!". ...esan diot anaia txikiari.
41. "Jaso itzazu gauza horiek lurretik!". Terek ... agindu dio Gurutzeri.
42. "Jan itzazue sagarrak!". Zuk ... esan zenuen.
43. "Ez itzazue txoriak hill!". Monikak ... esan die mutikoei.

44. "Zaude lasail!". Medikak ... esan dio gaisoari.
45. "Zoaz hemendik!". Pilartxok ... esan dio zakurrari.
46. "Emaidazu ogial!". Senarrak ... esan dio emazteari.
47. "Baiez esaiozu!". Amak aitari ... eskatu dio.

HUMOREA

● JOLASEAN

Idoia eta Ibon oihuka eta joka ari dira. Ama sartzen da eta esaten die:

– Zer da hau! Ume petralak! Beti borrokan aritu behar! Nola esan behar dizuet borrokan ez ibiltzeko? Oso itsusia da hori!

Eta Idoiak erantzun:

– Amatxo, ez ginen borrokan ari. Jolasean ari ginen: Ibon aitatxo zen eta ni amatxo...

Joka: pegándose; petral: revoltoso, desobediente; esan behar dizuet: tengo que deciros.

2. Itzul itzazu esaldi hauek:

1. iHe dicho que vengas!
2. iHe dicho que traigas eso!
3. iHe dicho que (me) dejéis en paz!
4. Tomás ha dicho que busquéis la llave.
5. Koldo le ha dicho a Mikel que no olvide el pan.
6. Roberto ha dicho que (le) perdones.
7. Han dicho que empecemos a trabajar.
8. El abuelo dijo que no nos asustáramos.
9. Le he dicho que coja el tren.
10. Nicolás ha ordenado que no toquéis eso.
11. Idoia dijo que le esperáramos aquí.
12. Tú dijiste que no nos enfadáramos.
13. Xabier ha pedido que le ayudemos.
14. Eulalia ha dicho que cerremos la puerta.
15. Tu padre ha dicho que vayas.
16. Han pedido que terminemos hoy los trabajos.
17. Han dicho de San Sebastián que llevemos estas cosas.
18. Han ordenado que nadie se mueva.
19. Cristina ha dicho que (le) enseñes las fotos.
20. Martín ha dicho que (le) contestemos pronto.
21. El tío le dijo al sobrino que estuviera tranquilo.
22. La tía Juanita ha dicho que vayamos a su casa.
23. Tu madre ha dicho que comas mucho.
24. El médico le ha ordenado al enfermo que se levante.
25. El padre le ha mandado al hijo que se lave la cara.

HURRENGO IPUINA, "AITA, SEMEA ETA ASTOA", BURUZ IKAS EZAZU.
GOGORATZEKO, 220. ORRIALDEAN DITUZU MARRAZKIAK

AITA, SEMEA ETA ASTOA

Behin batean baserritar zahar batek astoa saltzea erabaki zuen.

Semeari deitu eta honela esan zion:

– Seme, azokara joan behar dugu; astoa saldu nahi dut eta.

Eta herrirantz abiatu ziren: astoa aurretik eta aita-semeak atzetik, oinez.

Andre batek ikusi zituen eta honela esan zuen:

– Hara! Tonto horiek zertarako nahi dute astoa, jaten eman eta paseatzera ateratzeko? Kaiku halakoak!

Aitak hori entzun eta gainean jartzeko agindu zion semeari. Eta aurrera jarraitu zuten.

Geroxeago agure batekin egin zuten topo, eta honek honela esan zion mutilari:

– Mutiko! Ez duzu lotsarik! Aita zaharra oinez eta bitartean zu asto gainean patxada ederrean! Jaitsi zaitez hortik, alfer hori!

Jaitsi zen, bada, mutila eta aitari esan zion gainean jartzeko. Eta horrela jarraitu zuten.

Handik laster taberna ondotik igaro ziren. Hantxe mutil gazte batzuk zeuden eta bikotea ikusita esan zuten:

– Begira horiek! Haur gaixoa oinez eta aita asto gainean lasai asko. Gizon horrek ez du bihotzik!

Aitak orduan, lotsatuta, gainean jartzeko eskatu zion semeari. Eta horrela biak zihoazen asto gainean.

Errekara iritsi zirenean emakume batzuk arropak garbitzen ari ziren eta aita-semeak asto gainean ikusita marmarrean hasi ziren:

– Asto errukarria! Leher eginda daramate axolagabe horiek! Eta gainera azokan saldu nahiko dute!

Hori entzunik, aita-semeak asto gainetik jaitsi eta bion artean bizkar gainean hartu zuten animalia. Eta horrela sartu ziren herrian.

Herriko jendeak planta horretan ikusita burlaka hasi ziren:

– Ja, ja, ja! Hiru horietan ez da astoena gainean daramatena!– esaten zuten.


Orduan aitak astoa lurrean utzi eta semeari esan zion:

– Seme, ez ahaztu inoiz gaur ikasitakoa: Inoren kapritxoak egin nahian farregarri gelditu nahi ez baduzu, zeurea egin ezazu eta kito!

● GALDERAK

1. Zer erabaki zuen baserritarak?
2. Zer esan zion baserritarrek semeari? (**subord.**)
3. Norantz abiatu ziren baserritarra eta semea?
4. Nork ikusi zituen lehenbizi?
5. Emakumeak: "Zertarako nahi dute astoa?". Zer galdegin zuen emakumeak? (**subord.**)
6. Zer agindu zion orduan aitak semeari? (**subord.**)
7. Norekin egin zuten topo geroxeago?
8. "Ez duzu lotsarik!". Zer esan zion agureak mutikoari? (**subord.**)
9. Mutikoa jaitsi zenean nor jarri zen asto gainean?
10. Non zeuden mutil gazteak?
11. Nork esan zuen aitak ez zuela bihotzik?
12. Zertan ari ziren emakumeak errekan?
13. Azkenean nola eramán zuten astoa aita-semeek?
14. Zer esaten du herriko jendeak bikotea astoa bizkar gainean eramaten ikusten duenean? (**subord.**)
15. Astoa lurrean utzi eta zer esaten dio aitak semeari? (**subord.**)

Herrirantz: hacia el pueblo; **kaiku halakoak!** ¡Necios más que necios! **Geroxeago:** algo más tarde; **lotsa:** vergüenza; **patxada:** tranquilidad, despreocupación; **Handik laster:** al poco tiempo; **bikote:** pareja; **lotsatuta:** avergonzado; **zihoazen:** iban; **marmarrean hasi:** comenzar a murmurar; **errukarri:** digno de compasión; **axolagabe:** despreocupado, inconsciente; **Hori entzunik:** al oír eso; **bion artean:** entre ambos; **animalia:** animal; **planta:** actitud, facha; **astoena:** el más burro; **daramatena:** el que llevan; **ikasitakoa:** lo aprendido; **farregarri:** ridículo; **kito!** ¡se acabó!



● OHARRAK

● ASTOA SALDU NAHI ZUELA ESAN ZION

A menudo, al subordinar una oración además de incluir el sufijo subordinante (**-ela**, **-en**, **-t(z)eko**) debemos efectuar algunos cambios de persona, tiempo, etc... Lo mismo que en otras lenguas.

Por ejemplo:

IBONEK: "**Nere** autoan etorri **naiz**".

Zer esan du Ibonek?

Ibonek, **bere** autoan etorri **dela** esan du.

Pero si la subordinación se da en pasado la realizamos así:

IBONEK: "**Nere** autoan etorri **naiz**".

Zer esan zuen Ibonek atzo?

Ibonek **bere** autoan etorri **zela** esan zuen.

Otros ejemplos:

MUTILEK: "**Zer** egin behar **dugu** **hemen**".

Mutilek, **zer** egin behar **zuten** **han** galdetu **zuten**.

AMAK: "**Iñaki**, etorri **hona**!"

Amak, **hara** joateko esan zion **Iñakiri**.

OSABAK: "**Ogia** **bihar** erosiko **dut**".

Zer esan zuen atzo osabak?

Ogia **gaur** erosiko **zuela** esan zuen.

● ZERTARAKO NAHI DUTE ASTOA?

Recuerda que las formas terminadas en **-t(z)eko** sirven también para responder a la pregunta **zertarako (para qué)**

- Zertarako da ura?
- Ura, edateko da.

- *¿Para qué es el agua?*
- *El agua, es para beber.*


Sua, erretzeko.
Euritakoa, ez bustitzeko.
Ohea, lo egiteko.
etc...

El fuego, para quemar.
El paraguas, para no mojarse.
La cama, para dormir.
etc...

IKAS EZAZU HURRENGO ORRIALDEKOA.
ERREPASATZEKO 234. ORRIALDEA ERABIL EZAZU.

Hitz berriak:

soka:	cuerda	lapitz:	lápiz
lotu:	atar	marrazki:	dibujo
orrazi:	peine	maisu:	maestro
orraztu:	peinar	irakatsi:	enseñar, instruir
goilare:	cuchara	pospolu:	cerilla, fósforo
orratz:	aguja	irudi:	imagen, figura
josi:	coser	apaindu:	adornar
sendatu:	curar	igerileku:	piscina
kaiola:	jaula	igeri egin:	nadar
eduki:	tener, contener	zaindu:	cuidar
jokatu:	jugar	mukizapi:	pañuelo
gerriko:	cinturón	muki:	moco
eutsi:	sujetar	hiztegi:	diccionario
mailu:	martillo	hitz:	palabra
iltze:	clavo	bastoi:	bastón
guraizeak:	tijeras	lagundu:	ayudar
ebaki:	cortar	gutun:	carta
borroka:	lucha, pelea	albiste:	noticia
borroka egin:	luchar	bidali:	enviar
lapiko:	puchero, olla	jaso:	levantar
egosi:	cocer	neurtu:	medir




– Zertarako da soka?
– Soka, lotzeko da.



Orrazia,
orrazteko.



Goilarea,
zopa jateko.




Orratza,
josteko.



– Zertarako dira botikak?
– Gaixoak sendatzeko.



Kaiolak,
txoriak edukitzeko.



Frontoiak,
pilotan jokatzeko.



Gerrikoa,
frakei eusteko.



Mailua,
iltzeak sartzeko



Guraizeak,
ebakitzeko.



Armak,
borroka egiteko.



Lapikoa,
janariak egosteko.




Lapitza,
idazteko eta marrazkiak egiteko.




Maisua,
irakasteko.



Pospoluak,
sua pizteko.



Irudiak,
etxea apaintzeko.



Igerilekuak,
igeri egiteko.



Zakurra,
etxea zaintzeko




Mukizapia,
mukiak kentzeko



Hiztegiak,
hitzak begiratzeko.



Bastoia,
ibiltzen laguntzeko.



Gutunak,
albisteak bidaltzeko.



Gruak,
pisuak jasotzeko.



Metroa,
neurtzeko.

3. Erantzun galdera hauei parentesi artekoa erabiliz:

ZERTARAKO DA	1.	giltza?	(atea ireki)
	2.	labana?	(ebaki)
	3.	telefonoa?	(hitz egin)
	4.	eskopeta?	(ehizan ibili)
	5.	kalefazioa?	(etxea berotu)
	6.	belarra?	(abereek jan)
	7.	astoa?	(karga eraman)
	8.	behia?	(esnea eman)
	9.	esnea?	(gazta egin)
	10.	katua?	(saguak harrapatu)
	11.	gatza?	(janariei bota)
	12.	gasolina?	(autoak ibili)
	13.	gorbata?	(apaindu)
	14.	erlojua?	(ordua jakin)
	15.	pasaporte?	(muga igaro)
	16.	azoka?	(barazkiak erosi)
	17.	iturria?	(ura eman)

ZERTARAKO
DIRA

18.	eskolak?	(ikasi)
19.	aulkiak?	(eseri)
20.	zigarroak?	(erre)
21.	janariak?	(jan)
22.	edariak?	(edan)
23.	arrautzak?	(tortila egin)
24.	egunkariak?	(albisteak irakurri)
25.	betaurrekoak?	(hobeto ikusi)
26.	zubiak?	(ibaiak igaro)
27.	eskailerak?	(igo eta jaitsi)
28.	artzainak?	(artaldea zaindu)
29.	medikuak?	(gaisoak sendatu)

4. Itzul itzazu esaldi hauek:

1. El agua es para beber.
2. El pan es para comer.
3. Estos papeles son para escribir.
4. Aquellos otros para hacer dibujos.
5. Ese dinero es para comprar la carne.
6. Aquel camino es para ir a mi pueblo.
7. Esta camisa es para vestirla el domingo.
8. Necesito esos libros para llevarlos a casa.
9. Para hablar con mi hermano tienes que ir a la oficina.
10. Para aprender francés hay que ir a Francia.

● IDAZTEKO MAKINA


Las formas terminadas en **-t(z)eko** pueden tener también una función de modificador indirecto, en cuyo caso vienen antes del núcleo, antes del nombre que modifican, a su izquierda:

bizarra kentzeko makina	<i>máquina de afeitar</i>
lan egiteko tresna	<i>instrumento para trabajar</i>
edateko gogoa	<i>ganas de beber</i>
goiz jaikitzeke ohitura	<i>costumbre de levantarse temprano</i>
bazkaltzeko ordua	<i>la hora de comer</i>
jolas egiteko garaia	<i>momento para jugar</i>

IKAS EZAZU HURRENGO ORRIALDEA
ERREPASATZEKO 235.a ERABIL EZAZU.

hitz berriak:


lehortu:	secar
tresna:	instrumento, aparato, herramienta
mintzatu:	hablar
neurtu:	medir
kutxa:	arca, cofre, caja
garagardo:	cerveza
pitxer:	jarra
komun:	retrete
gogo:	gana(s de)
asmo:	intención
erre:	fumar
ohitura:	costumbre
garai:	tiempo, época
atseden hartu:	descansar



Hau
argazkiak egiteko makina da.



Beste hau,
idazteko makina.




Hau,
josteko makina da.




Hau,
ilea lehortzeko tresna da.



Mikrofonoa,
mintzatzeko tresna da.



Eta termometroa,
tenperatura neurtzeko tresna.



Hau,
dirua gordetzeko kutxa da.



Hau
garagardoa edateko pitxerra.



Basiliok,
jateko gogoa du.



Haurrak,
komunera joateko gogoa du.




Maribik,
mendira joateko asmoa du.



Xantik
erretzeko ohitura du.



Ebaristori,
jaikitze ordua iritsi zaio.



Eguerdia,
bazkaltzeko garaia da.



Igandea,
atseden hartzeko eguna da.

5. *Esaldi hauek itzultzeko –t(z)eko erabili behar duzu:*

1. Esta, es la bolsa para traer el pan.
2. Esto, es el recipiente para tener la sal.
3. El teléfono es un instrumento para hablar.
4. El verano es época de ir a la playa.
5. El lunes es día de ir al trabajo.
6. Es hora de irse a la cama.
7. Esto no es sitio para jugar.
8. Hemos dejado el coche en el sitio de aparcar.
9. Este hombre tiene costumbre de beber.
10. No tengo costumbre de fumar.
11. Ayer compré una herramienta para hacer agujeros.
12. No han arreglado la máquina de lavar la ropa.
13. Tenemos intención de hablar con Joseba.
14. Mis amigos no tenían intención de ir al trabajo.
15. Los niños tienen gana(s) de salir a la calle.
16. Tengo ganas de ver esa película.

HUMOREA

● KONTZERTUA

Senar-emazte bi kontzertu bat entzuten ari dira. Halako batean andreak besoan jotzen du gizona eta aldamenekoa seinalatuz esaten dio:

- Ikusi arlote hori! Lo dago!
- Eta hori esateko esnatzen nauzu?

● HORTZAK GARBITZEKO PASTA

Amak dendara joateko esaten dio Beñardori eta hortzak garbitzeko pasta erosteko.

Dendara doa Beñardo eta esaten dio saltzaileari:

- Hortzak garbitzeko pasta nahi dut...
- Zein marka nahi duzu?
- Ez dakit, bada...
- Begira. Hau hortzak indartzeko da, beste hau arnasari usain ona emateko, beste honekin sariak ematen dituzte, beste honekin kromoak, beste hau...
- Barkatu, jauna. Nik hortzak garbitzeko nahi dut...

- | |
|---|
| <ol style="list-style-type: none">1. Kontzertu: concierto; arlote: rudo, inculto; esnatzen nauzu: me despiertas.2. Indartu: fortalecer; arnasa: aliento; usain: olor; sari: premio. |
|---|

● BISTA TXARRA

Matias kotxe handi eta zabal horietako batean iritsi da lantegira. Lagun batek galdetzen dio:

- Matias, zertarako erosi duzu halako kotxe handia?
- Zera... bista txarra dut eta errazago aurkitzeko...

● JATEKO GOGOA

Emakume gizen bat sendagilearekin ari da hizketan:

- Jauna, jateko gogo izugarria izaten dut eta gehiegi gizentzen ari naiz. Zer egin behar dut piska bat flakatzeko?
- Flakatzeko? Berdura, fruta, zumoak eta gazta hartu behar dituzu...
- Ederki. Baina hori noiz, bazkaldu aurretik ala ondoren?

● GELTOKIAN

Trena Altsasuko geltokira iritsi da. Ambrosiok zerbait hartzeko gogoa du eta burua ateratzen du leihotik. Mutiko bat ikusten du eta hurbiltzeko keinua egiten dio:

- Aizu, mutiko! Tori berrehun pezeta eta erosi azkar bi bokadilo: bat zuretzat eta bestea neretzat.

Mutikoak korrika alde egiten du eta bi minutu barru hantxe dago berriz:

- Tori ehun pezeta hauek –esaten dio Ambrosiori–. Bokadilo bakarra zegoen...

● BETAURREKOAK

- Ama, aitona hil zenean zerura joan al zen?
- Bai, semetxo. Zerura joan zen.
- Larri ibiliko da orduan atea aurkitzeko...
- Zer, bada?
- Betaurrekoak hemen utzi zituen eta...

- | |
|--|
| <p>3. Errazago: más fácilmente.
4. Gizendu: engordar; piska bat: un poco; flakatu: adelgazar; bazkaldu aurretik: antes de comer.
5. Geltoki: estación; kein: seña, gesto.</p> |
|--|

● ARIKETAK

6. *Perpaus hauek subordinatzeko, enuntziatiboak, galderak ala aginduak diren hartu behar duzu gogoan.*

Para subordinar estas oraciones has de tomar en cuenta si son enunciativas, interrogativas o imperativas:

1. ARTZAINAK: "Norena da zakurra"
Zer galdetu du artzainak?
2. EHIZTARIAK: "Nerea"
Zer erantzun dio ehiztariak?
3. TABERNAKO ANDREAK : "Atera ezazue zakurra kanpora!"
Zer esan du tabernako andreak?
4. LAPURRAK JENDEARI: "Jaso eskuak!"
Zer agindu dio lapurrak jendeari?
5. ERTZAINAK LAPURRARI: "Zertarako nahi duzu dirua?"
Zer galdetzen dio ertzainak lapurrari?
6. LAPURRAK ERTZAINARI: "Goxokiak erosteko".
Zer erantzuten dio lapurrak ertzainari?
7. ATSO BATEK: "Gezurra dirudi!"
Zer esaten du atso batek?
8. IRAKASLEAK IKASLEEI: "Bildu paper guztiak!"
Zer agindu die irakasleak ikasleei?
9. BIXENTEK IRAKASLEARI: "Gero zer egin behar dugu?"
Zer galdetu dio Bixentek irakasleari?
10. IRAKASLEAK: "Matematikak ikas itzazue!"
Zer erantzun dio irakasleak?
11. MUTILAK: "Herenegun Eibarren izan ginen eta ederki bazkaldu genuen".
Zer esan du mutilak?
12. XANTIK: "Peruk tontoa naizela esan du eta ez diot barkatuko!"
Zer esan du Xantik?

13. XEBASTIANEK: "Atzo ez nintzen lanera joan eta pelikula bat ikusi nuen!"
Zer esan du Xebastianek?
14. AMAK HAURRARI: "Oso goiz da oraindik: itzali ezazu telebista eta zoaz kalera lagunekin jolastera".
Zer esan dio amak haurrari?
15. AITAK: "Zeinek itxi du atea? Giltza ekarri eta berehala ireki ezazue".
Zer esan du aitak?
16. OSABAK JOSETXORI: "Etorri hona eta zergatik egin duzun hori esan ezazu"
Zer eskatu dio osabak Josetxori?
17. GORKAK FELIPERI: "Irakur itzazu egunkariak eta gero nere gelan utzi itzazu".
Zer agindu dio Gorkak Feliperi?
18. BASERRITARRAK: "Zeinek bota du harria?"
Zer galdetu du baserritarrak?
19. UMEAK: "Nik ez. Beste batek".
Zer erantzun dio umeak?

7. Itzulpena

La madre pregunta qué hora es. El padre le responde que las doce. La madre cree que es muy tarde y le pregunta a Tere dónde está Imanol. Esta le responde que ha ido a casa de Joseba. Entonces la madre le dice que llame a casa de Joseba. Tere dice que no sabe el número y la madre le dice que mire en el libro. Tere llama y pregunta si es la casa de Joseba. Le contestan que sí. Pregunta a ver si Imanol esta allí y le contestan que no, que ha salido y que estén tranquilos, que pronto llegará a casa.

8. Irakur ezazu elkarrizketa hau eta gero galderei erantzun:

1. DENDARIAK: Zer nahi duzu, Kepa?
2. KEPAK: Botak erosi nahi ditut.
3. DENDARIAK: Zuk ikusi eta aukeratu.
4. KEPAK: Zenbat balio dute beltz horiek?
5. DENDARIAK: Lau mila pezeta.
6. KEPAK: Garesti samarrak iruditzen zaizkit...
7. DENDARIAK: Nolakoak nahi dituzu, bada?
8. KEPAK: Mendian ibiltzeko behar ditut.
9. DENDARIAK: Eraman itzazu orduan. Larruzkoak dira eta ez zaie urik sartuko.

● GALDERAK

1. Zer galdetu dio dendariak Kepari?
2. Zer erantzuten dio Kepak?
3. Zer esaten dio dendariak?
4. Zer galdetzen dio Kepak?
5. Zer erantzuten dio dendariak?
6. Zer dio Kepak?
7. Zer galdetzen dio dendariak?
8. Zer erantzuten dio Kepak?
9. Zer esaten dio dendariak?

HURRENGO IPUINA, "BESTE BATI", BURUZ IKASI BEHAR DUZU.
Itzulpena erantzunetan dator.

"BESTE BATI"

Duela zenbait urte, Emeterio eta Benita, bi arabar erdaldun, ezkondu eta Donostiara joan ziren ezta bidaian. Ordu bietan heldu ziren goseak amorratzen eta Parte Zaharreko jatetxe batera sartu ziren zerbait jateko asmotan. Neska batek janari-karta mahai gainean utzi eta alde egin zuen berehala. Gure lagunek karta hartu zuten baina ez bata eta ez besteak ez zekiten irakurtzen.

- Zer eskatuko dugu? -galdetu zuen Emeteriok.
- Ez dakit, bada... -erantzun zion Benitak-. Gauza berria izanez gero niri berdin zait, aspertua bait nago beti patatak jaten...

Neska etorri zen berriro:

- Zer hartuko duzue?

Eta Emeteriok karta hartuta:

- Zera... Ekatzu hau... gero hau... eta hau...

Neskak nota hartu eta sukaldera joan zen.

Zerbait itxaron ondoren laster agertu zen bazkariarekin: lehen platera porru-patatak ziren, bigarrena patatak saltsan, eta hirugarrena patata frejituak.

- Ederra egin dugu! -esan zuen Benitak-. Patatak ez jateagatik Donostiara etorri eta orain nazkatu arte jan behar!

Eta isil-isilik jaten hasi ziren.

Aldameneko mahaian gizon bat ikusi zuten kokotxak jaten. Bukatu zuenean behatza jaso eta "beste bat" eskatu zuen, euskaraz. Orduan beste kaxuelatxo bat ekarri zion neskatxak.

- Guk ere "beste bat" eskatu behar dugu -esan zuen Emeteriok-. Goxoa dirudi eta.

Eta berdin egin zuen: behatza jaso eta "beste bat" eskatu zuen. Eta neskak beste platerkada bat patata ekarri zien.

Ahal zuten bezala patata haiek ere jan eta azkenean kanpora atera ziren.

Kontxa aldean buelta bat eman ondoren jaialdi batera joan ziren. Sartu zirenean mutil bizardun bat ari zen kantatzen eta gitarra jotzen. Amaitu zuenean txalo beroak jo zizkion jendeak eta "Beste bat!! "Beste bat!!" eskatzen hasi ziren oihuka.


Orduan Emeterio estu eta larri altxa zen eta emazteari besotik helduta esan zion:

– Goazen! Goazen agudo hemendik! Bestela patatak jan beharko ditugu berriz eta!!!

● GALDERAK

1. Emeteriok eta Benitak ba al dakite euskaraz?
2. Ze ordutan eta nola iritsi ziren Donostiara?
3. Nora joan ziren bazkaltzera?
4. Nork irakurri zuen karta?
5. Benitak zer eskatu nahi zuen?
6. Zeinek aukeratu zituen janariak?
7. Zertan ari zen aldameneko gizona?
8. Zer egin zuen gizonak kokotxak jan zituenean?
9. Gizona ere erdalduna zen?
10. Emeterioren ustez zer zen "beste bat"?
11. Kontxan ibili ondoren, nora joan ziren?
12. Nor ikusi zuten jaialdian?
13. Ongi kantatu al zuen?
14. Zer eskatu zion jendeak?
15. Emeteriok eta Benitak ere txaloak jo zituzten?
16. Zer uste zuten Emeterio eta Benitak?

Duela zenbait urte: hace algunos años; **arabar:** alavés; **eztai bidaia:** viaje de bodas; **heldu:** llegar; **goseak amorratzen:** rabiando de hambre; **ez batak eta ez besteak:** ni el uno ni el otro; **ez zekiten:** no sabían; **gauza berria izanez gero:** con tal de que sea cosa nueva; **zera:** muletilla que se emplea cuando no se encuentra la palabra precisa; **ekatzu:** traiga (Vd.); **porru-patatak:** puerros con patatas; **saltsa:** salsa; **ez jateagatik:** por no comer; **nazkatu arte:** hasta asquearse; **behatz:** dedo; **kaxuelatxo:** cazuelita; **beste platerkada bat patata:** otro plato de patatas; **ahal zuten bezala:** como podían; **bizardun:** barbudo; **txalo beroak jo zizkionten:** le aplaudieron calurosamente; **estu eta larri:** apurado; **agudo:** rápidamente; **bestela:** si no.




– Zertarako da soka?



Orrazia,



Goilarea,




Orratza,



– Zertarako dira botikak?



Kaiolak,



Frontoiak,



Gerrikoa,



Mailua,



Guraizeak,



Armak,



Lapikoa,




Lapitza,




Maisua,



Pospoluak,



Irudiak,



Igerilekuak,



Zakurra,



Mukizapia,



Hiztegiak,



Bastioa,





Gutunak,



Gruak,




Metroa,



Hau

Beste hau,




Hau,

tresna da.

Mikrofonoa,

Eta termometroa,



Hau,

Hau

Basiliok,

gogoa du.



Haurrak,

gogoa du.

Maribik,

asmoa du.

Xantik

ohitura du.



Ebaristori,

ordua iritsi zaio.

Eguerdia,

garaia da.

Igandea,

eguna da.

12. IKASKAIA

GERO ETA HOBETO

El adjetivo en euskera admite tres grados a los que corresponden otros tantos sufijos: el grado comparativo (**-ago**), el superlativo (**-en**) y en el grado de exceso (**-egi**). Estas referencias al adjetivo valen también para el adverbio.

1. EL GRADO COMPARATIVO: -AGO

La comparación en euskera puede ser de igualdad o de superioridad. La comparación de inferioridad (menos grande, menos caro, etc...) no existe en euskera.

Este tema vamos a tratar inicialmente de la comparación de superioridad.

El grado comparativo se forma añadiendo al lexema el morfema **-ago**:

handi	→	handiago	(más grande, mayor)
txiki	→	txikiago	(menor)
polit	→	politago	(más bonito)
egoki	→	egokiago	(más apropiado)
garesti	→	garestiago	(más caro)
berandu	→	berandago	(más tarde)
urruti	→	urrutiago	(más lejos)
etc...			

La conjunción empleada en este tipo de comparación es **baino**, resultando la siguiente estructura:

A B baino ...-agoa da

Ejemplos:

Bilbo Donostia **baino handiagoa** da.
(*Bilbao es mayor que San Sebastián*)

Donostia Bilbo **baino politagoa** da.
(*San Sebastián es más bonito que Bilbao*)

Ura ardoa **baino merkeagoa** da.
(*El agua es más barata que el vino*)

Ardoa ura **baino garestiagoa** da.
(*El vino es más caro que el agua*).

● HOBE

Una excepción de lo dicho anteriormente es el adjetivo **on** cuyo comparativo es **hobe**.

Nere erlojua ona da, baina zurea **hobe**a.
(*Mi reloj es bueno, pero el tuyo mejor*)

Gaurko eguraldia atzokoa baino **hobe**a da.
(*El tiempo de hoy es mejor que el de ayer*)

● HOBETO

La forma comparativa del adverbio **ondo** es **hobeto**.

Nere erlojua ondo dabil, baina zurea **hobeto**.
(*Mi reloj anda bien, pero el tuyo mejor*)

Ibonek Eustakiok baino **hobeto** hitz egiten du.
(*Ibon habla mejor que Eustaquio*)

- | | |
|--------------------------|-----------------------------|
| – Zer moduz dago gaisoa? | – ¿Qué tal está el enfermo? |
| – Hobeto . | – <i>Mejor.</i> |

● GEHIAGO / GUTXIAGO

La comparación de cantidad se realiza por medio de **gehiago** (más) y **gutxiago** (menos).

Anek Pilik baino **gehiago** erretzen du.
(*Ane fuma más que Pili*)

Aberatsek pobreek baino diru **gehiago** dute.
(*Los ricos tienen más dinero que los pobres*)

Zuk nik baino **gutxiago** dakizu.
(*Tú sabes menos que yo*)

Orain lehen baino **gutxiago** irabazten dugu.
(*Ahora ganamos menos que antes*)

Gehiago nahi dut.
(*Quiero más*)

HUMOREA

● GAIZTOAGOA

Edurnetxok honela galdetzen dio amari:

- Ama, zergatik dituzu ile txuriak?
- Zu gaiztoa zarelako!
- Orduan... zu gaiztoagoa zara...
- Zergatik diozu hori?
- Amonak zuk baino txuriagoak dituelako...

● PUSKA HANDIAGOA

Egun batean zakur batek haragi puska bat darama ahoan. Putzu batera iristen da eta bere irudia ikusten du uretan. Beste zakur bat delakoan honela hitz egiten du:

– Hara! Zakur horren haragi puska nerea baino handiagoa da! Kendu egingo diot!

Hori esatean ahoa irekitzen du eta zatia uretara erortzen zaio, eta orduan batere gabe geratzen da...

● ANDEREÑO HOBEA

Andereñoak ikastolan:

- Oso alferra zara, Estitxul! Zazpi urte dituzu eta oraindik ez dakizu irakurtzen! Urte horietan liburu handiak irakurtzen nituen nik!
- Andereño hobe izango zenuen segur aski...

1.– Txuri: diminutivo de zuri.

2.– Puska: pedazo; putzu: pozo; beste zakur bat delakoan: creyendo que es otro perro.

He aquí una lista de adjetivos y adverbios que a estas alturas debes conocer ya en su mayoría. Repásalos y aprende los que te resulten nuevos.

ADJETIBOAK

bueno	on	txar	malo (calidad)
mejor	hobe		
hermoso	eder	itsusi	feo
bonito	polit		
honrado, formal	zintzo	gaizto	malo (malvado)
dócil, formalito	txintxo	petral	indócil, atravesado
		bihurri	travieso
alegre	alai	triste	triste
joven	gazte		
nuevo	berri	zahar	viejo
agradable, afable	atsegin	zakar	tosco
castizo, campechano	jator	gezurti	mentiroso
humilde	apal	harro	orgullosa
		pobre	pobre
rico	aberats	behartsu	necesitado
		motel	lento
rápido, listo	azkar	baldar	torpe
vigoroso, ágil	bizkor	trakets	torpe
habilidoso	trebe	alfer	vago
trabajador	langile	axolagabe	despreocupado
esforzado	saiatu	estu	apurado
tranquilo	lasai	desegoki	inadecuado
adecuado	egoki	kaltegarri	perjudicial
necesario	beharrezko	oker	torcido, incorrecto
recto, correcto	zuzen	zikin	sucio
limpio	garbi	narras	desaliñado
arreglado, pulcro	txukun	ilun	oscuro
claro	argi	hotz	frío
caliente	bero		
templado	epel	lehor	seco
mojado	busti	gazi	salado
dulce	gozo		
fácil	erraz	zail	difícil
tierno	samur		
blando	bigun	gogor	duro
ligero	arin	astun	pesado
barato	merke	garesti	caro
grande	handi	txiki	pequeño
largo	luze	motz	corto
ancho	zabal	estu	estrecho
grueso	lodi	mehe	delgado
		zorrotz	afilado, agudo
		argal	delgado
gordo	gizen	flako	flaco
redondo	borobil		

negro
rojo
azul

beltz
gorri
urdin

zuri
berde
hori

blanco
verde
amarillo

ADBERBIOAK

mucho
más
bien
mejor
temprano
antes
cerca
arriba

asko
gehiago
ondo
hobeto
goiz
lehen
hurbil
gora

gutxi
gutxiago
gaizki
okerrago
berandu
gero
urruti
behera

poco
menos
mal
peor
tarde
luego
lejos
abajo


HURRENGO ORRIALDEAK BURUZ IKAS ITZAZU.
Gogoratzeko 264 eta 265 orrialdeak erabil itzazu.



Neska mutila baino politagoa da.
Mutila neska baino itsusiagoa da.



Emakumea gizona baino gazteagoa da.
Gizona emakumea baino zaharragoa da.




Zaldia zerria baino flakoagoa da.
Zerria zaldia baino gizenagoa da.

AITOR XABIER




Aitor Xabier baino gaiztoagoa da.
Xabier Aitor baino txintxoagoa da.


MIRENTXU JOSETXO




Mirentxuren notak Josetxorenak baino
hobeak dira.
Josetxoren notak Mirentxurenak baino
txarragoak dira.




Musika matematikak baino errazagoa da.
Matematikak musika baino zailagoak dira.



Olio esnea baino garestiagoa da.
Esnea olio baino merkeagoa da.




Negua uda baino hotzagoa izaten da.
Uda negua baino beroagoa izaten da.




**Herriak hiriak baino txikiagoak izaten dira.
Hiriak herriak baino handiagoak izaten dira.**




**Leihoa atea baino estuagoa da.
Atea leihoa baino zabalagoa da.**



**Haria soka baino meheagoa da.
Soka haria baino lodiagoa da.**




**Harria ogia baino gogorragoa izaten da.
Ogia harria baino bigunagoa izaten da.**



**Burdina egurra baino astunagoa da.
Egurra burdina baino arinagoa da.**



**Kea hodeia baino luzeagoa da.
Hodeia kea baino borobilagoa da.**



**Neskaren frakak mutilarenak baino
motzagoak dira.
Mutilaren frakak neskarenak baino
luzeagoak dira.**



**Karakola erbia baino motelagoa da.
Erbia karakola baino azkarragoa da.**

● LA COMPARACION ADVERBIAL

Cuando la comparación es de tipo adverbial no suele llevar el determinante –a que normalmente aparece en la comparación adjetiva, de cualidad. Observa esta diferencia en los siguientes ejemplos:

Hau errazagoa da.
(Esto es más fácil)

Honela errazago egingo dugu.
(Así lo haremos más fácilmente)

Ibon Arantxa baino jatorragoa da.
(Ibon es más castizo que Arantxa)

Ibonek Arantxak baino jatorrago hitz egiten du.
(Ibon habla más castizamente que Arantxa)

Erbia zakurra baino azkarragoa da.
(La liebre es más rápida que el perro)

Erbia zakurra baino azkarrago dabil.
(La liebre anda más rápido que el perro)

Otros ejemplos:

Hemen lasaiago mintzatuko gara.
(Aquí hablaremos más tranquilamente)

Orain okerrago bizi gara.
(Ahora vivimos peor)

Argiago hitz egin ezazu!
(¡Habla más claro!)

Xabier urrutiago bizi da.
(Xabier vive más lejos)

● LA COMPARACION PROGRESIVA: GERO ETA -AGO.

Las expresiones tipo **cada vez más ...** se construyen con la fórmula:

GERO ETA ...-AGO

● Ejemplos:

gero eta aberatsagoa	<i>cada vez más rico</i>
gero eta tontoagoa	<i>cada vez más tonto</i>
gero eta zaharragoa	<i>cada vez más viejo</i>
gero eta okerrago	<i>cada vez peor</i>
gero eta hobeto	<i>cada vez mejor</i>
gero eta beranduago	<i>cada vez más tarde</i>
gero eta gutxiago	<i>cada vez menos</i>

● BAKEZALEAK

Tabernako atea irekitzen da eta marinela bizardun baten burua agertzen da. Itxura gogorra du eta barrukoei begira honela mintzatzen da:

– Zeinek nahi du borrokan egin!

Jendea ikaratua dago eta inork ez dio erantzuten. Orduan marinela gero eta fuertago:

– Zeinek nahi duen borrokan egin galdetu dut!


Isil-isilik begiratzen diote eta inor ez da mugitzen ere ausartzen.

Azkenean agure txiki batek dardarka esaten dio:

– Jauna, hemen inork ez du borrokarik nahi, bakezaleak gara denok...

– Tira! Orduan lasai sartuko naiz!

3.– **Bakezale:** pacífico, amigo de la paz; **marinel:** marinero; **ausartu:** atreverse; **dardarka:** temblando.



Aberatsek pobreek baino diru gehiago izaten dute.
Pobreek aberatsek baino diru gutxiago izaten dute.

Nagusia langilea baino beranduago etorri da.
Langilea nagusia baino lehenago etorri da.

Barruan kanpoan baino ilunago dago.
Kanpoan barruan baino argiago dago.

Herria lantegia baino gorago dago.
Lantegia herria baino beherago dago.

Kalea baserria baino hurbilago dago.
Baserria kalea baino urrutiago dago.

Keparen azaroak gero eta hobeto doaz.

Gaisoa gero eta okerrago dago.

● ARIKETAK

1. *Esaldiak elkartuz egin itzazu perpaus konparatiboak. Honela:*

Neska txikia da; mutila oso txikia da.

→ *Mutila neska baino txikiagoa da.*

- 1.– Arrate alferra da; Ibon oso alferra da.
- 2.– Martin gizona da; Xabier oso gizona da.
- 3.– Isabelen (soineko)a argia da; Arantxaren soinekoa oso argia da.
- 4.– Fisika liburua lodia da; hiztegia oso lodia da.
- 5.– Aitona bizkorra dago; amona oso bizkorra dago.
- 6.– Ehiztariak gezurtiak dira; arrantzaleak oso gezurtiak izaten dira.
- 7.– Erbiak azkarrak dira; galgoak oso azkarrak dira.
- 8.– Frakak bustiak ditut; zapatak oso bustiak ditut.
- 9.– Eneko bihurri samarra da; Itziar oso bihurria da.
- 10.– Ilargia argia da; eguzkia oso argia da.
- 11.– Nik zerbait dakit; zuk asko dakizu.
- 12.– Anderrek diru piska bat dauka; Ainhoak diru asko dauka.

2. *Egin itzazu perpaus konparatiboak hurrengo adibidean bezala:*

Nafarroa, Gipuzkoa / handi, txiki

→ *Nafarroa Gipuzkoa baino handiagoa da.*
Gipuzkoa Nafarroa baino txikiagoa da.

- 1.– Ondarroa, Bilbo / handi, txiki.
- 2.– Alaska, Argelia / hotz, bero.
- 3.– Karakola, sagua / azkar, motel.
- 4.– Metroa, kilometroa / luze, motz.
- 5.– Goiza, eguerdia, hotz, epel.
- 6.– Gaua, eguna / ilun, argi.
- 7.– Larunbatak, astelehenak / alai, triste.
- 8.– Ogia, tabakoa / beharrezko, kaltegarri.
- 9.– Egurra, burdina / gogor, bigun.
- 10.– Galizia, Burgos / busti, lehor.
- 11.– Globoak, butano bonbonak / astun, arin.
- 12.– Ibaiak, errekek / zabal, estu.
- 13.– Zaharrak, gazteak / baldar, bizkor.
- 14.– Aldizkariak, liburuak / mehe, lodi.
- 15.– Ibaietako ura, itsasoko ura / gazi, gozo.
- 16.– Garajeak, bulegoak / zikin, txukun.
- 17.– Zerua, zelaiak / berde, urdin.

- 18.– Behiaren haragia, astoaren haragia / gogor, samur.
- 19.– Jauregiak, txabolak / eder, itsusi.
- 20.– Lagunak, etsaiak / gaizto, on.
- 21.– Gurasoak, seme-alabak / zahar, gazte.
- 22.– Orratza, behatza, lodi, zorrotz.
- 23.– Hiriak, herriak / handi, txiki.
- 24.– Aberatsak, pobreak / harro, apal.
- 25.– Esnea, kafea / zuri, beltz.
- 26.– Hortzak, ezpainak / zuri, gorri.
- 27.– Irratiak, telebistak / garesti, merke.
- 28.– Loreak, barazkiak / polit, itsusi.
- 29.– Makilak, sokak / gogor, bigun.
- 30.– Udaberria, negua / epel, hotz.
- 31.– Opariak, zigorrak / atsegin, txar.
- 32.– Telefonoz hitz egitea, eskutitzak idaztea / zail, erraz.
- 33.– Trenak, hegazkinak / azkar, motel.
- 34.– Txapela, alkandora / argi, ilun.
- 35.– Botak, sandaliak / arin, astun.
- 36.– Zigarroa, puroa / mehe, lodi.

3. *Erantzun iezaiezu galdera hauei honela:*

- *Zein da zaharragoa, aita ala aitona?*
- *Aitona da zaharragoa.*

- 1.– Zein da garestia, ardoa ala txanpaina?
- 2.– Zein da merkeagoa, ura ala esnea?
- 3.– Zein da luzeagoa, ordua ala minutua?
- 4.– Zein da motzagoa, minutua ala segundua?
- 5.– Zein da errazagoa, lan egitea ala jolas egitea?
- 6.– Zein da txarragoa, pulmonia ala katarroa?
- 7.– Zein dira borobilagoak, sagarrak ala pilotak?
- 8.– Zer da hobeagoa, esatea ala gezurra esatea?
- 9.– Zein dira luzeagoak, ipuinak ala nobelak?
- 10.– Zeinek daki gehiago, ikasleak ala irakasleak?
- 11.– Larunbatean zein egoten dira beteagoak, bibliotekak ala disko-tekak?
- 12.– Zeinek balio du gehiago, pezetak ala duroak?
- 13.– Zein ibiltzen dira okerrago, kotxe zaharrak ala berriak?
- 14.– Urtean zehar zein dira gehiago, jai egunak ala lan egunak.

4. Itzul itzazu perpaus konparatibo hauek:

- 1.– Esto es mayor que eso.
- 2.– Vuestra casa es más nueva que la nuestra.
- 3.– Kepa es más trabajador, pero Mikel es más listo.
- 4.– Imanol es más viejo que tú.
- 5.– Maribel es más guapa que su hermana.
- 6.– Este libro es bueno, pero aquél es mejor.
- 7.– Aquí las cosas son peores y más caras.
- 8.– El pan de ayer está más duro que el de hoy.
- 9.– El café está más caliente que la leche.
- 10.– Esta habitación es más fría que ésta.
- 11.– Pekín está más lejos que París.
- 12.– Tú fumas más que yo.
- 13.– Quiero más.
- 14.– Los jóvenes saben menos que los viejos.
- 15.– Habéis llegado antes que nosotros.
- 16.– El vestido de esta chica es más claro que el de ésta.
- 17.– Tu camisa está más limpia que la mía.
- 18.– La bicicleta es más lenta que la moto.
- 19.– Este jersey tiene un brazo más corto que (el) otro.
- 20.– El francés es más fácil que el alemán.

2. EL GRADO SUPERLATIVO: -EN

El grado superlativo se forma añadiendo al lexema el sufijo **-en**:

on	→	onena	<i>(el mejor)</i>
txar	→	txarrena	<i>(el peor)</i>
handi	→	handiena	<i>(el mayor)</i>
txiki	→	txikiena	<i>(el menor)</i>
polit	→	politena	<i>(el más bonito)</i>
maite	→	maiteena	<i>(el más querido)</i>

Garestiena ez da beti onena izaten.
(Lo más caro no siempre es lo mejor)

Alaba txikienak hiru urte ditu.
(La hija menor tiene tres años)

Neu naiz zaharrena.
(El más viejo soy yo)

● Es muy frecuente el uso del partitivo (**-ik**) para resaltar la superioridad de un elemento sobre los restantes:

Gizonik aberatsena	El más rico de los hombres
Gauzarik ederrena	La cosa más hermosa
Arazorik inportanteena	El asunto más importante
Haurrik politena	El niño más guapo

● GEHIEN

El superlativo **gehien** es muy empleado para expresar ideas análogas a **el máximo, lo que más, la mayor cantidad, la mayoría, etc...**

Haurrak gehiena jan du.	El niño ha comido casi todo. (la mayor parte)
Jende gehiena konforme dago.	La mayoría de la gente está conforme.
Gehienak etorri dira.	Ha(n) venido la mayoría.
Gehienek ezetz esan dute.	La mayoría han dicho que no.
Gehienetan etxean bazkaltzen dut.	Normalmente suelo comer en casa.



SORGINA

EDURNEZURI

IPOTXA

PRINTZEA

– **Zein da politena?**

– Politena, Edunezuri da.

– **Zein da itsusiena?**

– Itsusiena, sorgina da.

– **Zein da dotoreena?**

– Dotoreena, printzea da.

– **Zein da txikiena?**

– Txikiena, ipotxa da.

– **Zein da altuena?**

– Altuena, printzea da.

– **Zein da gizenena?**

– Gizenena, ipotxa da.

– **Zein dira gazteenak?**

– Gazteenak, Edunezuri eta printzea dira.

– **Zein dira zaharrenak?**

– Zaharrenak, sorgina eta ipotxa dira.

– **Zeinek du bizar gehiena?**

– Bizar gehiena, ipotxak du.

5. *Galdera hauei erantzuteko eskuineko hitz bat aukeratu behar duzu:*

ZEIN DA...	1.– munduko mendirik altuena?	(<i>larunbata</i>)
	2.– ibairik zabalena?	(<i>astelehena</i>)
	3.– ibairik luzeena?	(<i>jirafa</i>)
	4.– itsasorik zabalena?	(<i>elefantea</i>)
	5.– herririk handiena?	(<i>Siberia</i>)
	6.– tokirik hotzena?	(<i>Sahara</i>)
	7.– tokirik beroena?	(<i>Txina</i>)
	8.– libururik irakurriena?	(<i>Pazifikoa</i>)
	9.– animaliarik luzeena?	(<i>Everest</i>)
	10.– animaliarik indartsuena?	(<i>Amazonas</i>)
	11.– asteko egunik alaiena?	(<i>Nilo</i>)
	12.– asteko egunik tristeena?	(<i>Biblia</i>)
ZEIN IZAN DA...	13.– gizonik zaharrena?	(<i>Herodes</i>)
	14.– gizonik aberatsena?	(<i>Rostchild</i>)
	15.– matematikorik jakintsuena?	(<i>Al Capone</i>)
	16.– pintorerik onena?	(<i>Matusalen</i>)
	17.– musikorik ospetsuena?	(<i>Einstein</i>)
	18.– eskultorerik trebeena?	(<i>Velázquez</i>)
	19.– gansterrik famatuena?	(<i>Beethoven</i>)
	20.– erregerik gaiztoena?	(<i>Migel Anjel</i>)

6. *Esaldi hauek euskaraz eman itzazu:*

- 1.– Las cosas más hermosas suelen ser las más antiguas.
- 2.– Colocaros los más pequeños delante y los más grandes detrás.
- 3.– Este restaurante es el más caro, pero no el mejor.
- 4.– Lo más barato no siempre es lo peor.
- 5.– El sitio más oscuro es el más apropiado para ver la televisión.
- 6.– Eugenio es el más listo, pero también el más vago.
- 7.– Poned las cosas más pesadas debajo y las más ligeras encima.
- 8.– Los libros más gruesos suelen ser los diccionarios.
- 9.– Esta habitación es la más fría en invierno y la más caliente en verano.
- 10.– El hermano más viejo vive en Beasain y el más joven en Tolosa.
- 11.– La mayoría de la gente vive en estos barrios.

HUMOREA

● ETSAIRIK HANDIENA

Beñardo erretzaile amorratua da. Beti dauka zigarroa ezpainetan, eta zigarroa ez denean, puroa. Andreak ez daki zer egin ohitura txar hori kentzeko eta egun batean honela esaten dio:

- Beñardo! Tabakoa duzu etsairik handiena!
- Entzun diozu, bada, gaur goizean apaizari etsaiak ere bihotzez maite izan behar ditugula!

● MERKEENA

Gizon xuhur eta diruzale bat hilzorian dago ohean. Honen hiru semeak inguruan daude hizketan eta zaharrenak honela dio:

- Gure aitak hileta ospetsua merezi du. Dotoreena eta garestiena egingo diogu. Lehen mailakoa egingo diogu eta zaldi kotxez eramango dugu kanposantura.

Bigarren semeak, ordea, ongi ezagutzen ditu aitaren ohiturak eta honela esaten du:

- Bai zera! Hori garestiegia da. Merkeagoa egingo diogu: bigarren mailakoa ere nahikoa izango da!

Eta gazteenak:

- Onena behartsu moduan eramatea izango da eta udaletxeko kotxean eramango dugu.

Aitak dena entzun du eta begiak ireki gabe honela dio ahots ahulez:

- Ez, ez! Ez ezazue dirurik alferrik gastatu! Oinez joango naiz kanposantura...

1.– **Erretzaile**: fumador.

2.– **Xuhur**: tacaño; **diruzale**: avaro; **hilzori**: agonía; **hileta**: entierro; **lehen mailako**: de primera clase; **bai zera!**: ¡quial, ¡ni pensarlo!; **alferrik**: en vano, inútilmente.

3. EL GRADO DE EXCESO: -EGI

El grado de exceso se forma en euskera añadiendo al lexema el sufijo **-egi**:

handi	→	handiegi	(demasiado grande)
txiki	→	txikiegi	(demasiado pequeño)
garesti	→	garestiegi	(demasiado caro)
motz	→	motzegi	(demasiado corto)
bero	→	beroegi	(demasiado caliente)
azkar	→	azkarregi	(demasiado rápido)
etc.			

Filmea luzeegia izan zen.
(La película fue excesivamente larga)

Liburu hau garestiegia iruditzen zait.
(Este libro me parece demasiado caro)

Estuegi dauzkat zapatak.
(Tengo los zapatos demasiado prietos)

● GEHIEGI

Tratándose de cantidades se emplea **gehiegi** (demasiado), cuyo contrario es **gutxiegi** (demasiado poco).

Gehiegi erretzen duzu.
(Fumas demasiado)

Gehiegi balio du horrek.
(Eso vale demasiado)

Haur honi gehiegi gustatzen zaio telebista.
(A este niño le gusta excesivamente la televisión)

Jende gehiegi etorri da.
(Ha venido demasiada gente)

Gehiegi da!
(¡Es demasiado!)

Gutxiegi jaten duzu.
(Comes demasiado poco)

7. Itzulpena.

- 1.– Tienes la camisa demasiado grande.
- 2.– Este libro es demasiado caro.
- 3.– Mi cama es demasiado pequeña.
- 4.– La sopa está demasiado caliente.
- 5.– Estos pantalones son demasiado largos para ti y demasiado cortos para mí.
- 6.– Tu hermano es demasiado joven para andar con nosotros.
- 7.– Eso es demasiado hermoso para ser verdad.
- 8.– Eso es demasiado fácil para ti.
- 9.– No es bueno ser demasiado trabajador.
- 10.– José es demasiado duro con el hijo mayor y excesivamente blando con el menor.
- 11.– Joaquín bebe demasiado.
- 12.– Soléis hablar demasiado.
- 13.– Has llenado excesivamente el vaso.
- 14.– Tu hermano dice que le pagan demasiado poco.

HUMOREA

● AZKARREGIA

Parlamentari batek sekretaria bat behar du eta iragarki bat jartzen du egunkarietan. Biharamunean zenbait neska agertzen dira bere bulegoan: batzuk gazteagoak, besteak zaharragoak, batzuk politak, besteak ez hainbeste. Bakoitzak bere *curriculum vitae* dakar eskuan. Parlamentariak denekin hitz egiten du eta azkenean itxura dotoreko gazte bat aukeratzen du. Aldamenekoa dirudienez ez dago oso konforme eta honela esaten dio parlamentariari:

– Jauna, ez duzu ongi aukeratu. Neska honek minutuan hirurogei hitz baizik ez ditu idazten; ni, berriz, azkarragoa naiz, ehun idazten bait ditut!

Eta parlamentariak:

– Ehun minutuan? Eta nondik aterako ditut nik ehun hitz minutuan?

Parlamentari: parlamentario; iragarki: anuncio.

● BIZKORREGI

Udaletxeko kamioia banketxe baten aurrean dago eta bi gizon kaxa handi batzuk kargatzen ari dira. Halako batean ertzain bat hurbiltzen zaie eta pistola aterata preso eramaten ditu.

Ertzain burua harritua dago eta ertzainari galdetzen dio:

- Aizu! eta nola jakin duzu lapurrak zirela eta ez udal langileak?
- Udalekoak izateko bizkorregi ari zirelako lanean!

● GARESTIEGIAK

Andre bat denda batean sartzen da eta termometro bat eskatzen du. Dendariak batzuk ekartzen ditu eta mahai gainean utziz honela esaten dio:

– Begira. Hauxe duzu onena. Alemana da eta hiru mila pezeta balio du. Beste hau japonesa, eta bi mila eta bostehun balio du...

Andreak orduan:

- Barkatu, baina garestiegiak iruditzen zaizkit...
- Baliteke. Hala ere hobe duzu orain erosi, udan igo egingo bait dira!

● GOGORREGIA

Gizon batek kamareroari deitu eta honela esaten dio:

- Aizu! Xerra hau gogorregia dago!
- Lasai, gizona! Horregatik ez dizugu gehiago kobratuko eta...

- | |
|--|
| <p>1.– Bizkorregi: demasiado de prisas; banketxe: banco (de dinero); ertzain buru: jefe de ertzainas; udal langile: empleado municipal.</p> <p>2.– Dendari: tendero; baliteke: quizá, podría ser; hobe duzu orain erosi: más le vale comprarlo ahora.</p> <p>3.– Xerra: filete de carne; dizugu: auxiliar (guk zuri).</p> |
|--|

Hurrengo orrialdean irakurgai bat duzu: "Ibilgailuak". Irakur ezazu. Ulertzeko, hitz berri hauek jakin behar dituzu. Ikas itzazu:

ibilgailu: vehículo
gurdi: carro
era: modo, manera, tipo
idi: buey
indartsu: fuerte
astiro: lentamente
nekazari: labrador
nahiago izan: preferir
errepide: carretera
eroso: cómodo
erabili: utilizado
azkoz ere (handi)agoa: mucho más (grande)
zenbait: algunos
trenbide: ferrocarril
iraultza: revolución
gizarte: sociedad humana, la humanidad
lurrin: vapor
mota: tipo, especie, clase
asmakizun: invento
etengabe: sin pausa, continuamente
aurreratu: avanzar, adelantar
(-en) bidez: por medio (de)

IBILGAILUAK

Ibilgailuak batetik bestera joateko tresnak dira: gurdiak, autoak, trenak eta abar. Era askotako ibilgailuak ezagutzen ditugu munduan eta historian zehar. Inportanteenak bakarrik aipatuko ditugu hemen.

Baserritarrek gurdiak erabiltzen dituzte. Gurdiak oso egokiak dira mendi bideetan karga handiak eramateko: egurrak, belarra eta abar. Gurdiak eramateko idiak erabiltzen dira batez ere. Idiak oso indartsuak dira baina baita motelegiak ere bide luzeak egiteko, poliki-poliki ibiltzen bait dira, astiroegi gauza batzuetarako. Badira gurdi arinagoak ere, eta horrelakoak eramateko zaldiak dira egokienak. Zaldiak, noski, idiak baino azkarragoak dira. Animalia hauek, gero eta gutxiago ikusten dira gure baserrietan eta gaurko egunean nekazariak abereak baino traktoreak nahiago dituzte lanerako. Traktoreak abereak baino garestiagoak dira baina praktikoagoak eta indartsuagoak ere bai.

Errepideetan bizikletak, motoak, autoak eta kamioiak ibiltzen dira. Denetan azkarrenak motoak dira eta indartsuenak kamioiak. Erosoenak eta erabilienak, berriz, autoak. Autoak, automobilak, kotxeak, berebilak... hitz asko ditugu ibilgailu hauek aipatzeko! Kamioiak autoak baino askoz ere handiagoak izaten dira eta kargak eramateko erabiltzen dira. Horregatik, kamioiek autoek baino gorpil gehiago izaten dituzte: autoek lau gorpil baizik ez dituzte izaten; kamioiek, berriz, hamabi, hamasei eta gehiago ere bai. Kamioiak, hala ere, autoak baino motelagoak izaten dira eta astiroago ibiltzen dira. Hiri barruan ibiltzeko zenbaitek bizikleta nahiago dute autoa baino, errazagoa bait da aparkatzen eta garbiagoa ere bai; gutxiago zikintzen du hiriko airea.

XIXgarren mendean trenbideak sortu ziren. Lehenengo lokomotora Stéphenon ingelesak asmatu zuen 1814garren urtean. Joan den mendeko aurrerapen handienetakoa izan zen. Iraultza industrialarekin batean sortu zen eta garai hartan erabat aldatu zen gure gizartea. Trenak lehenbizi lurrin indarrez ibiltzen ziren baina laster agertu ziren indar mota berriagoak eta indartsuagoak: elektrizitatea, gasoileko motorrak eta abar.

Hala ere, asmakizunik harrigarriena hegazkina izan zen. Hegazkinari eskerrak gizona txoria bezala airean ibil daiteke eta minutu gutxitan urrutiko lekuetaraino iritsi. 1783garren urtean Montgolfier anaiek lehen globoak asmatu zituzten eta harrezkero etengabe aurreratu da aireko ibilgailuen teknika. Gaurko egunean sateliteak eta ontzi espazialak egunero aipatzen dira egunkarietan.

Ibaietan eta itsasoan ibiltzeko txalupak eta itsas ontziak erabiltzen dira. Ontziak garai batean arraun eta bela bidez mugitzen ziren, gaur, berriz, indar atomikoa ere erabiltzen da horretarako.

● GALDERAK

- 1.- Zer dira ibilgailuak?
- 2.- Baserritarrek zertarako erabiltzen dituzte gurdiak?
- 3.- Egokiak al dira idiak bide luzeak egiteko?
- 4.- Zein ibiltzen dira astiroago, idiak ala zaldiak?
- 5.- Zein dira azkarragoak, idiak ala zaldiak?
- 6.- Nekazakiek gaurko egunean zein nahiago dituzte, abereak ala traktoreak?
- 7.- Traktoreak abereak baino merkeagoak dira?
- 8.- Aipa itzazu errepideetako ibilgailu batzuk.
- 9.- Errepideetan zein dira azkarrenak?
- 10.- Zein dira erosoak eta erabilienak?
- 11.- Zein dira egokienak karga handiak eramateko?
- 12.- Zein dira txikiagoak, kamioiak ala autoak?
- 13.- Hiri barruan ibiltzeko zein da egokiagoa kamioia ala autoa?
- 14.- Zein dira garbienak?
- 15.- Nork egin zuen lehenengo lokomotora?
- 16.- Zein urtetan? (letraz)
- 17.- Lurruneke makina gasoilekoa baino berriagoa al da?
- 18.- Zein ibiltzen dira astiroago, trenak ala hegazkinak?
- 19.- Zer da merkeagoa, trenez ala hegazkinez ibiltzea?
- 20.- Gaurko egunean zein aipatzen dira gehiago egunkarietan, gurdiak ala ontzi espazialak?
- 21.- Non ibiltzen dira txalupak?
- 22.- Nola iristen da lehenago Ameriketara barkuz ala hegazkinez?
- 23.- Ilargira joateko zer dira egokiagoak, itsas ontziak ala ontzi espazialak?

HURRENGO IPUINA, "HANKA BERRIA", BURUZ IKAS EZAZU.
Itzulpena erantzunetan dator.

HANKA BERRIA

Orain berrogeita hamar urte edo, istripu txar bat gertatu omen zen Bizkaiko herri txiki batean. Kamioi handi batek hamasei urteko gazte bat harrapatu zuen azpian eta hanka zapaldu zion. Odola dariola anbulantzia batean sartu eta Bilboko klinika batera eraman zuten.

– Hemen ez dago zereginik –esan zuen mediku batek zauria ikusi zuenean–. Egoera oso larria da, eta bizia salbatu nahi badiogu hanka moztu beharko diogu.

Horrela, bada, kirolanora eraman zuten mutila.

Operatzeko zeudenean, ordea, zera esan zuen mediku gazte batek:

– Aizue! Hanka moztzen badiogu bizitza guztirako herren geldituko da gaixoa. Zergatik ez diogu beste hanka berri bat jartzen? Nahiko erraza omen da!

– Ez da ideia txarra! –esan zuen beste batek–. Baina hanka? Nondik aterako dugu hanka hori?

– Klinikako zakurrari kenduko diogu! Handi samarra da eta balioko du!

Esan eta egin. Zakurra ekarri zuten, hanka kendu zioten eta operazio luze samar batean mutilari txertatu zioten.

Gaztea esnatu zenean azkura piska bat sentitzen omen zuen iztar aldean baina bestela ederki zegoela ematen zuen. Berehala hasi zen salda eta zumoak hartzen ere. Medikuek oso pozik zeuden eta mutilaren gurasoak zer esanik ez.

Hirugarren egunean, ordea, gauzak okertzen hasi ziren. Mutilak min handia sumatzen zuen giltzurrintan eta zeharo larritzen hasi zen. Gero eta okerrago zihoan. Medikuek ere itxaropena galtzen hasi ziren.

Zer egin ez zekitelarik Alemaniako mediku ospetsu bati deitzea erabaki zuten azkenean. Sendagile hark hegazkina hartu eta berehala etorri zen Bilbora .

Klinikara heldu bezain laster goitik behera aztertu zuen mutila eta honela esan zuen:

– Lasai! Hau ez da ezer! Laster konponduko dugu arazoa!...

Eta ate aldera joanda gaztea kanpora eramateko agindu zuen. Kanpoan zirenean sendagileak mutila eskutik hartu eta zuhaitz baten ondora eramanda honela agindu zion:

– Ea, mutil!! Altxa ezazu hanka hori!!

Mutilak orduan hanka jaso eta parra-parra pixa egiten hasi zen. Lasaitasun ederra hartu zuen mutilak! Aurpegiko kolorea ere berahala bueltatu zitzaion eta beste itxura bat hartu zuen gazteak.

Medikuek eta gainerakoek ere poz handia hartu zuten horrekin. Gurasoek, gertaera pozgarria ospatzeko txanpain kaxa bat ekarri zuten eta azkar hustu zuten denon artean.



Harrezkero osasun ederra izan omen zuen gazteak eta inoiz ez omen zuen hankan inolako minik sentitu. Hori bai... egunero zenbait aldiz zuhaitz edo farol batera hurbildu behar izaten zuen bere beharrak egiteko...

Esaten dutenez, hauxe izan zen Bizkaiko lehen transplan-
tea...


● GALDERAK

- 1.– Noiz eta non gertatu zen istripua?
- 2.– Zer gertatu zen istripuan?
- 3.– Nola sartzen dute gaztea anbulantzian?
- 4.– Nora eraman zuten gaztea?
- 5.– Zertarako moztu behar diote hanka?
- 6.– Zer esaten du orduan mediku gazte batek? (*subord.*)
- 7.– Nondik ateratzen dute hanka berria?
- 8.– Zer moduz zegoen gaztea operatu ondoren?
- 9.– Noiz hasi ziren gauzak okertzen?
- 10.– Zer zuen, bada, mutilak?
- 11.– Zer erabaki zuten medikuek?
- 12.– Zer esan zuen mediku alemanak mutila aztertu ondoren? (*subord.*)
- 13.– Kanpoan zirenean, nora eraman zuen sendagileak mutila?
- 14.– Zuhaitz ondoan zer agintzen dio mutilari? (*subord.*)
- 15.– Zertan hasi zen mutila orduan?
- 16.– Nola geratu mutila pixa egin ondoren?
- 17.– Zer egin zuten gurasoek orduan?
- 18.– Zer moduz ibili zen gaztea handik aurrera?







Orain berrogeita hamar urte edo: hace unos 50 años; odola dariola: sangrando; ez dago zereginik: no hay nada que hacer; zauri: herida; bizi = bizitza: vida; zeudenean: cuando estaban; zera esan zuen: dijo esto; ideia: idea; txertatu: injertar, transplantar; azkura: picor; iztar: muslo; salda: caldo; zer esanik ez: ni qué decir; giltzurri: riñón; zeharo: completamente; larritu: apurarse, agravarse; itxaropen: esperanza; zer egin ez zekitelarik: no sabiendo qué hacer; ospetsu: famoso; heldu bezain laster: tan pronto como llegó; aztertu: examinar; arazo: asunto, problema; parra-parra: abundantemente; pixa egin: orinar, bueltatu zitzaion: le volvió; gainerakoak: los demás, los restantes; hustu: vaciar; osasun: salud; inolako (ez): de ninguna clase; min: dolor; esaten dutenez: según dicen.








AITOR XABIER



MIRENTXU JOSETXO







SORGINA

EDURNEZURI

IPOTXA

PRINTZEA

– Zein da politena?

– Zein da itsusiena?

– Zein da dotoreena?

– Zein da txikiena?

– Zein da altuena?

– Zein da gizenena?

– Zein dira gazteenak?

– Zein dira zaharrenak?

– Zeinek du bizar gehiena?

MORFOSINTAXIZKO LABURPENA
RESUMEN DE MORFOSINTAXIS

A) MORFOLOGIA

● DEKLINABIDEA

	I Z E N A K				E R A K U S L E A K			L E K U A D B E R B I O A K		
	PROPIOAK		KOMUNAK							
	B.	K.	B.	K.						
NOR	Lupe	Mikel	etxea etxeak	lurra lurrak	hau hauek	hori horiek	hura haiek			
NORK	Lupek	Mikelek	etxeak etxeek	lurrak lurrek	honek hauek	horrek horiek	hark haiek			
NORI	Luperi	Mikeli	etxeari etxei	lurrari lurrei	honi hauei	horri horiei	hari haiei			
PARTITIBOA	Luperik	Mikelik	etxerik	lurrik						
NOREN	Luperen	Mikelen	etxearen etxeen	lurraren lurren	honen hauen	horren horien	haren haien			
NONGO	Lezoko	Eibarko (Irungo)	etxeko etxeetako	lurreko lurretako	honetako hautako	horretako horietako	hartako haietako	hemengo	horko	hango
NON	Lezon	Eibarren	etxean etxeetan	lurrean lurretan	honetan hautetan	horretan horietan	hartan haietan	hemen	hor	han
NONDIK	Lezotik	Eibartik (Irundik)	etxetik etxeetatik	lurretik lurretatik	honetatik hautatik	horretatik horietatik	hartatik haietatik	hemendik	hortik	handik
NORA	Lezora	Eibarr(er)a	etxera etxeetara	lurrera lurretara	honetara hautara	horretara horietara	hartara haietara	hona	horra	hara
NORAKO	Lezorako	Eibarrerako	etxerako etxeetarako	lurrerako lurretarako	honetarako hautarako	horretarako horietarako	hartarako haietarako	honako	horrako	harako
NORAINO	Lezoraino	Eibarreraino	etxeraino etxeetaraino	lurreraino lurretaraino	honetaraino hautearaino	horretaraino horietaraino	hartaraino haietaraino	honaino	horraino	haraino
NOREKIN	Luperekin	Mikelekin	etxearekin etxeekin	lurrarekin lurrekin	honekin hauekin	horrekin horiekin	harekin haiekin			
NORENTZAT	Luperentzat	Mikelentzat	etxearentzat etxeentzat	lurrarentzat lurrentzat	honentzat hautentzat	horrentzat horientzat	harentzat haientzat			
NORENTZAKO	Luperentzako	Mikelentzako	etxearentzako etxeentzako	lurrarentzako lurrentzako	honentzako hautentzako	horrentzako horientzako	harentzako haientzako			
NORTAZ	Lupez	Mikelez	etxez etxeaz etxeez	lurrez lurraz lurrez	honetaz hautetaz	horretaz horietaz	hartaz haietaz			

● ADITZA

IZAN

		O R A I N		L E H E N	
NOR	NI	NAIZ		NINTZEN	
	ZU	ZARA		ZINEN	
	HURA	DA		ZEN	
	GU	GARA		GINEN	
	ZUEK	ZARETE		ZINETEN	
	HAIEK	DIRA		ZIREN	
NOR - NORI	NIRI	ZAIT	zaizkit		
	ZURI	ZAIZU	zaizkizu		
	HARI	ZAIO	zaizkio		
	GURI	ZAIGU	zaizkigu		
	ZUEI	ZAIZUE	zaizkizue		
	HAIEI	ZAIE	zaizkie		
ZER - NORK	NIK	DUT	ditut	NUEN	nituen
	ZUK	DUZU	dituzu	ZENUEN	zenituen
	HARK	DU	ditu	ZUEN	zituen
	GUK	DUGU	ditugu	GENUEN	genituen
	ZUEK	DUZUE	dituzue	ZENUTEN	zenituzten
	HAIEK	DUTE	dituzte	ZUTEN	zituzten
ZER - NORI - NORK	NIK	DIOT	dizkiot		
	ZUK	DIOZU	dizkiozu		
	HARK	DIO	dizkio		
	GUK	DIOGU	dizkiogu		
	ZUEK	DIOZUE	dizkiozu		
	HAIEK	DIOTE	dizkiote		

SINTETIKOAK

		EGON	IBILI	ETORRI	JOAN
NOR	NI	NAGO	NABIL	NATOR	NOA
	ZU	ZAUDE	ZABILTZA	ZATOZ	ZOAZ
	HURA	DAGO	DABIL	DATOR	DOA
	GU	GAUDE	GABILTZA	GATOZ	GOAZ
	ZUEK	ZAUDETE	ZABILTZATE	ZATOZTE	ZOAZTE
	HAIEK	DAUDE	DABILTZA	DATOZ	DOAZ
		JAKIN	EDUKI	ERAMAN	EKARRI
ZER - NORK	NIK	DAKI.T	DAU.KAT	DARAMA.T	DAKAR.T
	ZUK	DAKI.ZU	DAU.KAZU	DARAMA.ZU	DAKAR.ZU
	HARK	DAKI.	DAU.KA	DARAMA.	DAKAR.
	GUK	DAKI.GU	DAU.KAGU	DARAMA.GU	DAKAR.GU
	ZUEK	DAKI.ZUE	DAU.KAZUE	DARAMA.ZUE	DAKAR.ZUE
	HAIEK	DAKI.TE	DAU.KATE	DARAMA.TE	DAKAR.TE
		-zki-	-z-	-tza-	-tza-

● **ADITZ ALDIAK**

IZAN	SINTETIKOAK	PERIFRASTIKOAK	BEHAR (EZIN,...) IZAN
da	dago		behar du
izaten da	egoten da	igotzen da	behar izaten du
izan da	egon da	igo da	behar izan du
izango da	egongo da	igoko da	beharko du
zen	zegoen		behar zuen
izaten zen	egoten zen	igotzen zen	behar izaten zuen
izan zen	egon zen	igo zen	behar izan zuen
(izango zen)	(egongo zen)	(igoko zen)	(beharko zuen)

● INPERATIBOAK

1. PARTIZIPIOAK

Etorri hona!

Joan hemendik!

Kendu hortik!

Entzun, mesedez!

Ekarri hori!

Barkatu!

2. SINTETIKOAK (NOR)

	EGON	IBILI	ETORRI	JOAN
ZU	ZAUDE	ZABILTZA	(Z)ATOZ	ZOAZ
ZUEK	ZAUDETE	ZABILTZATE	(Z)ATOZTE	ZOAZTE

3. IZAN

	NOR
ZU	ZAITEZ
ZUEK	ZAITEZTE

	NORK	
	Obj. sing.	Obj. pl.
ZUK	EZAZU	ITZAZU
ZUEK	EZAZUE	ITZAZUE

● **NOLA?**
NOLAKO(A)?

NOLA?	NOLAKO(A)?
honela	honelako(a)
horrela	horrelako(a)
hala	halako(a)
x bezala	x bezalakoa

● **ELKAR**

Elkar maite dute.

Elkarren ondoan bizi dira.

Elkarrekin ibiltzen dira.

Mesedeak egiten dizkiote **elkarri**.

● **ADJETIBOAREN ETA ADBERBIOAREN MAILAK**

Bilbo Donostia baino **handiagoa** da.

Bilboko dendak Donostiakoak baino **hobeak** dira.

Hala ere, Donostian **hobeto** bizitzen da.

Donostiak Gasteizek baino jende **gehiago** du.

Gasteizen Donostian baino jende **gutxiago** bizi da.

Gasteiz **gero eta handiagoa** da.

Euskal herriko probintziarik zabalena Nafarroa da.

Nafarroako jende **gehiena** Iruñean bizi da.

Bilbo **handiegia** da.

Jende **gehiagi** bizi da Bilbon.

B) SINTAXIA

1. IZEN SINTAGMA

	lagun bat
bi	lagun
	laguna
	lagun hura
	lagun zahar bat
anaiaren	lagun zahar bat
zure anaiaren	lagun zahar bat
aitaren herriko	lagun zahar bat
halako	laguna
haurrarentzako	laguna
jolaserako	laguna
mendian ibiltzeko	laguna

2. PERPAUS BAKUNA

La oración simple

● Komunztadura Concordancia

hau da
honek du
gizona txikia da
gizonak txikiak dira
gizonak liburua du
gizonak liburuak ditu
gizonek liburua dute
gizonek liburuak dituzte
gizonak liburua dakar
gizonak liburuak dakartza
gizonak neskari liburua eman dio
gizonak neskari liburuak eman dizkio
gizonek neskari liburua eman diote
gizonek neskari liburuak eman dizkiote
gizonari liburua ahaztu zaio
gizonari liburuak ahaztu zaizkio
gizonei liburua ahaztu zaie
gizonei liburuak ahaztu zaizkie

● **GALDEGAIA**
El elemento clave

NESKARI LIBURUA AHAZTU ZAIO

- a) **–Zer ahaztu zaio neskari?**
–Neskari, liburua ahaztu zaio.
- b) **–Nori ahaztu zaio liburua?**
–Liburua, neskari ahaztu zaio.
- c) **–Neskari liburua ahaztu zaio?**
–Bai, neskari liburua ahaztu zaio.
- d) **–Neskari, egunkaria ahaztu zaio?**
–Ez, neskari ez zaio egunkaria ahaztu; liburua ahaztu zaio.
- e) **–Liburua, mutilari ahaztu zaio?**
–Ez, liburua ez zaio mutilari ahaztu; neskari ahaztu zaio.
- f) **–Ekarri al du neskak liburua?**
–Ez, ez du ekarri; ahaztu egin zaio.

3. PERPAUS KONPOSATUA

La oración compuesta

- 1) Eguraldi ona dago **eta** kanpora joango gara.
- 2) Gu kanpora joango gara **eta** zu **ere bai**.
- 3) Gu kanpora joango gara; **baita** zu **ere**.
- 4) Gu ez gara kanpora joango; **eta** zu **ere ez**.
- 5) Gu ez gara kanpora joango; **ezta** zu **ere**.

- 6) Kanpora joango zara **ala** etxean egongo zara?
- 7) Kanpora joango zara, **ala**?
- 8) Kanpora joango gara **edo** etxean egongo gara.

- 9) Eguraldi txarra dago **baina** kanpora joango gara.
- 10) Eguraldi txarra dago, gu, **hala ere**, kanpora joango gara.
- 11) Eguraldi txarra dago, gu, **ordea**, kanpora joango gara.
- 12) Anaia kanpora joango da, ni, **berriz**, etxean egongo naiz.
- 13) Ez naiz ni kanpora joango, anaia **baizik**.

- 14) Nik **baietz** esan dut eta zuk **ezetz**.
- 15) Eguraldi ona dago**ela** ematen du.
- 16) Joango naiz**ela** adierazi diot.
- 17) Badakizu ze ordu **den**?
- 18) Ez dakit zer egingo du**dan**.
- 19) Kanpora joate**ko** esan du amak.

- 20) Autobusa hartze**ra** noa, Donostiara joate**ko**.
- 21) Hori, Donostiara joate**ko bide**a da.

- 22) Kanpora joango gara, eguraldi ona dago **eta**.
- 23) Kanpora joango gara, eguraldi ona **bait** dago.
- 24) Eguraldi ona dago**ela eta**, kanpora joango gara.
- 25) Kanpora, eguraldi ona dago**elako** joango gara.

- 26) Eguraldi ona dago**enean** kanpora joaten gara.
- 27) Eguraldi ona egiten (**baldin**) badu kanpora joango gara.

- 28) Hori ikusi**ta**, kanpora joan da.
- 29) Hori ikusi**rik**, kanpora joan da.
- 30) Kanpoan ibili**z**, eguzkia hartzen dugu.

ERANTZUNAK

CLAVE DE LOS EJERCICIOS

1

GIZON ORRATZA

- 1.- Hoy Ander se ha levantado a las seis y media de la mañana.
- 2.- Se ha puesto los pantalones y los zapatos,
- 3.- se ha lavado la cara,
- 4.- ha desayunado de prisa,
- 5.- y ha salido de casa para ir a la fábrica.
- 6.- En el camino ha comprado el periódico.
- 7.- Luego ha cogido el autobús.
- 8.- En el autobús se ha sentado en un asiento,
- 9.- y ha leído el periódico.
- 10.- Ha bajado del autobús delante de la fábrica
- 11.- y ha ido a pie a la fábrica.
- 12.- Ha estado trabajando hasta las doce del mediodía.

- 13.- A las doce y cinco se ha juntado con un compañero
- 14.- y han ido a un bar a comer.
- 15.- Se han sentado junto a la ventana
- 16.- y han pedido la comida.
- 17.- La señora del bar ha traído el pan y el vino
- 18.- y los ha dejado sobre la mesa.
- 19.- Han comido sopa y huevos fritos.
- 20.- El amigo ha llenado el vaso de vino.
- 21.- Ander, sin embargo, no ha bebido vino.
- 22.- Han pagado la comida
- 23.- y nuevamente han ido al trabajo.

- 24.- (Ander) ha terminado el trabajo a las siete menos cuarto de la tarde.
- 25.- En la puerta de la fábrica ha visto a Lupe.
- 26.- Esta ha venido en coche.
- 27.- Se han metido en el coche de Lupe
- 28.- y han ido a ver una película.
- 29.- Ander se ha ido a casa a las once de la noche.
- 30.- Ha llegado muy cansado,
- 31.- ha cenado poco
- 32.- y se ha acostado en seguida.

(1-12)

1. GAUR

a) NI GAUR, goizeko sei t'erdietan jaiki naiz. Zapatak eta frakak jantzi ditut, aurpegia garbitu dut, presaka gosaldut eta etxetik atera naiz lantegira joateko. Bidean egunkaria erosi dut. Gero autobusa hartu dut. Autobusean aulki batean eseri naiz eta egunkaria irakurri dut. Lantegi aurrean autobusetik jaitsi naiz eta oinez joan naiz lantegira. Eguerdiko hamabiak arte aritu naiz lanean.

b) ZU GAUR, goizeko sei t'erdietan jaiki zara. Zapatak eta frakak jantzi dituzu, aurpegia garbitu duzu, presaka gosaldut duzu eta etxetik atera zara lantegira joateko. Bidean egunkaria erosi duzu. Gero autobusa hartu duzu. Autobusean aulki batean eseri zara eta egunkaria irakurri duzu. Lantegi aurrean autobusetik jaitsi zara eta oinez joan zara lantegira. Eguerdiko hamabiak arte aritu zara lanean.

2. EGUNERO

a) ANDER EGUNERO, goizeko sei t'erdietan jaikitzen da. Zapatak eta frakak jazten ditu, aurpegia garbitzen du, presaka gosaltzen du eta etxetik ateratzen da lantegira joateko. Bidean egunkaria erosten du. Gero autobusa hartzen du. Autobusean aulki batean esertzen da eta egunkaria irakurtzen du. Lantegi aurrean autobusetik jaisten da eta oinez joaten da lantegira. Eguerdiko hamabiak arte aritzen da lanean.

b) NI EGUNERO, goizeko sei t'erdietan jaikitzen naiz. Zapatak eta frakak jazten ditut, aurpegia garbitzen dut, presaka gosaltzen dut eta etxetik ateratzen naiz lantegira joateko. Bidean egunkaria erosten dut. Gero autobusa hartzen dut. Autobusean aulki batean esertzen naiz eta egunkaria irakurtzen dut. Lantegi aurrean autobusetik jaisten naiz eta oinez joaten naiz lantegira. Eguerdiko hamabiak arte aritzen naiz lanean.

c) ZU EGUNERO, goizeko sei t'erdietan jaikitzen zara. Zapatak eta frakak jazten dituzu, aurpegia garbitzen duzu, presaka gosaltzen duzu eta etxetik ateratzen zara lantegira joateko. Bidean egunkaria erosten duzu. Gero autobusa hartzen duzu. Autobusean aulki batean esertzen zara eta egunkaria irakurtzen duzu. Lantegi aurrean autobusetik jaisten zara eta oinez joaten zara lantegira. Eguerdiko hamabiak arte aritzen zara lanean.

3. BIHAR

a) ANDER BIHAR, goizeko sei t'erdietan jaikiko da. Zapatak eta frakak jantziko ditu, aurpegia garbituko du, presaka gosalduko du eta etxetik aterako da lantegira joateko. Bidean egunkaria erosiko du. Gero autobusa hartuko du. Autobusean aulki batean eseriko da eta egunkaria irakurriko du. Lantegi aurrean autobusetik jaitziko da eta oinez joango da lantegira. Eguerdiko hamabiak arte ariko da lanean.

b) NI BIHAR, goizeko sei t'erdietan jaikiko naiz. Zapatak eta frakak jantziko ditut, aurpegia garbituko dut, presaka gosalduko dut eta etxetik aterako naiz lantegira joateko. Bidean egunkaria erosiko dut. Gero autobusa hartuko dut. Autobusean aulki batean eseriko naiz eta egunkaria irakurriko dut. Lantegi aurrean autobusetik jaitziko naiz eta oinez joango naiz lantegira. Eguerdiko hamabiak arte ariko naiz lanean.

c) ZU BIHAR, goizeko sei t'erdietan jaikiko zara. Zapatak eta frakak jantziko dituzu, aurpegia garbituko duzu, presaka gosalduko duzu eta etxetik aterako zara lantegira joateko. Bidean egunkaria erosiko duzu. Gero autobusa hartuko duzu. Autobusean aulki batean eseriko zara eta egunkaria irakurriko duzu. Lantegi aurrean autobusetik jaitziko zara eta oinez joango zara lantegira. Eguerdiko hamabiak arte ariko zara lanean.

(13-23)

1. GAUR

a) (NI GAUR) hamabiak eta bostean lagunarekin elkartu naiz eta tabernara joan gara bazkaltzera. Leiho ondoan eseri gara eta bazkaria eskatu dugu. Tabernako andreak ogia eta ardoa ekarri ditu eta mahai gainean utzi ditu. Zopa eta arrautza frejituak jan ditugu. Lagunak basoa ardoz bete du. Nik, ordea, ez dut ardorik edan. Bazkaria ordaindu dugu eta berriz lanera joan gara.

b) (ZU GAUR) hamabiak eta bostean lagunarekin elkartu zara eta tabernara joan zarete bazkaltzera. Leiho ondoan eseri zarete eta bazkaria eskatu duzue. Tabernako andreak ogia eta ardoa ekarri ditu eta mahai gainean utzi ditu. Zopa eta arrautza frejituak jan dituzue. Lagunak basoa ardoz bete du. Zuk, ordea, ez duzu ardorik edan. Bazkaria ordaindu duzue eta berriz lanera joan zarete.

2. EGUNERO

a) (ANDER EGUNERO) hamabiak eta bostean lagunarekin elkartzen da eta tabernara joaten dira bazkaltzera. Leiho ondoan esertzen dira eta bazkaria eskatzen dute. Tabernako andreak ogia eta ardoa ekartzen ditu eta mahai gainean uzten ditu. Zopa eta arrautza frejituak jaten dituzte. Lagunak basoa ardoz betetzen du. Anderrek, ordea, ez du ardorik edaten. Bazkaria ordaintzen dute eta berriz lanera joatzen dira.

b) (NI EGUNERO) hamabiak eta bostean lagunarekin elkartzen naiz eta tabernara joaten gara bazkaltzera. Leiho ondoan esertzen gara eta bazkaria eskatzen dugu. Tabernako andreak ogia eta ardoa ekartzen ditu eta mahai gainean uzten ditu. Zopa eta arrautza frejituak jaten ditugu. Lagunak basoa ardoz betetzen du. Nik, ordea, ez dut ardorik edaten. Bazkaria ordaintzen dugu eta berriz lanera joaten gara.

c) (ZU EGUNERO) hamabiak eta bostean lagunarekin elkartzen zara eta tabernara joaten zarete bazkaltzera. Leiho ondoan esertzen zarete eta bazkaria eskatzen duzue. Tabernako andreak ogia eta ardoa ekartzen ditu eta mahai gainean uzten ditu. Zopa eta arrautza frejituak jaten dituzue. Lagunak basoa ardoz betetzen du. Zuk, ordea, ez duzu ardorik edaten. Bazkaria ordaintzen duzue eta berriz lanera joaten zarete.

3. BIHAR

a) (ANDER BIHAR) hamabiak eta bostean lagunarekin elkartuko da eta tabernara joango dira bazkaltzera. Leiho ondoan eseriko dira eta bazkaria eskatuko dute. Tabernako andreak ogia eta ardoa ekarriko ditu eta mahai gainean utziko ditu. Zopa eta arrautza frejituak jango dituzte. Lagunak basoa ardoz beteko du. Anderrek, ordea, ez du ardorik edango. Bazkaria ordainduko dute eta berriz lanera joango dira.

b) (NI BIHAR) hamabiak eta bostean lagunarekin elkartuko naiz eta tabernara joango gara bazkaltzera. Leiho ondoan eseriko gara eta bazkaria eskatuko dugu. Tabernako andreak ogia eta ardoa ekarriko ditu eta mahai gainean utziko ditu. Zopa eta arrautza frejituak jango ditugu. Lagunak basoa ardoz beteko du. Nik, ordea, ez dut ardorik edango. Bazkaria ordainduko dugu eta berriz lanera joango gara.

c) (ZU BIHAR) hamabiak eta bostean lagunarekin elkartuko zara eta tabernara joango zarete bazkaltzera. Leiho ondoan eseriko zarete eta bazkaria eskatuko duzue. Tabernako andreak ogia eta ardoa ekarriko ditu eta mahai gainean utziko ditu. Zopa eta arrautza frejituak jango dituzue. Lagunak basoa ardoz beteko du. Zuk, ordea, ez duzu ardorik edango. Bazkaria ordainduko duzue eta berriz lanera joango zarete.

(24-32)

1. GAUR

a) (NIK GAUR) arratsaldeko zazpiak laurden gutxitan amaitu dut lana. Lantegiko atean Lupe ikusi dut. Hau kotxez etorri da. Luperen kotxean sartu gara eta pelikula bat ikustera joan gara. Gaueko hamaiketan etxeratu naiz. Oso nekatuta iritsi naiz. Gutxi afaldu dut eta laster oheratu naiz.

b) (ZUK GAUR) arratsaldeko zazpiak laurden gutxitan amaitu duzu lana. Lantegiko atean Lupe ikusi duzu. Hau kotxez etorri da. Luperen kotxean sartu zarete eta pelikula bat ikustera joan zarete. Gaueko hamaiketan etxeratu zara. Oso nekatuta iritsi zara. Gutxi afaldu duzu eta laster oheratu zara.

2. EGUNERO

a) (ANDERREK EGUNERO) arratsaldeko zazpiak laurden gutxitan amaitzen du lana. Lantegiko atean Lupe ikusten du. Hau kotxez etortzen da. Luperen kotxean sartzen dira eta pelikula bat ikustera joaten dira. Gaueko hamaiketan etxeratzen da. Oso nekatuta iristen da. Gutxi afaltzen du eta laster oheratzen da.

b) (NIK EGUNERO) arratsaldeko zazpiak laurden gutxitan amaitzen dut lana. Lantegiko atean Lupe ikusten dut. Hau kotxez etortzen da. Luperen kotxean sartzen gara eta pelikula bat ikustera joaten gara. Gaueko hamaiketan etxeratzen naiz. Oso nekatuta, iristen naiz. Gutxi afaltzen dut eta laster oheratzen naiz.

c) (ZUK EGUNERO) arratsaldeko zazpiak laurden gutxitan amaitzen duzu lana. Lantegiko atean Lupe ikusten duzu. Hau kotxez etortzen da. Luperen kotxean sartzen zarete eta pelikula bat ikustera joaten zarete. Gaueko hamaiketan etxeratzen zara. Oso nekatuta iristen zara. Gutxi afaltzen duzu eta laster oheratzen zara.

3. BIHAR

a) (ANDERREK BIHAR) arratsaldeko zazpiak laurden gutxitan amaituko du lana. Lantegiko atean Lupe ikusiko du. Hau kotxez etorriko da. Luperen kotxean sartuko dira eta pelikula bat ikustera joango dira. Gaueko hamaiketan etxeratuko da. Oso nekatuta iritsiko da. Gutxi afalduko du eta laster oheratuko da.

b) (NIK BIHAR) arratsaldeko zazpiak laurden gutxitan amaituko dut lana. Lantegiko atean Lupe ikusiko dut. Hau kotxez etorriko da. Luperen kotxean sartuko gara eta pelikula bat ikustera joango gara. Gaueko hamaiketan etxeratuko naiz. Oso nekatuta iritsiko naiz. Gutxi afalduko dut eta laster oheratuko naiz.

c) (ZUK BIHAR) arratsaldeko zazpiak laurden gutxitan amaituko duzu lana. Lantegiko atean Lupe ikusiko duzu. Hau kotxez etorriko da. Luperen kotxean sartuko zarete eta pelikula bat ikustera joango zarete. Gaueko hamaiketan etxeratuko zara. Oso nekatuta iritsiko zara. Gutxi afalduko duzu eta laster oheratuko zara.

OYENDO AL CUCO (KUKUA ENTZUTEN)

Es un domingo de mayo por la mañana. Txomin Porru se ha levantado de la cama y ha empezado a vestirse. Es muy temprano y todavía está oscuro. Su mujer está extrañada, pues Txomin los domingos se suele levantar bastante tarde.

– ¿Qué, Txomin? ¿Qué ocurre? ¿A dónde vas tan temprano?

– Voy al bosque –le responde Txomin.

– ¿Vas a buscar setas?

– No. A oír al cuclillo. Ya sabes qué suelen decir: “El cuclillo cucu y dinero en la bolsa, ricos todo el año” (si al hacer el cuclillo cucu tienes dinero en la bolsa, serás rico todo el año).

La mujer se ríe:

– Pero eso es mentira. Yo al menos no creo una cosa así.

– Es igual. Trae todo el dinero y lo llevaré al bosque.

La mujer va al armario, coge un cofre, lo abre y le entrega el dinero a Txomin. Este lo mete en una bolsa. Mientras se afeita la mujer le prepara un bocadillo y después de tomar un poco de café con leche Txomin va afuera.

– Adiós, Txomin –le dice la mujer–. A ver si tienes mucha suerte (grande).

Hacia el mediodía ahí aparece Txomin de nuevo en casa. Trae cara seria (oscura).

– ¿Qué? ¿Has oído al cuclillo? –le pregunta la mujer.

– Sí, lo he oído.

– ¡Entonces somos ricos! ¡Qué alegría, Txomin!

– ¿Ricos? ¡Menuda hambre tendremos que pasar este año!

– ¿Qué quieres decir con eso? No te entiendo...

– Te contaré qué ha ocurrido... He ido al bosque y he comenzado a caminar despacito para oír bien al cuclillo. He caminado y caminado pero no he oído el cuco. Cuando me he cansado me he sentado junto a una fuente y he empezado a comer el bocadillo. He pasado una hora entera sin moverme de allí y, sin embargo, no he oído al cuco. Una de éstas he escuchado un ruido detrás de un árbol. “Será el cuco!” he pensado y he sujetado con fuerza (duro) la bolsa. Entonces ha aparecido un hombre con una gran navaja. “¡Quieto ahí! –me ha dicho– ¡isi no te sacaré las tripas!” Le he dado la bolsa callando y se ha marchado corriendo. En ese preciso instante han comenzado a cantar todos los cuclillos: icucu y cucu y cucu!

– ¡Qué mala suerte! –le ha dicho la mujer cuando ha terminado de contar–. ¿Ves? Esto te ha ocurrido por creer tales mentiras... Afortunadamente no te he entregado todo el dinero, por si acaso, y he dejado la(s) mitad(es) en el cofre. Ahora nos tendremos que arreglar con eso de una u otra forma.

ERANTZUNAK

1.– Ipuin hau maiatzeko igande goiz batean gertatzen da. 2.– Ipuin honetako protagonista Txomin Porru da. 3.– Txomin, nahiko berandu jaikitzen da igandeetan. 4.– Txominek, gaur basora doala esaten du. 5.– Ez, ez doa perretxiko bila; kukua entzutera doa basora. 6.– Ez, andreak ez du horrelakorik sinesten. 7.– Andreak, armariotik ateratzen du kutxa. 8.– Bizarra kendu du. 9.– Eguerdi aldean dator berriz etxera. 10.– Ez, ez dator pozik; aurpegi iluna dakar. 11.– Iturri baten ondoan eseri da. 12.– Iturri ondoan, nekatu denean eseri da. 13.– Ordubete pasa du iturri ondoan. 14.– Zuhaitz baten atzetik gizon bat agertu da labana handi batekin. 15.– Lapurrak labana handi bat du eskuan. 16.– Gizonak (lapurrak) esan dio Txomini geldi egoteko. 17.– Bestela, tripak aterako dizkio. 18.– Txominek, isil-isilik eman dio boltsa gizonari. 19.– Korrika joan da gizona. 20.– Ez, du diru guztia basora eraman; andreak kutxan utzi ditu erdiak eta.

ARIKETAK

1. 1.– Zerbait behar (al) duzu? 2.– Mahai hau behar duzu? 3.– Dirua behar dut. 4.– Paper horiek behar ditut. 5.– Ogia behar dugu. 6.– Lana behar dugu. 7.– Ez dugu dirurik behar. 8.– Neska hauek gela bat behar dute. 9.– Loreek ura behar dute. 10.– Eskailera bat beharko dut. 11.– Tokia beharko duzu. 12.– Telefono bat beharko dut. 13.– Egun batzuk beharko ditugu. 14.– Gauza bat behar izan dut. 15.– Zure kotxea behar izan dugu. 16.– Iñakik taxi bat behar izaten du.
2. 1.– Presaka jan behar dut. 2.– Lan egin behar dut. 3.– Nere anaiak Hernanira joan behar du. 4.– Liburu hori irakurri behar duzu. 5.– Eskuak garbitu behar dituzu. 6.– Ogia erosi behar dugu. 7.– Tolosan jaitsi behar duzue. 8.– Sei t'erdietan atera behar dugu. 9.– Lanak bukatu behar ditugu. 10.– Ez duzu horrela erantzun behar. 11.– Ez duzu ezer egin behar. 12.– Paperak ez dira lurrera bota behar. 13.– Gauza hauek eraman behar dira. 14.– Oinez joan beharko dut. 15.– Goiz jaiki beharko duzu. 16.– Gaisoak ohean egon beharko du. 17.– Dirua eskatu beharko dugu.

2

1. 1.– Ni gaiztoa nintzen. 2.– Zu itsusia zinen. 3.– Mutiko hau bihurria zen. 4.– Gu oso alferrak ginen. 5.– Zuek neska atseginak zineten. 6.– Etxe haiek itsusiak ziren. 7.– Zuek pilotari bikainak zineten. 8.– Gizon haiek zintzoak ziren. 9.– Zu nahiko baldarra zinen. 10.– Gu lagun handiak ginen. 11.– Ni honelakoa nintzen. 12.– Nere anaia zu bezalakoa zen. 13.– Bi ahizpak berdinak ziren. 14.– Liburu hura oso egokia zen. 15.– Emakume hori oso berezia zen. 16.– Nolakoa zinen zu?
2. 1.– nintzen 2.– zinen 3.– zen 4.– zen 5.– ginen 6.– zineten 7.– ziren 8.– zineten 9.– ginen 10.– zinen 11.– ziren 12.– zineten 13.– nintzen 14.– zinen 15.– zen 16.– zinen 17.– zineten.
3. 1.– Ni oso langilea nintzen. 2.– Zu itsusia zinen. 3.– Haur hau oso zintzoa zen. 4.– Gu gaiztoak ginen. 5.– Zuek berdinak zineten. 6.– Langile haiek oso trebeak ziren. 7.– Zu oso txikia zinen. 8.– Haiek hauek bezalakoa ziren. 9.– Ni mutiko bihurria nintzen. 10.– Zu ere halakoa (horrelakoa) zinen. 11.– Gu lagunak (adiskideak) ginen. 12.– Zuek oso argiak (azkarrak) zineten.
4. 1.– Ni etxera joan nintzen. 2.– Zu eskolatik atera zinen. 3.– Ibon hemen bertan bizi zen. 4.– Gu berehala aspertzen ginen horrekin. 5.– Zuek eserita egoten zineten. 6.– Sagarak lurrera erori ziren. 7.– Ni zure ondoan jartzen nintzen beti. 8.– Zu nere izebarekin etorri zinen. 9.– Bidean gasolina bukatu zen. 10.– Zuek berandu hasi zineten lanean. 11.– Haurra basoan galdu zen. 12.– Zerbait gertatu zen zuen lantegian. 13.– Gu ezin ginen etxetik atera. 14.– Baserritarak herriko plazan gelditu ziren.
gizonarentzat. 3.– Hodeiak zeruan ibiltzen dira batetik bestera. 4.– Euria, hodeiak hozten
direnean egiten du. 5.– Uraren parte bat lur azalean geratzen da. 6.– Ur azaleko ura, indar
handiz jaisten da mendietatik. 7.– Lurpeko ura iturri eta iturburuetan irteten da. 8.– Lur
horietan belarra, landareak, zuhaitzak eta basoak sortzen dira. 9.– Lur lehorretan ez da ezer
sortzen: ez belarrik, ez landareri eta basorik ere ez. 10.– Errekak, ibaietara joaten dira.
11.– Urak, edateko, janariak prestatzeko eta gauzak garbitzeko balio du. 12.– Lantegiek,
kalte beldurgarriak egiten dizkiote ibaietako ekologiarik. 13.– Urak, euri gehiegi egiten
duenean irteten dira ibaietatik. 14.– Ibaietako ura gozoa da. 15.– Itsasoko urak gatza du.
16.– Ura, lurrin bihurturik igotzen da zerura. 17.– Hodeietatik, euria etortzen da.
5. 1.– Aulkitik jaiki eta egunkaria hartu du. 2.– Leioa itxi eta atea ireki dugu. 3.– Goiz
gosalduta eta laster hasi dira lanean. 4.– Oporrak hartu eta Parisa joango naiz.
5.– Giltza poltsikotik atera eta etxean sartu da. 6.– Bulegoan sartu eta argia piztu
zuen. 7.– Basoa ardoz bete eta pozik edan du. 8.– Aita etorri eta saltoka hasi da
haurra. 9.– Mugara iritsi eta poliziak hurbildu ziren kotxera. 10.– Laguna ikusi eta
haren ondoan eseri nintzen. 11.– Udaletxera joan eta alkatearekin hitz egingo dugu.
12.– Dirua eskatu eta ez dio ezer eman.
6. 1.– Etxean geldituko gara, euria ari du eta. 2.– Ezin dugu kotxerik erosi, dirurik ez
dugu eta. 3.– Ez zaio gustatuko, oso itsusia da eta. 4.– Pozik jango du amonak, janari
gozoa da eta. 5.– Etxera joan behar genuen, berandu zen eta. 6.– Honek eramango
ditu mailetak, indar handia du eta. 7.– Gaur ez da etorriko, haserre dago eta.
8.– Gauean ez duzue telebistarik ikusiko, gaizki portatu zarete eta. 9.– Ezin da etorri,
kotxea puskatu zaio eta. 10.– Ez gara jaialdira joango, lan handia dugu eta.

7. 1.- Alberto joan da eta Mikel ere bai. 2.- Etxe hau berria da eta hori ere bai. 3.- Amona gaiso dago eta aitona ere bai. 4.- Arropak eraman ditu eta liburuak ere bai. 5.- Mireni erakutsi dizkiot argazkiak eta Pellori ere bai. 6.- Neska altxatu da eta mutila ere bai. 7.- Isabelek farre egin du eta negar ere bai. 8.- Goiz joan naiz lantegira eta atera ere bai. 9.- Andreak soineko berria erosi du eta ordaindu ere bai. 10.- Mendian ibili ginen eta nekatu ere bai.
8. 1.- Jon ez da etorri eta Maite ere ez. 2.- Ez dugu gosaldurik eta bazkaldu ere ez. 3.- Herri hau ez da polita eta beste hori ere ez. 4.- Ez dute esnea ekarri eta ogia ere ez. 5.- Ez diot inori esan eta zure lagunari ere ez. 6.- Osaba ez da jaiki eta izeba ere ez. 7.- Nik ez daukat gogorik eta Ferminek ere ez. 8.- Guk ez dakigu hori eta zuek ere ez. 9.- Inaziori ez zaio gustatu eta niri ere ez. 10.- Makina honek ez du asko balio eta horrek ere ez.
9. 1.- Aitor etorri zen, baita Idoia ere. 2.- Maritxuk gona erosi du, baita frakak ere. 3.- Asteartean bilera dugu, baita ostegunean ere. 4.- Gasolina bukatu zaigu, baita dirua ere. 5.- Bihar jai dugu, baita etzi ere.
10. 1.- Ez du agertu nahi, ezta deitu ere. 2.- Nik ez dut ezagutu, ezta zure anaiak ere. 3.- Gaur ez gara lanera joango, ezta bihar ere. 4.- Mutikoa ez da itsusia, ezta neskatxa ere. 5.- Ez dugu haragirik, ezta arrainik ere.

TIPO EMPEÑISTA (GIZON SAIA/TUA)

Un matrimonio aparece en la consulta del médico. El marido trae aspecto de enfermo y viene del brazo de la mujer. Se sientan delante del médico y la mujer comienza a hablar:

– Mire, señor, mi marido sufre (tiene) una terrible depresión. Dice que no tiene ganas de vivir. Está todo el día pensando en el trabajo: no come nada y por la noche no puede conciliar el sueño.

El médico observa en silencio al marido. Después se quita las gafas y dice:

– Su marido necesita descanso y le conviene distraerse. ¿No tiene, por ejemplo, afición a la música o a la pintura?

– Sí, la pintura le gusta mucho. De joven solía pintar acuarelas.

– He ahí una afición bonita y barata... Le mandaré también unas vitaminas. Lo más importante, sin embargo, es que no trabaje: necesita paz, tranquilidad. Cualquier trabajo sería muy perjudicial para su marido... Vengan el próximo mes y veremos qué tal anda.

Se levanta el matrimonio y tras despedirse salen de casa del médico.

Al día siguiente el médico encuentra a la mujer en la calle:

– ¿Qué tal va su marido? ¿Ha empezado a pintar?

– Sí. Ha pasado la noche entera pintando y ha hecho doscientas acuarelas. Ahora está en el hospital, reventado.

GALDERAK

1.- Senar-emazte bi agertzen dira. 2.- Ez, ez du itxura onik; gaiso itxura dakar eta andrearen besotik dator. 3.- Ez, hizketan ez da gizona hasten, emaztea hasten da. 4.- Andreak esaten dio, bere gizonak sekulako depresioa duela, ez omen duela bizitzeko gogorik, egun osoan lanean pentsatzen ari dela, ez duela ezer jaten eta gauez ezin izaten duela loak hartu. 5.- Ba al duen musikarako edo pintatzeko zaletasunik, galdetzen dio. 6.- Andreak baietz erantzuten dio, pintura asko gustatzen zaiola eta gaztetan akuarelak egiten zituela. 7.- Inportanteena gizonarentzat, lanik ez egitea da. 8.- Hurrengo hilean itzuli behar dute. 9.- Hurrengo egunean ikusten du. 10.- Zer moduz doan bere gizona eta pintatzen hasi al den, galdetzen dio. 11.- Baietz erantzuten dio; gau osoa pasa duela pintatzen, berrehun akuarela egin dituela eta orain hospitalean dagoela leher eginda.

11. 1.- Zurekin edo zure anaiarekin hitz egingo dugu. 2.- Hondartzara edo mendira joango gara. 3.- Berak konpontzen du edo bestela garajera eramaten du. 4.- Larunbatean edo igandean iritsi ziren. 5.- Trenez edo kotxez etorri zaitez.

12. 1.- Hor geldituko zara ala gurekin etorriko zara? 2.- Hau, zurea ala nerea da? 3.- Zer nahi duzu? ardoa ala ura? 4.- Zer izan da? neska ala mutila? 5.- Bilbon ala Londresen erosi zenuen?

13. 1.– Irakasleak baietz esan du, ikasleek, ordea, ezetz. 2.– Aldizkari hori egokia da, oso garestia ordea. 3.– Etortzeko asmoa zuen, ezin izan du ordea. 4.– Ni Markinakoa naiz, Lourdes, ordea, Bergarakoa. 5.– Goizero joaten da lanera, arratsaldean, ordea, etxean gelditzen da.
14. 1.– Txikia da, indar handia du hala ere. 2.– Oraindik ez dira agertu, etorriko dira hala ere. 3.– Athletic galtzen ari da, irabazi egingo du hala ere. 4.– Diru gutxi da, hala ere nahikoa izango da. 5.– Irristatu egin da eta hala ere ez da erori.
15. 1.– Ez gara anaiak, lagunak baizik. 2.– Ez zinen oinez etorri, kotxez baizik. 3.– Hori ez zuen Alfonsok esan, Iñakik baizik. 4.– Ez dut kafe beroa (berorik) hartuko, hotza baizik. 5.– Hori ez zen astelehenean gertatu, asteartean baizik. 6.– Arrate ez dabil Koldorekin, Bernardorekin baizik. 7.– Ez zaio galdu, ahaztu baizik.

TARTALO

Cierta ocasión dos chicos jóvenes andaban por el monte y empezó a llover. Cerca de allí encontraron una cueva y entraron dentro en busca de refugio. El interior de la cueva estaba bastante oscuro y al principio no veían nada. Enseguida, sin embargo, advirtieron unas ovejas tumbadas en el suelo y un hombre enorme sentado en una piedra. Y cosa inaudita: ¡El hombre tenía un único ojo en medio de la frente! Los muchachos se asustaron al verlo y quisieron salir fuera. Pero el hombre se levantó de un salto y colocó una gran piedra en la entrada. Los chicos se echaron a llorar.

El hombre encendió fuego. Luego cogió a uno de los muchachos, lo atravesó con un largo hierro y empezó a comérselo. Cuando estaba comiendo le ofreció un trozo al otro muchacho:

– ¿Quieres un pedazo? ¡Tu amigo está muy sabroso!

El chico estaba tembloroso en un rincón y le respondió que no.

En una de éstas, después de comer y beber bastante, Tártalo, pues Tártalo era su nombre, se quedó dormido. El muchacho al ver aquello se levantó sigilosamente y comenzó a remover la piedra de la entrada, pero no podía. Entonces cogió el hierro del suelo, lo puso al rojo en la hoguera y se lo metió a Tártalo por el ojo. Tártalo se despertó gritando y ciego empezó a buscar al muchacho. Pero éste se escondió entre las ovejas y no lo encontró.

A la mañana siguiente Tártalo retiró la piedra de la entrada para que salieran las ovejas. Mientras éstas salían él estaba en la entrada con las piernas abiertas y a medida que las ovejas pasaban por debajo las tocaba todas una por una. El muchacho, el verlo, se puso una piel por la espalda y se metió entre las ovejas. Cuando Tártalo le tocó no lo reconoció y así salió fuera. Una vez fuera el muchacho empezó a reírse y a burlarse. Tártalo le echó una piedra pero no le alcanzó.

En Ataun, cuando cuentan esta historia suelen decir: “Tártalo, ahí se lo come y ahí se duerme”.

GALDERAK

1.– Euria hasi zuenean, mendian zebiltzan mutilak. 2.– Ez kobazuloa ez zegoen urruti; handik hurbil zegoen. 3.– Koba barruan gizon ikaragarri bat ikusi zuten. 4.– Gizonak begi bakarra zuen bekokiaren erdian. 5.– Mutilak gizona ikusi zutenean beldurtu egin ziren eta kanpora irten nahi izan zuten. 6.– Gizonak harri handi bat jarri zuen sarrera ixteko. 7.– Gizonak, alde batetik bestera sartu zion burdina mutilari. 8.– Gizonak zati bat eskaini zion beste mutilari. 9.– Mutilak ezetz erantzun zion. 10.– Tartalo, nahikoa jan eta edan ondoren geratu zen lo. 11.– Burdina hartu zuen lurretik, sutan goritu zuen eta begitik sartu zion Tartalori. 12.– Mutila ardien artean izkutatu zen. 13.– Tartalok ardiak kanpora ateratzeko kendu zuen harria. 14.– Tartalo, hankak zabalik zegoen atean. 15.– Mutilak larru bat jarri zuen bizkarrean. 16.– Mutila kanpoan zenean farrez eta burlaka hasi zen. 17.– Tartalok orduan harri bat bota zion haserre, baina ez zuen mutila jo. 18.– Ataungo jendeak “Tartalo, bertan jan ta bertan lo” esaten du orain.

1. 1.– Ni alferra naizela esan duzu. 2.– Jendeak bihurria zarela esaten du. 3.– Lapurrak bera izan dela aitortu du. 4.– Tabakoa neretzat kaltegarria dela sumatu dut. 5.– Irakasleak liburu hauek bikainak direla dio. 6.– Norbait etorri dela nabaritu dut. 7.– Tontoa zarela dirudi. 8.– Badirudi gauzak konpontzen ari direla. 9.– Oso trebeak zaretela erakutsi duzue. 10.– Negua luzea izango dela esan du telebistak. 11.– Muti-lak lanean ari direla uste dut. 12.– Erantzuna ez dela egokia izan adierazi diot Pellori. 13.– Hori ezin dela horrela egin aitortu behar dugu. 14.– Martinek anai-arrebak zaretela ulertu du.
2. 1.– Loliren lagunak zaretela entzun dugu. 2.– Berandu etorri garela ikusi dute. 3.– Orain Eibarren bizi zarela jakin dugu. 4.– Berehala (laster) aterako direla erantzun dute. 5.– Koldoren izeba hil dela irakurri dut. 6.– Nere gurasoek Bilbora joan garela uste dute. 7.– Datorren hilean gasolina igoko dela esan du iratiak. 8.– Oso langilea zarela diote (esaten dute). 9.– Bihar joango garela esan diot. 10.– Junkalek lore horiek guretzat direla esan du. 1.– Norbait sartu dela sumatu dut. 12.– Hori horrela dela aitortu behar dugu. 13.– Oso azkarrak direla erakutsi dute. 14.– Zerbait erori dela iruditu zait.
3. 1.– Asmatu duzula uste dut. 2.– Aitonak atsedena behar duela esan du. 3.– Ebaristok kotxe berria erosi duela entzun dugu. 4.– Arazo horrek garrantzi handia duela adierazi diot. 5.– Hauek zuk jasoko duzula dirua diote. 6.– Ez dugula lan egiteko gogorik aitortu behar dugu. 7.– Badirudi ez duzuela ezer ulertu. 8.– Janariak ez duela gatzik behar esan du izebak. 9.– Gaur hotz handia egiten duela nabaritu dut. 10.– Lagunek ez dutela deituko adierazi dute. 11.– Guk ezin dugula horrelakorik egin erantzun diogu nagusiari. 12.– Euria egingo duela ematen du. 13.– Nik ez ditudala landareak ikutu esan diot amari. 14.– Ez al duzu ikusi zapatak zikindu dituzula? 15.– Atea zabalik utzi dutela sumatzen da. 16.– Oporrak izango ditugula entzun diot irakasleari. 17.– Istripu bat izan duzula jakin dugu. 18.– Guk ekarriko ditugula ogiak adierazi diot amari.
4. 1.– Ura nahi dudala esan dut. 2.– Hotza duzula uste dut. 3.– Horrek gutxi balio duela erantzun diogu. 4.– Badakizu lana bukatu dugula. 5.– Etxe berria erosi duzuela entzun dugu. 6.– Gaur beroa egiten duela sumatu (nabaritu) dut. 7.– Argia behar dutela esan dute. 8.– Gauzak arratsaldean eramango ditugula esan diot. 9.– Diru gutxi duela adierazi du. 10.– Bost urte dituzula ematen du (dirudi). 11.– Liburu berriak dituzuela ikusi dut. 12.– Jateko gogoa dudala erantzun diot. 13.– Betaurrekoak behar dituela aitortu du. 14.– Oso gaizki egin duzula iruditzen zait.

BIGARRENA

- 1.– Jontxo alfer samarra da eskolan. 2.– Jontxoren notak txarrak izaten dira beti. 3.– Gehienetan azkena izaten da. 4.– Gaur saltoka etorri da etxera eta musu bat eman dio aitari. 5.– Bigarrena dela esan dio aitari. 6.– Aitak, nola gertatu den hori galdetu dio. 7.– Gripea dute beste ikasleek.

ORDU DESEGOKIA

- 1.– Gizona, estu ta larri agertu da medikuraren etxean. 2.– Ez, medikuak ez du ondo hartu; haserretu egin zaio. 3.– Kontsulta orduak lauetatik bostetara dira. 4.– Gizonari, medikuaren zakurrak egin dio hozka. 5.– Seiak eta laurdenetan.

ETXE BERRIA

- 1.– Bi lagunak, hizketan ari dira. 2.– Dionisioren etxe berria, zaharra da.

PENA HANDIA

- 1.– Gaizki dago senarra; hiltzen ari da. 2.– Andrea dago senarraren ondoan. 3.– Negar handia egingo du andreak senarra hiltzen denean.

HANKA BIAK

- 1.– Laguna, bisitatzera etorri zaio Manueli. 2.– Medikua, Manuelek hanka bat kanposantuan duela esan du. 3.– Lagunak, oraindik biak hor dituela ikusi du.

5. 1.– Realak Osaunari irabaziko diola uste dugu. 2.– Neskak mutilari zerbait esan diola nabaritu dut. 3.– Andreak esnari ura botatzen diola aitortu du. 4.– Medikuek operazioa seguruak ordainduko diola erantzun dio gaisoari. 5.– Robertok ez diola hori barkatuko esan dio Alfonsori. 6.– Mutikoez gaizki erantzun diotela izebari iruditu zait. 7.– Badirudi amari ez diotela ezer esan. 8.– Zure arrebari opari bat egingo diotela entzun dugu. 9.– Eduardori lan berri bat eskaini diotela jakin dugu. 10.– Etzi eramango dizkiodala paperak adierazi diot osabari. 11.– Lagunari atea ireki diodala ikusi dute. 12.– Iñigok gezurra esan diozula uste du. 13.– Aitak badaki dirua eskatuko diogula. 14.– Lurdesek kotxea utziko diozuela ulertu du. 15.– Isidro, ez diozuela etxea saldu nahi esaten ari da.
6. 1.– Gauza bat ekarri diola ikusi dugu. 2.– Isabelek liburu bat kendu diodala dio (esaten du). 3.– Gaizki erantzun diozula uste dut. 4.– Osabak, egia esan behar diozuela esan du. 5.– Medikuek, ez diotela zure aitari ezer aurkitzen esaten dute. 6.– Josek atea itxi diogula ikusi du. 7.– Nik esan diodala uste duzu? 8.– Harri bat bota diozula esaten du. 9.– Iñakik inork ez diola ezer esan dio. 10.– Egunkariak igoko dizkiogula esan diogu.
7. 1.– Edurnek kartera galdu zaiola esan du. 2.– Ikasleak liburua ekartzea ahaztu zaiola esan du. 3.– Lagunak dirua bukatu zaiola aitortu du. 4.– Bere poesia asko gustatu zaidala aiderazi diot Gabrieli. 5.– Soinekoa oso merkea iruditu zaidala esan diot arrebari. 6.– Berehala nabaritu dut zerbait okerra gertatu zaizula. 7.– Aitona hil zaizula entzun dut. 8.– Kotxea bide erdian gelditu zaigula esango diogu nagusiari. 9.– Asmo hori egokia iruditu zaigula adierazi diot Rikardori. 10.– Izebak bihar iritsiko zaizuela eskutitza esan du. 11.– Langileek laguntza hori ondo etorriko zaiela uste dute. 12.– Oso argazki politak atera zaizkizula ikusi dut. 13.– Idoiak nagusia haserretu egin zaiola esan du. 14.– Alkateari etxean lapurrak sartu zaizkiola irakurri dugu.
8. 1.– Badirudi zure erantzuna ez zaiola gustatu Mireni. 2.– Zapatan harri bat sartu zaidala uste dut. 3.– Hori ez zaizula ondo iruditzen adierazi diogu Koldori. 4.– Zure amak badaki ogia bukatu zaigula. 5.– Zerbait ahaztu zaizuela uste dugu. 6.– Diru hori ondo etorriko zaiela esan dute.
9. 1.– Hori gaizki eginga dagoela aitortu behar duzu. 2.– Eguraldi ona dagoela ematen du. 3.– Arazoa konpondua dagoela adierazi dute. 4.– Zopa gazia dagoela dirudi. 5.– Partidua irabazia dagoela uste dugu. 6.– Aspertu samarra nagoela erantzun diot Garbiñeri. 7.– Jakin ezazu ez nagöela horregatik haserre. 8.– Triste zaudela nabaritu dut. 9.– Ederki gaudela hemen esan diot adiskideari. 10.– Ez gaudela konforme horrekin erakutsi behar dugu. 11.– Gure zain zaudetela ulertu dugu. 12.– Beldurturik zaudetela aitor ezazue. 13.– Horko leihoak zabalik daudela sumatu dut. 14.– Haurrak lo daudela ematen du. 15.– Gaur jende asko dabilela kalean ikusi dugu. 16.– Aurten hobeto nabilela uste dut. 17.– Oker zabiltzala ulertu behar duzu. 18.– Mozkortua zabiltzala ematen du. 19.– Ikasleek pozik dabiltzala eskola horretan aitortu dute. 20.– Badakit berandu natorrela gaur. 21.– Nerekin hitz egitera zatozela ulertu dut. 22.– Haize hotza datorrela nabaritu dut. 23.– Autobusa bete-betea datorrela ematen du. 24.– Etsaiak handik datozela esan dute. 25.– Gaur ez noala afaltzera adierazi diot Feliperi. 26.– Inesek haurra ekartzera doala esan du. 27.– Badakite gu ez goazela dirua eskatzera. 28.– Gauzak bide zuzenetik doazela uste dugu. 29.– Politika arazoak gaizki doazela irakurri dut.
10. 1.– Oso nekatua nagoela esan diot Sebastiani. 2.– Hori ondo dagoela uste duzu? 3.– Haserre zaudela dirudi. 4.– Zure liburuak mahai hartan daudela uste dut. 5.– Goiz zabiltzatela ikusten dut. 6.– Erloju hau oker (gaizki) dabilela uste dut. 7.– Jaun hauek zurekin hitz egitera datozela diote (esaten dute). 8.– Ibaiak oso zikinak datozela ikusi dugu. 9.– Aitonak kalera doala esan du. 10.– Bere etxera goazela adierazi diogu. 11.– Gauzak oker (gaizki) samar doazela aitortu behar dugu.
11. 1.– Gazte horrek asko dakiela iruditu zait. 2.– Badirudi Andonik ez dakiela bakarrik ibiltzen. 3.– Nik dena dakidala uste duzu, ala? 4.– Irakasleak kimika asko dakizula esan du. 5.– Zuk, ederki dakizula frantsesez erakutsi duzu. 6.– Guk ez dakigula ezer aitortu behar dugu. 7.– Zuek gehiegi dakizuela nabaritu dut. 8.– Agure horrek diru asko daukala esaten du jendeak. 9.– Haragiak ez daukala gatzik sumatu dut. 10.– Paperak bulegoan dauzkadala uste dut. 11.– Nerea bezalako erlojua daukazula

ikusi dut. 12.– Bihotz handia daukazula erakutsi behar duzu. 13.– Gaur ez daukagula lan handirik erantzun diot nagusiari. 14.– Ez daukazuela hitz egiteko gogorik nabaritu dut. 15.– Ibaiak ur zikina dakarrela ikusi dugu. 16.– Berri hori gaurko egunkariak dakartela esan du Maitek. 17.– Asmo onak dakartzazula bilerara entzun dugu. 18.– Jakin ezazu gizon horrek denbora luzea daramala zure zain. 19.– Kamioi gorri hark bonbonak daramatzala esan dute. 20.– Pisu handiegia daramazula boltsan iruditu zait.

12. 1.– Begoñak ederki (oso ondo) dakiela euskaraz entzun dugu. 2.– Mutil hauek gauzak egiten badakitela erakutsi dute. 3.– Badakit badakizula ezer ez dakidala. 4.– Elenak liburua bere gelan daukala erantzun du. 5.– Aurpegi txarra daukazula nabaritu dut. 6.– Zapata askatua daukadala uste dut. 7.– Neska hauek ile motza daukatela iruditu zait. 8.– Diru gutxi dakartzula uste dut. 9.– Egurra mendi haietatik dakartela diote. 10.– Horrek makila daramala iruditu zaigu.
13. 1.– Ostiraleko afaria oso merkea izan zela uste dugu. 2.– Badirudi herenegun ez zela klaserik izan. 3.– Hernanin istripu bat izan zela ekarri dute egunkariak. 4.– Atzoko pelikula oso aspergarria izan zela esan dute. 5.– Arrantzaleek itsasoan ibili zirela diote. 6.– Izebari Gasteiza joan nintzela esango diot. 7.– Txikitan oso bihurria zinela entzun dugu. 8.– Badakigu larunbatean Elisarekin ibili zinela. 9.– Oroitzen naiz igazko oporretan kanpoan izan ginela. 10.– Jakin dugu berandu arte aritu zinetela hizketan. 11.– Haurrak ez zuela eskolarik esan zuen. 12.– Andonik ez zuela dirurik behar adierazi zuen. 13.– Robertok erabili zuela kotxea gogoratzen naiz. 14.– Xabierrek ezin zuela horrelakorik sinistu esan zuen. 15.– Ez zuela lanerako gogorik erantzun zuen Silviak. 16.– Mutilek beldur handia pasa zutela aitortu dute. 17.– Jaialdia auzoko gazteek antolatu zutela irakurri dugu. 18.– Gauza haiek garrantzi handia zutela jakin ezazue. 19.– Denda hartan erloju bat erosi nuela oroitzen naiz. 20.– Bileran hartan nik ez nuela inor ezagutzen esan nuen. 21.– Zuk kalean ibiltzeko gogo zenuela adierazi zenuen. 22.– Zuk kafesne beroa eskatu zenuela gogoratzen naiz. 23.– Irakasleak ez genuela ezer ikasi erantzun zuen. 24.– Zuek giltza galdu zenutela esan zenuten. 25.– Atzoko haizeak zuhaitz asko bota zituela esan du irratia. 26.– Etxe haiek nere osaba batek egin zituela uste dut. 27.– Gazteek asmo onak zituztela erakutsi zuten. 28.– Haur hauek bota zituztela harriak esan dute. 29.– Zure gurasoak Donostian ezagutu nituela uste dut. 30.– Horrelako gauzak aipatu zenituela oroitzen naiz. 31.– Etxera eraman genituela liburuak esan diot Nekaneri. 32.– Argazkiak zuek jaso zenituztela dio Junkalek. 33.– Amak ontziak garbitu gabe utzi zenituztela esan du. 34.– Jakin ezazu zure gauzak ez zituela inork ikutu. 35.– Azkenean ez zituztela lapurrak harrapatu irakurri dugu.
14. 1.– Zure anaia atzo hemen izan zela uste dut. 2.– Zure lagunak egun hartan ez zirela etorri esaten dute. 3.– Nere gurasoek ni ez nintzela oso zintzoa diote. 4.– Zu gizen samarra (nahiko gizona) zinela gogoratzen naiz. 5.– Gu berandu iritsi ginela erantzun dut. 6.– Ez zinetela bileran izan adierazi diot. 7.– Martinek Ander bulegoan ikusi zuela dio. 8.– Hauek zurekin afaldu zutela diote. 9.– Euritakoa zuen etxean utzi nuela uste dut. 10.– Gaizki egin nuela aitortzen dut. 11.– Hori Bilbon erosi zenuela diozu? 12.– Guk ez genuela ezer ikusi aitortu dugu. 13.– Zuek atea ireki zenutela diozue. 14.– Aldizkariak andre hark eraman zituela oroitzen naiz. 15.– Zure anaiak (anai-arrebak) Markinan ikusi zituztela diote. 16.– Paperak jaso nituela adierazi diot. 17.– Botilak ekarri behar zenituela erantzun dute. 18.– Guk ez genituela ezagutu esan dut. 19.– Egia (al) da platerak puskatu zenituela?

“KANPOAN NAGOELA ESAIOZU”

1.– ¡Buenas tardes! ¿Está tu padre en casa? 2.– Sí. Pero está viendo el partido... 3.– Dile que salga, por favor... que tengo que hablar con él... 4.– ¡Aí! Ha venido un señor y dice que quiere hablar contigo... 5.– ¡M...! Dile que estoy fuera y que vendré tarde! 6.– De parte de mi padre, que está fuera y que vendrá tarde...

IRAKURGAIA

1.– Nikolasen zaletasuna, futbola da. 2.– Gaur Athletic eta Realaren arteko partidua emango dute telebistan. 3.– Nikolasek lehengusu bat hil zaiola esan dio enkargatuari.

4.– Enkargatuak asko sentitzen duela erantzun dio eta lasai joateko behar duenean. 5.– Nikolasek saltoka hasteko gogoa sentitu du orduan, baina bada-ezpada ere aurpegi tristea jarri du. 6.– Arratsaldean gorbata beltza eraman du lantokira. 7.– Ez, arratsaldea ez zaio motza iruditu; oso luzea iruditu zaio. 8.– Denbora gehiena, erlojuari begira pasatu du. 9.– Etxean sartu denean, gorbata beltza kendu du eta zapatilak jantzi ditu. 10.– Partiduaren lehen zatia nahiko aspergarria izan da. 11.– Athletic-ek bigarren zatiko hamargarren minutuan sartu du gola. 12.– Reala orduan erasoan hasi da oso gogor. 13.– Ez. Aukera ederrak izan ditu baina ez du golik sartu. 14.– Ez, Nikolas ez dago lasai; oso urduri dago. 15.– Ez. Ez zuen butakatik jaiki nahi eta Josetxori esan dio atea irekitzeko. 16.– Gizonak, aitatxo etxean al den galdetu dio Josetxori. 17.– Josetxok, baietz erantzun dio, aita etxean dela baina partidua ikusten ari dela. 18.– Josetxok, gizon bat etorri dela eta berarekin hitz egin nahi duela esan dio aitari. 19.– Josetxok, aita kanpoan dagoela eta berandu etorriko dela esan dio gizonari.

EL GATO NEGRO (KATU BELTZA)

Martxelo vivía en un lejano caserío. Nació pobre y pobremente vivía. Sin embargo tenía un huerto y con él sacaba lo suficiente para vivir. Por la mañana solía bajar al mercado del pueblo a vender hortalizas y por la tarde trabajaba en su pequeña huerta. Tampoco tenía ganado y la leche la traía diariamente del pueblo.

Eran aquellos unos días calurosos y a fin de tener la leche en sitio fresco por las noches sacaba el cuenco a la ventana.

Una mañana, sin embargo, cuando fue a coger la leche advirtió que el recipiente estaba medio vacío.

– ¡Qué demonios ha ocurrido aquí! –dijo–. ¡Ayer dejé el cuenco completamente lleno y ahora no llega ni a la mitad!

Martxelo estaba extrañado...

A la mañana siguiente le ocurrió igual, y a la siguiente igual. El hombre estaba preocupado y decidió aclarar aquel misterio:

– Aquí anda alguien tomándome el pelo y ya me he cansado. ¡Hoy mismo tengo que averiguar quién es el ladrón! ¡Por la noche no me acostaré y aguardaré junto a la ventana!

Así pues, sacó el cuenco a la ventana como todos los días y él se quedó dentro con la luz apagada. Había luna llena y veía perfectamente las proximidades de la casa.

A eso de las doce advirtió que un gato negro entraba sigilosamente en la huerta. El gato subió de un salto a la ventana y empezó a beber la leche. Martxelo entonces cogió un palo y le asestó un buen golpe en una de las patas delanteras. En aquel instante escuchó un chillido de mujer y el gato huyó.

Al día siguiente la vieja de al lado tenía el brazo (envuelto) en un trapo y ella decía que se había caído por las escaleras. Pero Martxelo sabía que aquello era mentira y que aquella mujer era bruja.

GALDERAK

1.– Martxelo, urrutiko baserri batean bizi zen. 2.– Baratzan egiten zuen lana. 3.– Ez, ez zuen behirik eta esnea herritik ekartzen zuen egunero. 4.– Esnea, leihoan uzten zuen gauean. 5.– Ontzia goiz batean erdi hustua agertu zen. 6.– Hiru aldiz gertatu zitzaion. 7.– Martxelo, leiho ondoan egon zen lapurraren zain. 8.– Itzalita zuen argia. 9.– Gau argia zen; ilargi betea zegoen eta ederki ikusten zuen. 10.– Katua, hamabiak aldean agertu zen. 11.– Kolpe izugarri bat eman zion katuari aurreko hanka batean. 12.– Emakume baten garrasia entzun zuen. 13.– Katuak orduan ihes egin zuen. 14.– Aldameneko atsoak zapi batez lotua zeukan besoa. 15.– Atsoak, eskaileretan erori zela esaten zuen. 16.– Martxelok, hura gezurra zela zekien eta emakume hura sorgina zela. 17.– Ez zion inori kontatu.

15. 1.– Atzo zure herriraino joan ginen. 2.– Autobus hau Bilboraino joaten da. 3.– Tren hau Tolosaraino ez da gelditzen. 4.– Etxeraino joango gara elkarrekin. 5.– Azkenearaino jarraitu zuten. 6.– Leporaino sartu zen itsasoan. 7.– Boltsa goraino bete ezazu. 8.– Goitik beheraino busti zen. 9.– Honaino iritsi ziren harriak. 10.– Bi kilometro daude haraino. 11.– Euria barruraino sartu zen. 12.– Eraman ezazu kotxea garaje horretaraino. 13.– Baserri harataraino igoko gara. 14.– Nekatu arte ibiliko gara. 15.– Aspertu arte hitz egin zuten. 16.– Bihar arte ez da ogirik izango. 17.– Astelehen arte egongo gara Donostian. 18.– Ikusi arte ezin dut ezer esan. 19.– Partidua amaitu arte egon ziren gurekin. 20.– Ez naiz geldituko zure etxea aurkitu arte. 21.– Ez zarete hemendik aterako dena garbitu arte. 22.– Aita etorri arte ez zen handik mugitu. 23.– Kotxea konpondu arte oinez ibili beharko dugu.

10

1. 1.– Ez dakit nor den hori. 2.– Badakizu ze ordu den? 3.– Badakizue zein etorri den? 4.– Ba al daki inork zen gertatu den? 5.– Ba al dakizu nongoa den Arantxa? 6.– Anttonek nolakoa den neska hori jakin nahi du. 7.– Nik ez dakit nondik pizten den argi hori. 8.– Lagunak ez du esan gaur ala bihar etorriko den. 9.– Irakasleak norena den liburu hori galdegin du. 10.– Noiz iritsiko den trenak jakin behar dugu. 11.– Langileek badakite nola erabili behar den makina berria. 12.– Lagunek ez dute esan noiz agertuko diren. 13.– Ezin dugu esan osaba-izebak etorriko ote diren. 14.– Ertzainak noren etxean sartu diren lapurrak galdetu du. 15.– Zertan gelditu diren azkenean galdetu behar dugu. 16.– Garbi adierazi diogu nagusiari zein diren gure asmoak. 17.– Neska-mutil horiek ez dute esan nongoak diren. 18.– Jatetxean zenbat etorriko diren bazkaltzera galdegin dute. 19.– Laster ikusiko du horrek nor naizen. 20.– Ez dakit seguru joango ote naizen. 21.– Ez dakizue zenbat nekatu naizen! 22.– Zer moduz bizi zaren jakin nahi dugu. 23.– Esan ezazu zertan ari zaren. 24.– Amari noiz joango garen esan behar diogu. 25.– Ez dakit noraino iritsiko garen. 26.– Jakin al daiteke non ibili zareten? 27.– Esan ezazue ondo portatu zareten.
2. 1.– Ez dakit zer den hori. 2.– Ze ordu den galdetu diot. 3.– Iñakik ez du esan norekin joango den mendira. 4.– Badakizu nola irekitzen den hau? 5.– Nolakoa den mutil hori jakin nahi dugu. 6.– Olatzek nongoak diren zure lagunak galdetu du. 7.– Badakizu nor naizen? 8.– Non ibili zaren jakin nahi dugu. 9.– Badakizue non bizi garen. 10.– Amonak zenbat joango garen afaltzera galdetu du. 11.– Ez dugu erabaki ostegunean ala ostiralean aterako garen. 12.– Zertara etorri zareten jakin nahi dut. 13.– Zenbat ikasle zareten galdetu dute. 14.– Ea nor etorri den. 15.– Ea nolakoa den ardo hau. 16.– Ea noraino iristen garen. 17.– Ea ongi portatzen zareten.
3. 1.– Irratiak oraindik ez du esan zeinek irabazi duen partidua. 2.– Guk ez dakigu nork esan duen hori. 3.– Atso horri ezin diot ulertu zer nahi duen. 4.– Zure lagunari zer egin behar duen adieraziko diot. 5.– Esango al didazu, mesedez, zenbat balio duen horrek? 6.– Mutikoek ez dute esan nahi nondik atera duten dirua. 7.– Nolako etxea duten auzokoek ikusi nahi dut. 8.– Ikusi nahi duzue zer erosi dudan? 9.– Izebak nolako oparia nahi duzun galdetu du. 10.– Ez dut ulertzen zergatik egin duzun hori. 11.– Erabaki ezazu haragia ala arraina hartuko duzun. 12.– Jakin al daiteke zertarako behar duzun giltza? 13.– Ze ordutan bazkalduko dugun jakin nahi dut. 14.– Ez dut ongi ulertu zer egin behar dugun. 15.– Amak norekin hitz egin dugun jakin nahi du. 16.– Nagusiak noizko bukatuko duzuen lana jakin nahi du. 17.– Atanasiok ez omen daki zertaz hitz egin duzuen bileran. 18.– Jakin daiteke zenbatean erosi duzuen etxea? 19.– Bitorrek zeinek eraman duen egunkaria galdegin du. 20.– Nork esan dituen gezur horiek jakin nahi dut. 21.– Marisak ez du esan nahi zenbat urte dituen. 22.– Ez dakigu nora eraman dituzten zure paperak. 23.– Andre horri noiz irekiko dituzten dendak galdetu diogu. 24.– Eskolan, nolako notak atera ditudan begira ezazu. 25.– Ez naiz gogoratzen non utzi ditudan gauzak. 26.– Haurrak, non gorde dituzun jostailuak galdegin du. 27.– Ez dakit zertarako erosi ditugun hainbeste liburu.
4. 1.– Ez dakit zer duen haur honek. 2.– Ez dut ulertzen zergatik esaten duten hori. 3.– Inork ez daki nork esan duen hori. 4.– Norekin hitz egin behar dudan galdegin (galdetu) diot. 5.– Ez dut entzun (aditu) zer esan duzun. 6.– Badakizu zer egin duzun? 7.– Non bazkalduko dugun erabaki dut. 8.– Noiz arte egon behar dugun hemen jakin nahi dut. 9.– Esan ezazue nondik atera duzuen hori. 10.– Zenbat ordaindu behar dugun galdegin ezazu. 11.– Ez dakit nork dituen zure argazkiak. 12.– Ez dakit non utzi ditudan betaurrekoak. 13.– Ea zer esaten duen (dioen) horrek. 14.– Ea nork (zeinek) irabazten duen. 15.– Ea nolako eguraldia egiten duen (dagoen). 16.– Ea zer ekarri duzun.

GOLFO Y MAJADERO (ALPROJA ETA KAIKUA)

Vicente está pelando patatas en la cocina del cuartel. Está aburrido y no sabe qué hacer para distraerse. Piensa que su amigo estará limpiando la habitación del capitán y decide llamarle por teléfono. Se levanta y marca el número.

– ¿Sí? –le contesta una voz.

– ¡Tururú! ¡Tarár! ¿Estás ahí, golfo? ¡Majadero sinvergüenza!

Por lo visto es el propio capitán quien ha cogido el teléfono y le responde enfadado:
 – ¿Qué? ¿Cómo? ¿Yo golfo y majadero? ¿Se puede saber quién es usted? Irá al calabozo inmediatamente!
 – ¿Ah, sí? ¡Adivine, pues, quién soy y venga rápido a llevarme al calabozo! ¡Ja, ja, ja! Cuelga y continúa pelando patatas...

GALDERAK

1.– Kuarteleko sukaldean, Bixente dago. 2.– Patatak zuritzen ari da. 3.– Ez, ez du ongi pasatzen; aspertu egiten da eta ez daki zer egin distraitzeko. 4.– Kapitanaren gela garbitzen ariko dela uste du. 5.– Denbora pasatzeko deitzen dio. 6.– Ez, telefonoa ez du lagunak hartu, kapitanak (kapitanak berak) hartu du. 7.– Ez, kapitana ez da pozik ari; haserre ari da. 8.– Kalabozora joango dela esaten du. 9.– Ez, kapitanak ez daki norekin ari den hizketan. 10.– Bai, Bixentek badaki kapitanarekin ari dela. 11.– Ez, ez da beldurtu; (farre egin du). 12.– Asmatzeko nor den eta azkar joateko kalabozora eramatera.

5. 1.– Haurrak ez du esan nahi nork eman dion zigarroa. 2.– Albertok ez du aipatu nori saldu dion kotxea. 3.– Ez dut ulertzen zergatik eman dioten arrazoia. 4.– Ez dakit zenbat ordaindu beharko diodan mekanikoari. 5.– Ezetz asmatu zer erosi diodan haurrari. 6.– Ameliak zenbat diru eskatuko dioten galdegin du. 7.– Zergatik erantzun diozun horrela esan behar duzu. 8.– Maribelek, egia esan ote diozun jakin nahi du. 9.– Zer esango diogun Ainhoari pentsatu behar dugu. 10.– Zer erregalatuko diozuen amonari erabaki behar duzue. 11.– Zer erantzun diozuen nere ahizpari jakin nahi dut. 12.– Ez dugu ikusi noiz eman dizkion giltzak. 13.– Zuek esango duzue nori eman behar dizkiodan eskerrak.
6. 1.– Nork utzi dion aldizkaria galdetu diogu. 2.– Ez du ikusi nork bota dion harria. 3.– Andonik ez daki oraindik zer erantzungo dion Fidelek. 4.– Ez dakit barkatuko diodan. 5.– Zer esan diozun gizon horri jakin nahi dugu. 6.– Zure izebak non utziko diogun ogia galdegin du. 7.– Ez dakit zergatik eman dioten diru hori zure lagunari. 8.– Ea zer erregalatu diozun Rupertori. 9.– Ea nork irabazten dion honi.
7. 1.– Itziarrek ez daki non galdu zaion giltza. 2.– Joni, zer iruditu zaion nere lana galdetu behar diozu. 3.– Badakizu nori tokatu zaion loteria? 4.– Ezin dut aurkitu nondik ateratzen zaion haizea baloiari. 5.– Ezin dut ulertu nola gertatu zaien hori. 6.– Badakizue non ahaztu zaidan euritakoa? 7.– Zer gertatzen zaizun jakin nahi dut. 8.– Etxekoandreak, nola gustatzen zaizun haragia galdetu du. 9.– Zuk zer komeni zaizun esan behar duzu. 10.– Alfontsoi zer iruditu zaigun bere etxea adieraziko diot. 11.– Ez dakit zergatik puskatu zaigun gorpila. 12.– Noiz iritsiko zaizuen dirua galdetu behar duzue.
8. 1.– Ez dakit zer gustatzen zaion zure arrebari (ahizpari). 2.– Ez dakit zer gertatzen zaidan. 3.– Badakizu nondik iritsi zaizun eskutitz hori? 4.– Zer iruditzen zaizuen nere herria galdegin (galdetu) dut. 5.– Ez dakit nola esan behar zaizkizun gauzak. 6.– Zure laguna noiz etorriko zaigun jakin nahi dugu. 7.– Ea zer iruditzen zaizun hau.
9. 1.– Zer moduz dagoen aitona ikustera gatoz. 2.– Esango al didazu, mesedez, non dagoen udaletxea? 3.– Zenbat botila dauden sukaldean kontatu behar dugu. 4.– Zertan dauden gauzak jakin nahi dugu. 5.– Zergatik zauden haserre esan behar didazu. 6.– Badakizu noiztik gauden zure zain? 7.– Anaiak zure motoa ondo dabilen galdetu du. 8.– Ez dakit nola dabilen erloju zahar hau. 9.– Ikusi duzu norekin dabilizan horiek? 10.– Nondik nora zabiltzan jakitea komeni zaigu. 11.– Badakizu ze ordutan datorren Hondarribiko autobusa? 12.– Begira ezazu zenbat jende datorren. 13.– Andreak zein datozen bazkaltzera galdegin du. 14.– Ez dakit zertarako zatozten ordu honetan. 15.– Esango al didazu noraino doan tren hau? 16.– Zer moduz doan zure arazoa galdegin diot abokatuari. 17.– Jakin daiteke zertara zoazen orain? 18.– Ez dakit nora goazen bide honetatik.
10. 1.– Non dagoen nere etxea erakutsiko diot. 2.– Jesusek non dauden bere gauzak galdetu du. 3.– Zer moduz zaudeten jakin nahi dut. 4.– Badakizu nola dabilen erloju hau? 5.– Ikusi duzu norekin dabilen Kepa? 6.– Begira ezazu nor datorren. 7.– Jakin daiteke zertara datorren mutil hori? 8.– Ez diot esan nora goazen. 9.– Ea nola dabilen makina hau. 10.– Ea zenbat datozen.

11. 1.– Zerbait dakien galdetu behar diogu Mertxeri. 2.– Ez du esan nahi nondik dakien hori. 3.– Harrigarria da zenbat dakien horrek. 4.– Makinaz idazten badakizun galdegin dute. 5.– Frantsesez ondo dakitela erakutsi behar dute. 6.– Agure horrek zenbat diru daukan ere ez daki. 7.– Ezetz igarri zer daukadan esku honetan. 8.– Ea nolako erlojua daukazu. 9.– Ez omen da oroitzen non dauzkan paperak. 10.– Ez dakigu zergatik dakarren aurpegi hori. 11.– Begiratu duzu zer dakarten egunkariak? 12.– Zenbat diru dakarten lagunek jakitea komeni zaigu. 13.– Esan ezazu zer dakarzun maletan. 14.– Zergatik daraman gorbata beltza galdegin diot Iboni. 15.– Ez dakit zenbat denbora daraman anaiak Bartzelonan.
12. 1.– Ea zerbait dakien galdetuko diogu. 2.– Ez dakit nork daukan zure liburua. 3.– Ikusi al du medikuak nola daukazu hanka? 4.– Erakutsi ezazue zer daukazu hor. 5.– Begira ezazu zer dakarren egunkariak. 6.– Jakin daiteke nora daramazu hori? 7.– Zer daramagu boltsa honetan jakin nahi dute. 8.– Ea zenbat dakizu. 9.– Ea zer dakarzun.
13. 1.– Ez zuten esan nongoa zen gizon hura. 2.– Ez dakit noiz bukatu zen partidua. 3.– Ezin dugu ulertu zergatik haserretu zen horrela. 4.– Auzokoek ez zuten ikusi nondik atera ziren lapurrak. 5.– Badakizu norenak ziren argazki polit haiek? 6.– Ezetz asmatu norekin izan nintzen atzo. 7.– Lurdesek zergatik etorri zinen hain berandu jakin nahi du. 8.– Ez naiz oroitzen zertaz ari ginen hizketan.
14. 1.– Badakizue zer gertatu zen atzo? 2.– Ez dakit noiz iritsi zen zure laguna. 3.– Badakizu nora joan ziren zure anaiak (anai-arrebak)? 4.– Badakizu norekin izan nintzen ostegunean? 5.– Zergatik ez zinen bilerara etorri galdetu dute. 6.– Ez naiz oroitzen zenbat joan ginen afaltzera. 7.– Badakizue zertara joan ginen Bilbora? 8.– Karmenek pozik ibili (ote) zineten galdetu du.
15. 1.– Ez dakit zer esan zuen medikuak. 2.– Jakin al daiteke nork esan zuen hori? 3.– Gurasoek Elenak neska ala mutila izan zuen jakin nahi dute. 4.– Ez zuten esan nora eraman zuten gaisoa. 5.– Ez dakigu nondik ekarri zuten ardoa. 6.– Ez zuten aipatu zenbatean erosi zuten kotxea. 7.– Ez dut esango norekin hitz egin genuen. 8.– Zertan gastatu zenuten dirua jakin nahi dugu. 9.– Baserritarrek ez zuen adierazi zenbat abere zituen. 10.– Oroitzen zara nolako txisteak kontatzen zituen agure hark? 11.– Ez dakit non gorde nituen aldizkariak. 12.– Gogoratzen al zara nondik hartu nituen giltzak? 13.– Oroitzen al zarete nolako gauzak egiten genituen eskolan?
16. 1.– Ez naiz oroitzen (gogoratzen) zenbat balio zuen nere kotxeak. 2.– Badakigu nork idatzi zuen eskutitz hori. 3.– Albertok ez zuen esan zertarako behar zuen kotxea. 4.– Badakizu zergatik egin nuen hori? 5.– Liburu hori non erosi zenuen jakin nahi dut. 6.– Nekanek zer nahi zenuten galdegin du. 7.– Badakizu nora eraman zituzten nere paperak?

“NOTA ONAK”

1.– ¡A ver qué notas has traído! 2.– ¡Caramba! ¡No sé si veo bien! 3.– Sí, sí. ¡Ves muy bien! ¡Soy la primera de clase! ¡Qué te has creído! (¡Qué te crees!). 4.– ¿Y se puede saber cómo ha ocurrido eso? 5.– Hemos tenido un examen y el mío ha sido el mejor. 6.– ¿Qué te han preguntado, pues? 7.– Cuántas patas tiene un elefante... 8.– Y yo he respondido que tiene tres. 9.– ¿Tres? ¿Y aún y todo has sido la primera? 10.– Sí. Es que los otros han puesto que dos...

IRAKURGAIA

1.– Itziartxo lehenbiziko mailan dabil. 2.– Gaizki portatzen da. Ez da oso saiaria. Nahiko bihurria da eta lan gutxi egiten du. Lagunekin jolasean eta berriketan pasatzen du denbora. 3.– Nota txarrak ekartzen ditu gehienetan. 4.– Azkenetakoa izaten da. 5.– Oso harro agertu da. Esku batean maletatxoa dakar eta bestean nota papera. 6.– Aitak, nolako notak atera dituen jakin nahi du. 7.– Harrituta gelditu da. Ezin du sinetsi ikusi duena. 8.– Zenbat hanka dituen elefanteak galdetu diote. 9.– Itziarrek, hiru hanka dituela erantzun du. 10.– Beste lagunek bi dituela jarri dute.

17. 1.– Aitak, nolako eguraldia dagoen galdegin du. 2.– Semeak euria egingo duela uste du. 3.– Arrebak, noiz hasiko den lanean galdegin dio anaiari. 4.– Anaiak, berehala

hasiko dela erantzun dio. 5.– Osabak, non ibili diren goizean galdegin dio izebari. 6.– Izebak, Ixabelekin erosketa batzuk egitera atera direla erantzun dio. 7.– Ebaristok Ana ezkondu egin dela esan du. 8.– Iñakik norekin ezkondu den galdegin dio. 9.– Ebaristok ez dakiela erantzun dio. 10.– Hipolitok, zopak ez duela gatzik esan du. 11.– Emazteak egia dela erantzun dio, botatzea ahaztu zaiola. 12.– Jaionek, atzo pelikula ederra ikusi zuela esan du. 13.– Moisesek bakarrik joan al zen galdegin dio. 14.– Jaionek ezetz erantzun dio, hiru lagun joan zirela.

18. 1.– Aitorrek egunkaria ekarri (al) duen galdegin dio Luperi. 2.– Lupek baietz erantzun dio, mahai gainean utzi duela. 3.– Aitorrek, hori ez dela gaurkoa, atzokoa dela esaten du. 4.– Lupek, orduan norbaitek hartu duela esaten du. 5.– Amak, zer galdu zaion galdetzen dio Aitorri. 6.– Lupek, (ea) berak hartu duen gaurko egunkaria galdetzen dio amari. 7.– Amak ezetz erantzuten dio, berak ez duela hartu. 8.– Aitorrek berdin dela esaten du, orain ezin duela irakurri, lanera joan behar duela eta.

19. ITZULPENA

Badakizu nor ikusi dudan kalean? Mikel, zure anaia. Bihar bere etxera joango garela esan diot. Noiz joango garen galdetu du eta eguerdian joango garela erantzun diot. Zuk lan handia duzula ere adierazi diot eta arratsaldean joango zarela. Ondo iruditzen zaiola esan du.

MATEO TXISTU

Mateo Txistu era el cura de un pueblo pequeño. Era un buen cura, pero también un cazador empedernido. Siempre andaba en el monte cazando con sus perros.

Un domingo por la mañana fue a celebrar misa y dejó a los perros atados en el atrio de la iglesia. Se vistió los ornamentos y empezó a decir misa. Estando en ello pasó una liebre junto a la iglesia y los perros comenzaron a ladrar con mucha fuerza. Al oírlo, el cura dejó plantada la misa y fue corriendo a coger la escopeta. Sin tiempo para quitarse los ornamentos soltó a los perros y salió tras la liebre. La gente en la iglesia se quedó asombrada y boquiabierta.

La liebre huyó hacia el monte y tras ella los perros y Mateo. Anduvieron y anduvieron pero no pudieron alcanzar a la liebre. Al llegar al mediodía Mateo se quedó sin comer.

Pasaron todo el día corriendo de un lado para otro y sin embargo no alcanzaron a la liebre. Y así continuaron también durante toda la noche. ¡Fiiiiiiu! ¡Fiiiiiiu! se oían de noche los silbidos del cura llamando a los perros.

A la mañana siguiente Mateo estaba reventado y tenía las ropas completamente desgarradas, y, sin embargo, sigue que te sigue continuaba corriendo tras la liebre.

A eso del mediodía Mateo llegó a un caserío y vio una mujer haciendo pan.

– ¡Por favor, señora! ¡Deme un pan, que estoy desfallecido de hambre (muerto por el hambre)! –le dijo Mateo.

– Sí, sí –le respondió la mujer–. Espere un poquito y le daré enseguida.

Pero para cuando la señora tomó el pan apareció la liebre y el pobre cura echó a correr de nuevo.

Y por lo visto, a partir de entonces así anda siempre. A través de montes y bosques, cuando hace sol sudando y cuando llueve hundido en el barro, siempre corriendo sin poder detener sus piernas.

Fue un castigo de Dios por haber dejado sin acabar la misa.

Todavía hoy (ahora), cuando en las largas noches invernales se escucha el silbido del viento, suelen decir los viejos que es Mateo Txistu el que anda por los alrededores.

GALDERAK

1.– Mateo Txistu herri koxkor batean bizi zen; bertako apaiza zen. 2.– Apaiz zintzoa zen baina ehiztari amorratua ere bai. 3.– Eliz atarian lotuta utzi zituen zakurrak. 4.– Zaunkaka hasi ziren indar handiz. 5.– Meza bertan behera utzita eskopeta hartzera joan zen berehala. 6.– Jendea txunditurik eta aho zabalik geratu zen elizan. 7.– Hurrengo goizean, leher eginda zegoen Mateo eta jantziak erabat urratuak zituen. 8.– Andre bat ikusi zuen. 9.– Andre hura ogia egiten ari zen. 10.– Mateo, horrela dabil harrezkero. Mendi eta basoetan zehar, eguzkia dagoenean izerditan eta euria ari duenean lokatzetan sartuta, korrika beti bere hankak gelditu ezinik. 11.– Meza bukatu gabe utzi zuelako zigortu zuen Jainkoak. 12.– Mateo Txistu dabilela inguruan esaten dute.

